

Zu hemen zaude.

goiena

40 URTE DIRA ESKOLA NAZIONALAK ETA IKASTOLAK BAT EGIN ZUTELA

Aramaioko euskarazko herri eskolaren sorrerako
urteak gogora ekarri dituzte / 18

Jesus Zabala –ikastolaren bultzatzailea–, Paulino Ibañe –eskolako irakasle ohia–, Ana Arriolabengoa –ikastolako andereño izandakoa– eta Saioa Uriarte –egungo zuzendaria–. JULEN IRIONDO

Hauteskundeetarako talde berria mamitzen

Alderdi politikoekin loturarik izango ez duen herritarren zerrenda bultzatzen ari dira Arrasaten, maiatzeko udal hauteskundera begira / 9

**Bergara Zientziaren
'Leku Historiko'
izendatu du European
Physical Society
elkartek / 3**

**Euskara jakitetik
erabiltzera "jauzi
egiteko" dei egin
dituzte herritarrak
mintzalagunek / 2**

**Oñatiarrek 500.000
euro izango dituzte
aukeratzen dituzten
proiektuetarako udal
aurrekontuetan / 26**

SINADURAK

	AMETS BELTRAN DE GEBARA / 6		ANDERE ARRIOLABENGOA / 19
	ANE ZUZUBISKAR / 9		MARINA ETXEGOIEN / 26
			IDOIA ETXEBERRIA / 40



Gizarte Ekonomiaren
Munduko Foroa,
Debagoiengan

Idoia Torregarai
umoregileari
elkarrizketa



Debagoieneko mintzapraktika kanpainaren prentsaurrekoan batu ziren bultzatzaile, elkarte, eragile eta erakundeetako ordezkariak, Kulturaten ateratako talde argazkian. IMANOL BELOKI

'Egin jauzi, eta izan mintzalagun'

Debagoieneko herri gehienetan daude mintzapraktika egitasmoak, eta horien bultzatzaile diren ordezkariak agerraldia egin dute, ikasturte berrirako izen emate epea zabalik dagoela iragartzeko. 'Egin jauzi' da aurtengo kanpainaren leloa

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Debagoieneko 2018-2019 ikasturteko mintzapraktika kanpainaren prentsaurrekoa egin dute Debagoieneko mintzapraktikako eragileek Arrasaten, Kulturateko areto nagusian. Aurtengo helburuak eta beharrak zehaztuta, zabalik dago egitasmoan izena emateko aukera.

Egin jauzi eta izan mintzalagun lelopean aurkeztu dute aurtengo Debagoieneko mintzapraktika ikasturtea. Arduradunen esanetan, mintzapraktika egitasmoak jauzi bikoitza emateko aukera ematen die ikasitakoa praktikan jarri gura dutenei, galdutakoa berreskuratu nahi dutenei eta euskara ikasten dabiltzanei. Honela adierazi du Nerea Zugastik, Arrasateko Zaharberri egitasmoaren dinamizatzaileak: "Etxetik kalera bi jauzitan salto egiteko aukera

eskaintzen dute mintzapraktika egitasmoek. Etxeko bakardadetik taldeko girora lehendabizi, eta taldeko konplizitateaz kaleko erabilerara gero. Euskaraz lagun artean modu eraginkorrean eta giro hobeezinean arituko zara zure herri edo eskualdean bertan".

Oztopoak gaindituz

"Konfiantza gutxi euren buruarengan, nire euskara ez da perfektua, aurrekoak pazientzia gutxi dauka nirekin, zuzenketa asko egiten dizkirate...", horiek dira euskara ezagutzetik euskara erabiltzera jauzi egiteko orduan oztopo izaten diren arrazoi batzuk, eta, hain zuzen ere, jauzi hori erraztea da mintzapraktika egitasmoaren helburu nagusia. Horrez gain, erabilera sustatzea eta euskara erabiltzeko aukerak eskaintzea

da. Euskara praktikatu jaritasuna eta segurtasuna lortzen baita, euskaraz egiteko ohitura poliki-poliki errotuta. Honela adierazi du Maitane Arizabaletak, Bergarako Berriketan egitasmoaren koordinatzaileak: "Ezagutzatik erabilerara pausoa emateko asko izaten dira berbalagunek izaten dituzten oztopo edo zailtasunak. Berbetan, Barriketan, Zahar Berri, Berriketan eta honelako egitasmoak oso eraginkorrak izaten dira zailtasun hauei aurre egin eta egunerokotasunean urrats berririk egiteko".

GUTXIENEZ ASTEAN BEHIN ORDUBETEZ ELKARTZEA DA MINTZAPRAKTIKETA ESATZEN DENA

Parte hartzeko baldintza

Gutxienez astean behin eta ordubetez elkartzea da mintzapraktiketako taldeetan izena ematen dutenei eskatzen zaiena. Inguru hurbilak eta harreman informalek sekulako garrantzia dute, eta, aldi berean, eragina. "Komunikazio informel hauetan pertsona batek euskara gehiago erabiltzea lortzen baita, segurtasunarekin eta erraztasunarekin", adierazi du Arizabaletak.

Hori horrela, antolatzaileek euskaldun zaharrak edo bidelagunak ere animatu gura izan dituzte ekimenean izena ematera eta ikasten ari direnei laguntzera. Horren harira, gogorarazi dute euskararen normalizazioa eta transmisioa gizarte osoaren eginbeharra dela.

Egitasmoan izena emateko

Gaur egun mintzalagunen sarea 6.000 pertsonak baino gehiagok osatzen duten arren, Debagoieneko eragileek egitasmo hauetan parte hartzera gonbidapena egiten diete ikasle, gazte, irakasle, aitona-amona, guraso, langile, langabe eta euren buruari erronka txiki bat jarri nahi dieten herritarrei. Hala, hizkuntza komunitatea indartu eta egonkortzeko asmoz.

Izena emateko zein egitasmoaren gaineko informazioa lortzeko, herri edo eskualdeko euskara elkarteetan, euskaltegietan, udaletan edo www.mintzalaguna.eus webgunean dago horretarako aukera.

Mintzapraktika egiteko kontaktuak

Partaide izateko edo informazioa jasotzeko:

ARRASATEN

- **AED elkarte** 943 77 12 28 / zaharberri@aedelkarte.eus (Nerea Zugasti).

Bergaran

- **Jardun euskara elkarte** 943 76 36 61- 605 71 24 69 / jardunkultura@topagunea.com (Maitane Arizabaleta).

Aretxabaletan

- **Loramendi elkarte** 943 77 09 70 / auzoko@loramendielkarte.eus (Nerea Zubillaga).

Eskoriatzan

- **Udala** 943 71 46 88 / euskara@eskoriata.eus –Euskara teknikariak– edo 617 07 55 89 / berbalagunak@gmail.com (Iratxe Arrese).

Elgetan

- **Berbetan** 688 648 041 / berbetan@elgeta.eus (Geaxi Ezpeleta).



Pedro Miguel Etxenike DIPCOko presidentea, Elena Lete Bergararako alkatea eta Ricardo Diez Muiño DIPCOko zuzendaria. DIPCO

Bergara 'Leku Historikoa' izango da zientzia arloan

Europako Fisika Elkarteak (European Physical Society, EPS) jakinarazi du Zientziaren 'Leku Historiko' izendatuko duela Bergara herria urriaren 20an; Rüdiger Voss EPSko presidentea Bergaran izango da egun horretan, beste hainbat ordezkariarekin batera

Eneko Azurmendi BERGARA

Bergarak Zientziaren *Leku Historiko* izendapena jasoko du datorren urriaren 20ean Europako Fisika Elkartearen (EPS) eskutik, eta izendapen hori Bergaran bertan egingo dute, ekitaldi instituzional batean. Rüdiger Voss EPSko presidentea emango dio "sari garrantzitsu" hori Bergara herriari, eta ekitaldian izango dira Urkullu lehendakaria, beste zenbait eskal autoritate eta Europako ordezkari batzuk ere.

Atzo, eguaztena, eman zuten horren berri, Donostia International Physics Center ikerketa zentroan egindako prentsurrekoan (DIPCO). Pedro Miguel Etxenike DIPCOko presidentea, Elena Lete Bergararako alkatea eta Ricardo Diez Muiño DIPCOko zuzendaria izan ziren.

Azaldutenez, izendapen hau Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaien lanari esker jasoko du Bergarak, wolframioa isolatu zuten lehenak izan baitziren

herri horretan –zientzia modernoaren eta teknologiaren aurrerapenean erabakigarria izan zen elementu metaliko berri hau–. Etxenikek azaldu zuenez, "sari nabarmen hau fisikaren bilakaeran funtsezkoak izan diren lekuei ematen die EPSk, giza-diaren aurrerapenean modu erabakigarrian lagundu dutenei".

Bi plaka

Garai hartako jarduera zientifikoa Laboratoriumen eta Bergarako Seminarioan burutu zen, eta, haien balio historikoa aitortzeko, EPSren plaka bat jarriko dute bi eraikinetan. Bergarako alkatearen esanetan, "Bergara Euskal Herriko zientziaren sorgunea izan zen eta

**ELHUYAR ANAIAK
WOLFRAMIOA
ISOLATU ZUTEN
LEHENAK IZAN ZIREN
BERGARAN**

Europako ideia berrieekin bat egiteko nahia eta adorea izan zuen. Gerora, ondare hori guztia berreskuratzeko egindako lanaren emaitza da Laboratorium museoa. Han dago gure zientzia bilduma eta ateak zabalik ditu".

Duela bi urte, DIPCOk proposamen bat aurkeztu zion EPSri, eta, proposamen horretan, wolframaren aurkikuntzan Laboratoriumen eta Bergarako Seminarioaren garrantzi zientifiko eta historikoa azaldu zion. DIPCOko presidentea, Pedro Miguel Etxenikek, eskerrak eman zizkion Elena Lete alkateari, "Bergarako Udalak prozesu osoan zehar eskainitako laguntza baliotsuagatik".

Testuinguru berezia

Bergara 750. urteurrena bizi tzen ari den urtean iritsiko da izendapen hau. Hori horrela, urriaren 20ko ospakizun ekitaldia "iraganari aitortza izango da, etorkizunera begira", alkatearen esanetan.



Astelehenean egin zuten egoitzaren inaugurazio ekitaldia. MIREIA BIKUÑA

Debagoieneko Ezker Anitzak egoitza berria ireki du Arrasaten

"Eskualdeko pertsona ezkertiarrendako topagunea" izan gura du egoitzak; Aldai kaleko 9. zenbakian dago

E.A. ARRASATE

Aldai kalekoa Ezker Anitzaren hirugarren egoitza da. Proiektuari jarraipena ematen dion pausoa dela esan zuten ardura-dunek. "Militanteen laguntzarekin egindako apustua da hau. Gune irekia izango da, iritziak emateko, erakusketak egiteko, zinema emanaldiak egiteko, eta abar. Hilero egingo dugu zerbait", azaldu du Juan Luis Merinok, Arrasateko Irabaziko zinegotziak.

Aste honetan batzartuko da Debagoieneko Asanblada, eta hor erabakiko dute egoitza zein egunetan eta ordutan egongo den zabalik –astero pare bat egunetz irekiko dute, arratsaldez–.

Egoitzak "gune aktiboa" izateko helburua duela azaldu dute, ikuspuntu feminista, ekologista, errepublikano eta sozialistatik elkarbanatu, hausnartu, eztabaidatu eta lantzeko gunea. "Jakin-min progresistak dituen

edonorendako lekua izango da, nor bere kezak azaltzeko lekua", adierazi du Merinok.

Ordezkaritza zabala

Alderdiaren Debagoieneko Asanbladako kideak; Gipuzkoako koordinatzaile orokor Arantza Gonzalez; Euskadiko koordinatzaile Isabel Salud; Elkarrekin-Podemoseko legebiltzarkide Iñigo Martinez eta Jon Hernandez; Arrasateko Udaleko ordezkariak eta herritar anonimoak egon ziren irekiera ekitaldian.

Erakusketa

"Gune aktibo" izatearen adibide da azaroaren 25era arte egoitzan bertan ikusgai dagoen erakusketa. Emakume feministen eta iraultzaileen gaineko bilduma da. Ostean, lan-munduko ezbeharreri buruzko erakusketa ipiniko dute, eta gai horren inguruko ekintzak ere egingo dituzte.

'Bideak gurutzatzen' dokumentala, Gasteizen ikusgai

Maiatzean aurkeztu zuten Itziar Bastarririkaren eta Iratxe Esnaolaren *Bideak gurutzatzen* dokumentala, eta, orain arte izan duen arrakasta ikusita, hainbat zinema jaialditara aurkeztu dute. Tartean, Bilboko Zinema Ezezagunaren Nazioarteko Jaialdian aukeratua izan da giza eskubideen kategorian –urriaren 18tik 25era izango da jaialdia–.

Debagoieneko emakume musulmanen inguruko lana da *Bideak gurutzatzen*, eta bailarako hainbat herritan bizi diren emakume musulmanak dira protagonista. Hain zuzen ere, IMME Euskadin Emakume Musulmanen Integrazioarako Elkarteak bultzatuta egin zuten ikus-tzunezkoa.

Gasteizen ikusgai izango da dokumentala urriaren 23an, martitzena, Florida zineman. Hiru aldiz eskainiko dute: 17:30ean, 20:00etan eta 22:30ean.

Boluntario lanak egin ditzaketela aldarrikatuz

Atzegik, adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak, kanpaina berria abiarazi du; 'Gure txanda da' lelopean, adimen desgaitasuna dutenek boluntario lanak egin ditzaketela ikusarazi gura dute kanpaina honekin

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Urtero egiten du kanpaina bat Atzegik, eta aurten boluntario lanei heltzea erabaki dute. "Orain arte, Atzegik eta adimen urritasuna duten pertsonak beti boluntario lanetan ari izan diren laguntza behar izan dute edozein gauza egiteko, boluntario jendeaz inguratuta egon dira. Orain, horri buelta eman nahi diogu, eta eurak jarri nahi ditugu boluntario lanak egiten, erakusteko haiek ere egin ditzaketela boluntario lanak", azaldu du Jokin Antxiak, Atzegi elkartearen Debagoieneko ordezkariak.

Gaineratu du azken urtean boluntario lana asko gehitu dela, eta lan hauek behar dituzten proba edo ekintzen zerrenda nahiko luzea dela. "Hori aprobetxatu gura izan dugu gai honi heltzeko", dio Antxiak.

Orain arte, kirol proba edo ekintza ezberdinetan aritu izan dira boluntario lanak egiten; Behobia-Donostian, Ehun Mi-

lietan eta hainbat herritako San Silvestre lasterketetan, edota elikagai bankuekin. Debagoienean boluntariotzari lotutako esperientzia bakarra izan dute, oraingoz. Izan ere, iaz Oñatiko Kilometroak jaialdian aritu ziren zenbait lan egiten.

Hala, helburu bikoitza dauka aurtengo kanpainak: batetik, gizarteari erakustea adimen urritasuna duten pertsonak boluntario lanak egin ditzaketela, eta horrekin inklusio soziala bermatzea. Eta bestetik, elkarte, eragile eta gainontzeko taldeei deialdia egitea pertsona hauei aukera eman diezaioten lan hauek egiteko. "Gura duguna da bailaran ekintza ezberdinak antolatzen dituzten kirol elkar-

IAZ, HAINBAT LAGUN ARITU ZIREN BOLUNTARIO LANAK EGITEN KILOMETROAK JAIALDIAN, OÑATIN

teekin edo ikastetxeekin harremanetan jartzea, eta boluntarioak behar badituzte, guk baditugula jakinaraztea".

Laguntzeko nahia

Atzegi Gipuzkoa mailako elkarte da, eta kanpainaren aurkezpen ofiziala urriaren 3an egin zuten arren, orain, bailaraz bailara aurkezten ere ari dira.

Josean Idoeta Atzegiko presidentek azaldu du kanpaina hau oso garrantzitsua dela. "Haiek ere haien etorkizuna lantzeko gogoia erakusten dute. Pertsonalki haien eskaerak aurkeztu nahi dituzte eta laguntza jaso beharrean, laguntza eman egin nahi dute. Hori oso aurrerapauso handia dela iruditzen zait, bai haientzako, bai elkartearentzako ere. Denoi gustatzen zaigu laguntzea, eta haiei ere bai, noski. Laguntzeko nahia eskaintzen ari gara haien izenean, eta hori oso garrantzitsua da", azpimarratu du.

EUSKARALDIA, GERTU!

46
EGUN FALTA
DIRA



Ainhoa Lasa. EMUN

"Euskaraz gehiago egin ahal izateko, eroso egotea da gakoa"

AINHOA LASA EMUN ENPRESAKO TEKNIKARIA

Urriaren 17an Irizar jauregian izango da, 19:00etan

E.A. DEBAGOIENA

Non jarri behar dugu arreta euskaraz gehiago egin ahal izateko? hitzaldia egingo du Lasak datarren eguaztenean, Bergaran.

Non jarri behar dugu arreta euskaraz gehiago egin ahal izateko?

Arreta jarri behar diogu testuinguru eta egoera ulertzeari, gure gaitasunak ezagutzeari eta gure baitan gertatzen denari, emozioen kudeaketari. Argi eduki behar dut zer egin behar dudan ni eroso sentitzeko, eta, hartara, errazago egingo dut euskaraz.

Zein da hitzaldiaren helburua?

Euskaraz gehiago bizi nahi duen jendearentzako konponbideak edo egiteko moduak bilatzea, dela euskara ikasten ari delako eta bere mundu linguistikoa aldatu nahi duelako edo baita euskara txikitatik jakin eta bere ohiturek erdarara eraman dutelako, eta orain euskara gehiago egitea nahi duelako. Batzuetan, nahiz eta euskaraz egiteko apustua egin, egoera korapilatsuak sortzen dira, euskaraz egitea zailtzen da. Horietan, nola jokatu erabaki behar dugu.

Beti sortuko dira egoera deserosoak.

Hala da, eta egoera zailtan bi gauza hartu behar ditugu kontuan: egoera bera eta gure emozioak. Desberdina da ikaste prozesuan dagoen pertsona baten egoera edo euskara menperatzen duen batena. Gaitasunak garatu ditzakegu egoerak uler-

tzen, zein aukera daukagun ikusten, bestearen ulermen maila zein den kontuan hartzen. Gogoeta egiteko, gaitasuna garatu dezakegu, erosoago egoteko. Batzuetan, ezingo dugu euskaraz egin, baina ez da ezer gertatzen. **Presionatuta sentitzea ere ez da kontua.**

Eroso sentitzea da gakoa euskaraz gehiago egin ahal izateko. Egoerak, askotan, ezin ditugu aldatu, baina bai egoera horren aurrean daukagun jarrera. Presioak zentzu handirik ez dauka. Aurrean daukadan euskaraz ez badaki, erabiliko dut beste hizkuntza bat berarekin komunikatu ahal izateko, baina lehenengo hartu beharreko erabakia da nola bizi nahi dudana, eta zein erabilera emango diodan dakidan hizkuntza bakoitzari.

Aurrera begira, mugarri izango da Euskaraldia?

Dena irabazteko daukagu, eta, oro har, erraztu egingo zaigu panorama. Ikasiko dugu ulertzeko saiakera egiten eta daukagun aukerak erabiltzen. Gero, gakoa izango da hori denboran iraunkorra izatea.

"DENA IRABAZTEKO DAUKAGU, ETA, ORO HAR, ERRAZTU EGINGO ZAIGU PANORAMA EUSKARALDIAREKIN"



Atzegiko hainbat kide, aurtengo kanpainaren kartelarekin, Aretxabaletan. MIRARI ALTUBE

'Zutik zurekin': mila esker denoi!

ANA PINEDA MORENO

LEIRE MARTINEN ETA FAMILIAREN IZENEAN BERGARA

Urtebete pasatxo da *Zutik zurekin* jaialdi eder eta hunkigarria ospatu zela Bergaran. Dirua batzeko helburua zuen, Leireren osasun egoera hobetzen lagutzeko.

Leirek eta bere familiakook sekula ahaztuko ez dugun eguna.

IGAM Taldea, kolaboratzaileak, bergararrak eta gainerakoak... Horiek guztiek egun biribil bihurtu zuten.

Ezin dugu berbeekin adierazi zer sentitu genuen horrenbeste jende ikusita gure alabari laguntzeko gertu.

Bada, Leire horrenbeste maite duten eta harendako onena nahi duten horiei guztiei esan nahi diet tratamendu farmakologikoa hasi duela AME gaixotasunarendako.

Bartzelonan ari da tratamendua jasotzen. Ekainean hasi genuen, eta, ordutik hona, Bartzelona eta Bergara artean bizi gara, baina berdin zaigu.

Garrantzitsuena da hura osatzeko edo osasun egoera hobetzeko esperantza bat egotea.

Honek guztiak bidaiak eta proba asko egitea dakar, sakrifizioa, baina zer axola dio, haren osasuna jokoan egonda.

Leire pozik eta ilusioarekin dago, eta nekeagatik, minagatik-eta kexatu ere ez da egin. Oso neska borrokalaria da, eta horrek indarrak ematen dizkigu besteoi, aurrera segitzeko indarra.

Ez dakigu noraino iritsiko den, ezta zenbateraino hobetuko den tratamendu horrekin, baina argi daukaguna da, harekin bizi eta borrokatu dugun guztiaren ondoren, gutxi hobetuta ere asko izango dela.

Berriz ere esango dugu: eskerrik asko, eskerrik asko, esker mila denoi! Mundu guztiak jarri zuen aletxo Leirengan islatzen da.

Batez ere, eskerrik asko IGAM Taldeari eta haren inguruan egon zirenei eta, oraindik ere, Leireren ongizateaz arduratzen direnei. Badakigu *eskerrik asko* berbak motz geratzen direla 2017ko ekainaren 17a ezkerro gure ariman eta bihotzean sentitzen dugun guztia eskertzeko.

Zutik zurekin.
Maite zaituztegu.

Legearen erreformak kaltegieen inpunitatea bermatzen du

JUAN RAMON GARAI

FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO KEREILAREN EUSKAL PLATAFORMAREN IZENEAN ARRASATE

Biktimen Legeari eusteko PNVk eta PSEk Legebiltzarrean aurkeztuko duten proposamenak, Madrilgo gobernuarekin hitzartutakoak, berriz ere biktimak kategorizatzen ditu. Estatuaren biktimak badira, hiltzaileak edo torturatzaileak babestua geratzen dira, eta biktima izatearen errekonozimendua lortzeko sekulako frogak eta papeleoa egiten jarraitu beharko da.

Eta, aldiz, terrorismoaren –hitz hau bera ere kategorizatuta dute, Estatuaren biolentzia ez baita terrorismoa...– biktima bazara, kaltegiele berehala kartzelatu izango da –edo eraila, edo torturatuta...–, eta biktima Lege berezi batekin babestua izango da –*Ley de víctimas del terrorismo*, 2011–.

Egia da Eusko Legebiltzarrak egin duen legearekin Iñigo Iturratek (PNV) dioena: "Horrek ziurtasun juridikoa ematen die biktimei". Eta txalotzen dugu alde hau lortzea, gutxienez, baina horri

beste gauza bat erantsi behar zaio: kaltegieleari ere nolabaiteko segurtasuna ematen diola eragin dituen krimen, tortura edo giza eskubideen aurkako urraketen aurrean. Estatuaren aparatuak bere morroi guztiak babesten ditu. Aparatu horren aurka doanak ez du inongo babesik.

Hau al da Giza Eskubideen aldeko Deklarazio, Hitzarmen, Kontseilu, Zuzendaritza, Institutu eta enparauen helburua? Zergatik ezin dira berdin aztertuak eta epaituak izan giza eskubideen aurkako edozein motatako biolentziak? Posiblea da hildakoak hiltzailerik gabe? Torturatuak torturazailerik gabe?

Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin lortu duen hitzarmenak, Jonan Fernandezentzat, nabarmendu du legearen helburua zera zela: "Biktimen erreparazioa eta aitortza bermatzea, ez beste ezer. Ez biktimarioak agerian jartzea edo epaitzea". Baina legea utzi duten moduan onartzen badugu, berriz ere inpunitatearen ateak irekitzen dituela deritzogu, eta segurtasun juridikorik ezari hegalak eman, biktimen salaketei ateak itxiaz. Eta, hain zuzen, inpunitatez gainezkatuak gaude duela laurogei urte!

Indarkeriaren ikerketak bazterten baditugu edozein motatako Lege batean, ez diogu biktimari jasandakoa salatzeko babez juridikorik ematen. Estatuko Biktimen lege honetan aitortza eta erreparazioa emango zaio, nahiz eta ez beste biktimei bezalakoa, eta horrekin Estatuak eta bere administrazioak indarkeriarekin bere horretan jarraitzeko –edo handitzeko...– aukera izango du hurrengoan ere, jurisdikzio internazionalak biktima guztientzat,

denontzat, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren eskubideak bermatzeko agintzen duenari muzin eginaz, oraintsu Fabian Salviolik, Nazio Batuen Errelatore bereziak, Madril garden utzi duen bezala.

Urraketa berei tratu eta begirune bera!

Modernitatea ala osasuna?

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA BERGARA

Guraso elkarte askotan sortzen den eztabaida: alde batetik, kutsadura elektromagnetikoa gutxitzeko asmatan, besteak beste, wifia eskoletatik kentzearen aldekoak; eta, bestetik, wifia alderantzik, kable barik ibiltzea erosoagoa eta modernoagoa baita.

"Ez da frogatu gaixotasunik sortzen duenik", esaten dute batzuek, baina alderantziz pentsatu beharko genuke: zeharo frogatu artean wifiak gure seme-alaben osasunean ondorioz ez duela, badaezpada, eskoletan kableak erabil ditzatela.

Ondorengo lerroetan, kontuan hartzeko informazioa:

1. International Agency For Research On Cancer agentziak kutsadura elektromagnetikoa gizakiontzako uestezko minbizi-sortzaile gisa sailkatu du –2B taldea–: mugikorak, wifia...

2. 2011ko maiatzaren 27an, Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarraren ebazpena aipatzen zuten. Ebazpen hartan, haurren babes handiagoa lortze aldera, kable bidezko Interneteko konexioei lehentasuna ematera zuzendutako gomendioa gaineratu zen.

3. Arartekoak, 2013ko apirilaren 4ko ebazpenean,

kablea erabiltzeko gomendioa egin zuen.

Zenbat gaixo-hildako egon behar dira gomendioei kasu egiten hasteko?

Frantzian, aurtengo ikasturtean, mugikorrek debekatu dizkiete 15 urtetik beherako ikasleei; pausotxo bat gazteen osasunaren alde.

Espainiako Erreinuanoiz uste duzu hartuko dela antzerako neurriren bat?

Badaezpada, zuek hartu zuen neurriak eta zuen etxeak babestu itzazue, kutsadura elektromagnetikoa sortzen duten aparatu guztiak itzalita.

Ez da 'La flauta mágica' operaren doinurik izango urrian Amaia antzokian

MANU GALLARDO

OZENKI ELKARTEA ARRASATE

Sarrera eskaera eta kontsulta asko jasotzen ari gara azken egunetan elkartearen; hori dela eta, jakinarazi beharra daukagu, gure gogoz kontra, aurtengo urrian ez dela opera-emanaldirik izango Arrasateko Amaia antzokian, arrazoi hauengatik:

Ozenki elkarteak opera-zaleei jakinarazi gura die aurtengo urrian ez dela Mozarten *La flauta mágica*-ren emanaldirik izango, Arrasateko Udalaren Kultura Departamentuaren erabakiz. Sail horren esanetan, herrian egiten diren zarzuelen emanaldiak baino bi hilabete lehenago izaera lirrikoko musika saioak egiteak kalte handia egingo dio zarzuleterako joango den jende kopuruari.

Elkartea guztiz atsekabetuta dago Udalak hartu duen erabaki horrekin; izan ere, onartezina da, elkarteek lotutako ekimen eta sorkuntza kulturalaren esparruaren barruan.



ZABALIK

AMETS BELTRAN DE GEBARA

Barneko labirintoez

Ederki definitzen du, nire ustetan, Anjel Lertxundik espiritualtasuna.

Hauxe dio, zehazki: "Espiritualtasuna ez da sinestunen ondare edo patrimonioa. Gure baitako zera hori –deitu arima, deitu espiritua, deitu harra, deitu gogoa, deitu kontzientzia– denok daukagu. Bihotza edo birrikak bezain erreal. Ikusezin, baina ez sentiezin".

XXI. mendean bizitza egokitu zaigunoi, korrika bizi gara, erritmo bizian; biziegian, beharbada. Ihesian goaz; sarritan, nora goazen ere ez dakigula.

Soseguak, isiltasunak, patxadak ez du leku handirik hartzen gurean.

Estimulu gehiegik eta erakuslehoi distiratsuegiek jantzen dituzte gure herriko kaleak. Baldintzarik egokienak ez dirudite barne-begirada, barne-arnasa edo spiritualitatea lantzeko.

SOSEGUAK, ISILTASUNAK, PATXADAK EZ DU LEKU HANDIRIK HARTZEN GUREAN

Bestetik, iruditzen zait erlijioaren edota Elizaren eskutik etorri diren kontu negatibo asko eliminatu eta baztertu nahi izate horretan, luzea baita historian zehar Elizak gaizki egindakoen

zerrenda, espiritualtasunari ere muzin egingo diogula. Bide batez, esan, Eliza eta fedea bereizi beharko genituzkeela. Baina bueno, hori beste eztabaidagai bat da.

Nonbait irakurri dut ongizateak eta ondo sentitzeak gurean hartu duen demaseko garrantziak –nahiz, hein batean, ederra den guk horrela bizi nahi izatea– ez ote duen produktu bilakatuko espiritualtasuna.

Eta honek Anariren kantu batera eraman nau: *Tristuraren industriak zuretzat sortuak dituen ansiolitiko eta kantuak, makrobiotika eta liburuak, konstelazio eta terapiak, sare sozialak eta farmaziak, zure melankoli burgesa bezatzen dutenak...* Zerrenda amaigabe horri, akaso, laster espiritualtasunarena ere gehituko diote... Agian, ondo sentitzean soilik zentratu beharrean, tristurei, minei, haserreari, frustrazioei, eta abarri bere lekua emateak ere lagunduko liguke barne bizitza osasuntsuagoa garatzen.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Nola hil inbidia, ahaleginean zauritu gabe

IMANOL EPELDE PAGOLA

[HTTPS://LABUR.EUS/V9BTW](https://LABUR.EUS/V9BTW)

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Sentitzen dut inbidia Athleticetik irabazten duenean, edota EAJK beti eta dena hain erraz irabazten duenean.

Sentitzen dut inbidia, sentitzen dut bekaitza.

Sentitzen naiz nirekoi, odola lodi maleziaz.

Higuigarri.

Higuintzaile.

Itsu.

Mutu.

Eta gor.

Inbidiaren inbidia ere badut.

Ez duelako inbidiak adinako bizi indarrak beste inork.

Gutxiago bizi garen eta dugun kontsumoaren gizarte honetan: anplifikatzen baitu ideia bat, zoriontsu izateko ospea, dirua edo ni bezain guapoa izan behar duzula.

Baina benetan diotsuet.

Edertasunak ez du zorionik ematen.

Beti dagoelako ederragoa, askoz ederragoa den Iparragirre bat.

Ai... Azkenerako, inbidiaren gorroto gaiztoz okerren bat egiten bukatuko dut.

Inbidiak ni akabatu baino lehen, nik akabatuko dut bera. Horretan ari naiz.

Probatu dut goizetan dutxa hotz-hotza hartzen, probatu

dut frankotiratzaileak jartzen ispiluan, mugikorretan antibirusak jartzen: ez dezadan instalatu Fotocasa bezalako aplikaziorik.

Piztu ditut eta kokatu zazpi kandela beltz etxeko salan F bat eginez eta belaunikaturik baga-biga-higa errezatu dut, begizulo erraldoi batek eraman nauen arte.

Baina ez du nire inbidia eraman.

Magia zuria ere probatzekotan naiz.

Ez banu pentsatuko agian, azkenean, ni izango naizela nire inbidia hil behararen beharraz, ni izango naizela zauritua aterako den bakarra. Inbidiak ere hiltzen bai baitaki.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Lasterketa solidarioan parte hartzera dei egiten dugu"

URRI URIZAR MUNDUKIDEN KIDEA

Eneko Azkarate ARRASATE

Mundukidek "lagunartean eta natura-gune paregabean" goiza pasatzera gonbidatu ditu debagoiendarrak, urriaren 21ean Urkulun jokatu den den "festa solidarioan" parte hartuta.

Zein da Kooperatiben Arteko Mundukide IV. Lasterketa Solidarioaren helburua?

Mozambique, Brasil eta Kolonbiako milaka pertsonaren gaitasun sozioekonomikoa sendotzen jarraitu ahal izateko babesa lortu nahi dugu festa solidario honekin. Hormak jasotzeko eta itsasoak zabaltzeko hautua egiten dutenen aurrean, Mundukiden, tokiko gaitasunak bultzatzeko apustua egin dugu, garapen sozioekonomiko sostengarriarekin konprometitutako pertsona autonomo eta buruaskiak sustatzeko.

Nork har dezake parte?

Kooperatiba guztiei eta kooperatibez osatutako



Urri Urizar, Mundukidaren egoitzan, Arrasaten. ENEKO AZKARATE

organoak dituzten erakundeetako pertsona irekia dago lasterketa. Hiruko taldeak osatu behar dira eta hiru kategoria daude: emakumezkoena, gizonzkoena eta mistoa.

Ibilbidea zelakoa da?

Zazpi kilometro luze izango da; hau da, Urkuluko urtegiari buelta ematea da erronka, eta, bestalde, gozamina; izan ere, natura-gune paregabea da.

Zein bilakaera izan du lasterketak?

Lehen edizioa kooperatiben arteko lasterketa izan zen. Iaztik aurrera, berriz, oinez egin nahi duenari eta kooperatibista ez denari ere, Ibilaldi Nordiko eta Ibilaldi Librean parte hartzeko aukera eskaintzen zaio.

Zein ekarpen egiten du parte hartzen duenak?

Izen-ematea 15 euro da eta ikasleek, berriz, 5 euro besterik ez dute ordaindu behar. Lasterketari esker jasotzen den diru guztia Mundukideko programak indartzeko erabiliko da. Mozambique iparraldeko nekazariak, Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimenduko langileak eta Kolonbiako Pasto hiriburuko zabor birziklatzaileak dira onuradunak, besteak beste. Izen-ematea non egin behar da eta zer azpiegitura eskaintzen ditu lasterketak?

Mundukideko webgunean eta lasterketa egunean Otalorako aparkalekuan 09:00etatik 10:00etara bitartean. Parte-hartzaile guztiek istripu-asegurua, Aretxabaletako kiroldegian durtatzeko aukera, Athlon kooperatibak babestutako kamiseta eta opari zozketaz gozatzeko aukera izango dute.

HAU BE BADOGU!

'Ttap' aldizkariaren Nafarroako edizioa



Atzo kaleratu zuen *Ttap* aldizkariak Nafarroako edizio berezia:

@desplazatua: "Ttap aldizkaria #Nafarroara ere iritsi da. Biba zuek!"

@ttapaldizkaria: "Kasu! Aste honetan, #Ttap-ek edizio bakarra izanen du: Nafarroan ondutako 0 zenbakia, dagoeneko eskuragarri! Elkarriketan Gorka Urbizu" Egin *ttap*!"

Mendizorrotza, Euskal Selektzioaren zain



Bihar, Gasteizen jokatu du lagunartekoa Euskal Selektzioak, Venezuelaren aurka:

@enekopradera: "Euskal Selektzioa ikusteko sarrerak erosita. Lehen aldiz joango gara Mendizorrotzara!"

@stickerstop: "Herri bat, selektzio bat! Gora Euskal Selektzioa!"

@mikelbalza: "Nire selektzioa. Gure selektzioa. Danon selektzioa".

Ernesto Guevara 'Che' oroitzen

Sare sozialetan *trending topic* izan da Guevara *Che*. Izan ere, martitzenean 51 urte bete ziren Bolivian hil zutela.

@koldotellitu: "#CheGuevara hil zutenetik 51 urte. Bere irudi asko daude, baina niretzat hauek dira esanguratsuenak. Yuri Gagarinekin, Titorekin, Sofiako sozialismoaren museoan eta Emir Kusturicak sorturiko Dvengrad egurrezko herrian".

ITURRI ONETIK

Pol-Polen liburua, sarean

Miguel Angel

Elkoroberezibarrek idatzi eta Pol-Polek 75. urteurrenean argitaratu zuen liburua, *Pol-Pol M.T. Bergarako historia sozial bat. 1942-2017*, berriro argitaratuko dute, zuzenketak eginda eta eduki berriekin. Digitalean argitaratuko dute. Egileak berak sortutako webgunean izango da ikusgai eta deskargatzeko moduan, egilearen beste liburu batzuekin batera eta On Serafin Esnaola apaizak 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Bergaran grabatutako 32 pelikulekin batera. Azaroan aurkeztuko dute proiektua.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-10-08

Goiena telebista udazkeneko denboraldian

Aurreko astean luze eta zabal azaldu zuen GOIENA aldizkariak Goiena telebistaren denboraldi berriko eskaintza. Ohikoa da telebista kateetan ikasturtea berritasunekin hasia eta horrela ekin dio aurten ere Goienak. 2004an ere halaxe izan zen. *Ilunpean, Debarri, Behazulo...* ziren orduko saio izarren izenak; GOITB zen orduan Debagoieneko telebista eta Deiane Arrieta zen *Berriak* albistegietako aurkezle.



Isunak lau autoeskolari prezioak adosteagatik

2013tik 2017ra bitartean ezarritako prezioak aztertu ostean hartu du erabakia Lehiaren Euskal Agintaritzak. Lau urte haietan Lenizek, Peñakobak, Telleriak eta Arrasatek %1eko aldea izan dutela ikusita, frogatutzat jo dute legea urratu izana

âXabi Gorostidi ARRASATE

2017ko apirilean, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) zehapen espedientea ireki zuen Gipuzkoako zortzi autoeskolaren aurka –lau Arrasatekoak eta beste lau Errenteriakoak–, ustez euren artean prezioak adostearren.

Partikular batek salaketa jarri zuen, Errenteriako enpresek prezioak adosten zituztelakoan, eta, horren ondoren, ofizioz hasi zuen LEAk ikerketa prozesua. Enpresen arteko lehia ahalbidetzea helburu duen erakundeak aurre-ikerketa bat egin zuen eta zantzu nahikoak ikusi zituen zortzi autoeskolak B gidabaimena lortzeko klaseen prezioak adostu izana ondorioztatzeko. Baina urte eta erdi pasa ostean, Errenteriakoak absolbitu egin ditu eta Arrasatekoak, aldiz, zigortu. Errenteriako kasuan, LEAk ezin izan du frogatutzat jo autoeskolak prezio berdintsuak erabili izan dituztenik azken lau urteetan zehar.

Estatuko garestienak

Arrasateko kasua aztertzeke arrazoietako bat bertako tarifa garestiak izan dira. OCU Espainiako Kontsumitzaileen Elkartearen arabera, 2015ean, Arrasatek izan zituen Espainiako Estatuko prezio garestienak. B



Autoeskolako autoen irudi bat. GOIENA

gidabaimena lortzeko batez besteko prezioa 1.700 euro zen; Donostian baino %8 garestiagoa eta Irunen baino %84 garestiagoa, hain zuzen ere.

Autoeskolaren prezioak ezartzeko orduan faktore hauek izan behar dira kontuan: pertsonal gastuak, erregaiaren prezioa, ibilgailu flotaren kostua eta lokalak alokairuak. Zona bakoitzean faktoreak aldagarriak dira, baina, LEAren ustez, Arrasaten ez ziren baldintza horiek betetzen Espainiako Estatuko tarifa garestienak ezarri ahal izateko.

%1eko aldea

LEAren arabera, enpresek prezio antzerakoak dituztela ondorioztatzeko %4tik beherako aldeak izan behar dituzte euren artean, baina aipatutako denbora epe horretan Arrasateko lau autoeskolaren arteko aldea %1 inguruan kokatu da.

LEAk onartu du ez daukatela frogarik esateko lau autoeskolak akordio zehatz bat zutela, baina prezioen azterketa hori nahikotzat jo dute lau enpresa horiek lehiaren legea urratu dutela ondorioztatzeko.

Prezioak herrika

OCUren 2015eko datuak, udalerrietako eta hirietako autoeskolaren batez besteko prezioei dagokienez.

- **Arrasate** 1.700 euro.
- **Beasain** 1.593 euro.
- **Donostia** 1.575 euro.
- **Errenteria** 1.454 euro.
- **Bilbo** 949 euro.
- **Iruñea** 927 euro.
- **Irun** 921 euro

Oharra: Azterketa teorikoa eta praktikoa lehen saiakeran gaintuta eta 20 klase praktikorekin kalkulaturako prezioak dira.

Arrasateko autoeskolak

Batez besteko prezioak 2013 eta 2017 artean

- **Leniz** 1.709 euro.
- **Peñakoba** 1.704 euro.
- **Telleria** 1.686 euro.
- **Arrasate** 1.702 euro.

Jasotako isunak

- **Leniz** 3.924 euro.
- **Peñakoba** 3.135 euro.
- **Telleria** 1.097 euro.
- **Arrasate** 792 euro.

Oharra: 2017ko datuak ez ditu aintzat hartu LEAk, aztertzaileren greba izan zelako urte hartan.

Isunak

LEAk lege hauste larritzat jo du gertatutakoa. Kasu horietako isunak urteko fakturazioaren %10era hel daitezke, baina, Arrasateko kasuan, fakturazioaren %3,10 eta %3,75 artekoak izan dira.

Autoeskolaren iritzia

Autoeskolatiko kideak ez daude batere ados LEAk hartu duen erabakiarekin. Gehienek diote gainontzeko prezio antzerakoak jarri dituztela merkatuan lehiatu ahal izateko. "Prezio antzerakoak jarri izanak ez du ezertarako frogatzen gure arteko pakturik izan dugunik", adierazi dute.

Arrasatek OCUn zerrendako prezio garestienak izateari buruz zera diote: "Zerrenda horretan *low cost* autoeskola asko daude, eta ezin daitezke alderatu era horretako enpreke eta guk eskaintzen ditugun zerbitzuak, ezta ditugun kostuak ere. Bizkaian, adibidez, *low cost* autoeskolatiko ikasleen %90ek ez dute azterketa praktikoa gaintutu".

Arrasateko merkatua, aldatuta

Azken urteetan lau autoeskola horiek jardun dute Arrasaten, baina 2017ko abenduan bosgarren bat agertu zen: Iruñeko El Velocimetro *low cost* autoeskola, Bastida Akademiarekin elkarlanean. Batzaz beste 962 eurotan eskaintzen zuten B gidabaimena ateratzeko –teoria atala online eginda–, eta horrek dezente aldatu du herriko merkatuaren egoera. Telleria autoeskolak aitortu du horren eraginez 400 euro merkatu behar izan dutela euren prezioa. Peñakoba, aldiz, teorikoa online eskaintzen hasi zen, "aukera merkeagoak" eskaini ahal izateko.

Herritarrentzat ikusgai

Euskaraldia badator, eta hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen ekimena gero eta gertuago dago. Hala, herritarrek hori ahaztu ez dezaten, *Ahobizi-k* eta *Belarriprestek* Zeziaga etxeko erakusleihoan hartuko dute ostatu abenduaren 3ra bitartean. Horren harira, izena eman ez dutenek AEDren eta Ekin Emakumeen egoitzetan eta BAZen egin dezakete.



GEIKE ARRASATE

OHARRAK

52koak, Santurtzira

Urriaren 20an. 80 euro: ES17 3035 0001 50 0011167648.

58koen kintada

Azaroaren 10ean Gasteizera doaz. Joateko, 70 euro 3035 0001 59 0011144438 kontuan.

59koen bazkaria

Urriaren 27an. 60 euro sartu 3035 0001 54 0011167811 kontuan.

OHARRAK

Errata kintada batean

58koen informazioa kaleratu genuen, baina 68koena zen.

34koen kintada

Urriaren 20an Hilarionen bazkaria (943 79 48 45).

76koen kintada

Azaroaren 10ean, Arteagan bazkaria. 55 euroko diru sarrera ES49 3035 0001 53 0011167604 kontu zenbakian.

"Agintaldiz agintaldi, hirigintzak kale egin du"

RAMON UGALDE ERRETIRATU BERRI DEN IRAKASLEA

2019ko maiatzeko udal hauteskunderi begira, alderdi politikoekin loturarik izango ez duen herritarren zerrenda bat osatzeko lanean dihardu azken hilabeteetan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Alkatetzarako zerrenda bat lortzeko 21 hautagai eta 500 sinadura behar dira, eta, oraindik lortu ez dituzten arren, abendurako zerrenda osatuta izatea lortu nahi dute.

Noiztik ari zarete zerrenda osatzeko lanetan? Eta zer dela-eta erabaki zenuten pauso hori ematea?

Behar hori aspalditik ikusten genuen, baina zerrenda osatzeko ideia duela urtebete inguru hasi ginen garatzen. Historikoki, gobernuan egon dena egonda ere, Arrasateko Udalak egin dituen esku hartze askorekin ez gaude ados; Kataideko industrialdea egitea erabaki zenetik gaur egunera arte. Kataideko esku hartzea, adibidez, merkeago, jasangarriago eta txukunago egin zitekeen, eta hori egin zutenek jasangarritasunaren aldeko aldarriak egin izan dituzte, ostein.

Beraz, uler daiteke zuen hautagaitzak ihes egiten duela ideologia parametroetatik?

Ez dugu ideologia kontuetan sartu nahi, eta Arrasateko proiektuei buruz jardun nahi dugu, ezker edo eskuin joko horretan sartu gabe. Kasu honetan, politizazioa eta ideologizazioa izan da tresna bat Arrasateko Udala bera erakunde estataltik bazala indartzeko. Adibidez, presoak Euskal Herrira ekartzearen alde egon naiteke, baina presoan alde botoa eskatzen didatenen udal politika ez bazait gustatzen, zergatik eman behar diot botoa?

Ideologiari ez, baina zeri ematen diozu zuek garrantzia?

Bada, hirigintzari, adibidez. Funtsean, herri mailako politika hirigintza arloan zentratzen da, eta, zentzu horretan, ez gaude batere gustura urte hauetan guztietan Arrasateko ezker abertzaleak edo jeltzaleek hartu dituzten erabakiekin. Jendeak uste du ezker abertzaleak gaizki egindakoak EAJk zuzenduko



Ramon Ugalde, Santa Barbara parkean. XABI GOROSTIDI

"AZKEN 40 URTEETAN UDALAK KALTETU DITUEN HERRITARREN ESPERIENTZIAK BATU NAHI DITUGU"

dituela, eta alderantziz. Baina, gobernu aldaketak egonda ere, agintaldiz agintaldi herri honetako hirigintzak kale egin duela ikusten dugu.

Jauntxokeria edo kazikismo handia dagoela ere badiozu...

Gure ustez, Arrasateko Udalean goi funtzionarioen diktadura bat dago, eta herriko politikariek ez dute haien hitza edo boterea zalantzan ere jartzen. Mussolinik zioena betetzen da: *Dena estatuarentzat, ezer ez estatuatik kanpo, eta estatuak beti dauka arrazoia*. Kasu honetan, berdina da, baina *estatu* hitzaren ordez, *funtzionario* hitza jarrita.

Hirigintza alorrean, zein esku hartze egingo zenituzkete?

Auzoetan, San Andresen, adibidez, Gudarien plazan lurpeko aparkaleku bat proposatuko genuke. Hala, egun autoak dauden plaza herritarren eskura

jarriko genuke, zuhaitzekin, eta haurrentzako parke batekin. Horrez gain, auzo berean, lehen errebueltako zegoen tokian, udarako bainu gune bat ere proposatuko genuke, erreka baliatuz. **Azoka plazarako ere badituzue proposamenak, ezta?**

Gaur egun dagoen tokian lurpeko aparkaleku bat egitea nahiko genuke, eta azoka bera, Erlojuaren Eraikineko arkupean kokatuko genuke. Jende asko igarotzen da bertatik ospitalera edo ambulatiora joateko, eta horrek azoka indartu lezake.

Oinezkoentzako guneak irabaztearen aldekoak zarete?

Bai, baina neurritz eta ondo pentsatuz egin beharreko zerbait da. Auto erabiltzaileak ez dira kriminalak, eta ezin daiteke bat-batean dena oinezkoentzako jarri. Baina, gure ustez, adibidez, Monterrondik Amaia antzokiraino doan tarte hori oinezkoentzako izan beharko litzateke, bizitza soziala egiteko gune ederra baita.

Tarte horretan gaztetxea dago, eta horrentzako ere baduzu proposamenik, ezta?

Gure ustez, zentzugabekeria da gaztetxea dagoen tokian egotea,

leku heze eta gorde horretan. Arratoiak daude bertan, eta itzelezko hezetasun arazoak dituzte. Hori dela eta, Erlojuaren Erakinera lekualdatzearen aldekoak gara. Erdigunean egoten jarraituko luke, eta leku egokiagoa dela uste dugu. Bertan hileta zibilak egiteko gune bat jar daitekeela uste dugu.

Eta zer egingo zenukete eraikin horretan euren egoitza aurreikusita duten kultur talde guztiekin?

Lokalen erabilera eraginkorra izateko aukerak aztertu beharko lirateke. Altuera handia dute bertako solairuek, eta, agian, solairu bat gehiago ateratzea izan daiteke konponbide bat.

Gelmako eraikinarekin egin denarekin ez zaudete ados?

Herrian daukagun eraikin ederrerenetakoa da, eta etxer erabat inguratuta dago; itota. Zentzu horretan, ez dugu ulertzen, eraikin gisa, nola baloratu daitekeen hainbeste Aprendizes, eta ez, ordea, Gelma.

Gaia aldatuz, Udalarekin arazoak izan dituzten herritarren zerrenda bat egin nahi duzue, ezta?

Badakigu, urte hauetan guztietan, herritar askok izan dituztela arazoak Udalarekin, edo bertako sail batzuekin. Batez ere, baimen kontuekin lotuta. Azken 40 urteetan kaltetuak sentitu diren horien esperientziak batu nahiko genituzke, txosten bat egiteko. Berriki, frankismoaren biktima izan diren horiekin egin den antzerako zerbait. Ez gero prozesu judizial bat martxan jartzeko, ez baitugu justizia espainiarrarengan sinesten, baina, behintzat, jaso eta erregistratuta geratu dadila, osoko bilkuran horri buruz hausnartzeko. Udalaren pribilegiatuen zerrenda bat ere egin genezake, baina hobe da ez badugu egiten.

Zerga alorrean ere badauzkazue proposamenak...

Berriki ikusi dugu nola Mondragon Unibertsitateari zergak barkatu izan zaizkion. Eta herritarro, ez? Zerga barkatzearen truke, zergatik ez diogu Mondragon Taldeari Laboral Kutxaren egoitza historikoa trukean eskatzen? Udal zerbitzuak eskaintzeko, adibidez. Horrez gain, Arrasateko Udalak Etxebizitzaren Ikuskaritza Teknikoko dokumentazioagatik 160 euro inguru kobratzen ditu; Bergarakoak eta Oñatikoak, ezer ez. Zerga hori kendu, eta ordaindu dutenei dirua itzuliko genieke.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Bigarren ilaran

Larunbata. *Oreina* filma ikustera joan zinemara, eta amaitzean ingurukoak (arrasatearrak ez tartean) txaloka hasi nahian. Eta zu lotsatuta, besteei "Arrasaten inork ez du txalo jotzen" esatear ia.

Asteartea. "Hartu arnasa, bota arnasa, hartu arnasa sakonago. Luzatu ezkerreko hanka, behatzak zuzen jarri, ez, horrela ez, horrela bai". Eta besteak *ooooommm*, eta zu isilik, auzo lotsak jota baino zure burua tartean ikustez lotsatuago. (Bai, yoga egiten hasi naiz; ez begiratu horrela, behintzat ez naiz mendian korrika hasi)

Osteguna. Broken Brothers Brass Band gaztetxean, gogoratzeko moduko kontzertua. Iruñeko haize epela udazken hasiera gauetan. "Beste bat" eta musikariak oholtzapean, eta ingurukoak dantzan. Eta zu, bigarren ilaran, lotsatuta. Ba ote den ezer bertakoagoa bigarren ilaran jarri eta lotsatzea baino, ba ote den ezer arrasatearragoa.

Eta ba ote den ezer arrasatearragoa, bigarren ilaran geldu egon, eta gero ezer egiten ez delako kezaketa baino.

Eta "arrasatearra" idatzi dudak lekuan, zuek jarri nahi duzuen. Eroak beti besteak badira, egiten ari direnak ere beti dira besteak.

Eneko Barberena, 'Harira' saioko hurrengo gonbidatua

Urriaren 16an, martitzena, 21:30etik aurrera, *Harira* telebista saioan izango da Eneko Barberena, Arrasateko EH Bilduko zinegotzia. Oposizioko alderdi nagusiko ordezkariak Eneko Azkarate kazetariaren galderak erantzungo ditu. Hurrengoak Oscar Garcia, Igor Urizar eta Maria Ubarretxena izango dira.



San Juan Bataiatzailearen parrokia azpian indusketak egiten. IMANOL SORIANO

Duela 3.000-3.500 urte jendea bizi zen Arrasaten

Hamahirugarren mendeko nekropolia eta Brontze Aroko zeramika batzuk aurkitu dituzte eta horrek baieztatu dezake duela 3.000-3.500 urte Arrasaten jendea bizi zela. Dozena bat gorpu dituen Erdi Aroko hezurtegi bat ere aurkitu dute

Maialen Regueiro ARRASATE

Arrasateko lehengo biztanleriaren inguruko informazioa izateko asmoz, iaztik hona San Juan Bataiatzailearen parrokiako kanpandorre azpian indusketak egiten ari dira Aranzadi Zientzia Elkarteko hainbat kide. Indusketa lanak egitea ikusgarria da, baina horrek ondorengo lan bat egin behar dela esan nahi du, laborategian egin beharreko fasea, hain zuzen ere. Aurkitutako materiala garbitu, sailkatu eta aztertze hiru zuzenak hilabete beharko dituzte, eta, ondoren, behin betiko idatzi bat egingo dute azterketak emandako informazioa adierazita. Bitartean, herriko ondarea loratzeko lanean jarraituko dute.

Aurkitutako materiala

Hamahirugarren mendeko nekropolia eta Brontze Aroko zeramika batzuk aurkitu dituzte eta horrek adieraz dezake duela 3.000-3.500 urte Arrasaten

jendea bizi zela. Hala, bigarren kanpaina honen helburu nagusia bete egin da, Brontze Aroko aztarna horiek bertan egotea kasualitatea den edo bizitoki batekin zerikusia duten argitu delako. Horren ondorioz, egin dituzten aurkikuntzek garai bateko susmoak baieztatu dituzte eta tartean sorpresa batzuk ere izan dira; dozena bat gorpuen hezurdurak dituen Erdi Aroko hezurtegi bat, besteak beste. Azken kasu horretan, gorpuak osorik aurkitu dituzte, nahiz eta batzuk puskatuta dauden.

Lehenengo kanpaina

Bigarren kanpaina honetan, aurretik egindako lehenengo

EZ DA HIRUGARREN KANPAINARIK EGINGO, AZTERTZEKO DAGOEN INFORMAZIOA NAHIKOA DELAKO

kanpainatik ateratako informazioa konfirmatu egin ahal izan dute, Aranzadi Zientzia Elkarteko kide Alfredo Morazak adierazi duenaren arabera. Izan ere, aurreko kanpaina egindako indusketa lanetan, hobiaren zati txiki bat bakarrik ikustea lortu zuten.

Palentziako gotzaina

Herritar batek Palentziako gotzaina San Juan Bataiatzailearen parrokia azpian lurperatuta dagoela susmatu zuen, duela hainbat urte parrokia zaharberri zutenean langile bat sarkofago batekin ikusi zuelako. Bigarren kanpaina honetan, baina, ez dute horren aztarnarik aurkitu, AZEko kideek adierazi dutenez; beraz, oraingoz, ez dago gotzainaren arrastorik.

Eliza zaharra

Alfredo Morazak adierazi duenez, ez dute eliza zaharra izan zeneko aztarnarik aurkitu; eliza barruan egongo direla diote.



Musika Etxean egindako ekitaldia. ANABEL DOMINGUEZ

Etorkizuneko Musika Eskola Juan Arzamendi deituko da

Etorkizuneko Musika Etxea martxan dagoela irudikatzeko helburuarekin, ekitaldi sinbolikoa egin dute

Maialen Regueiro ARRASATE

Juan Arzamendi Musika Etxea birgaitze prozesuan dago, eta, laster errealitate bihurtuko dela aprobetxatuz, ekitaldi sinbolikoa egin dute. Juan Arzamendiren familiakoek, Musika Eskolako erabiltzaileek, Arrasate Zientzia Elkartekoek eta herriko politikariek hartu dute parte ekitaldian; bakoitzak bere arloko dokumentu bana kutxa batean sartu du, eta ondoren guztien artean lurperatu dituzte.

Arzamendiren familiakoek Arrasateko Musika Bandaren 1960ko bi argazki eta *San Juan*

ereserkiaren moldaketa bat sartu dituzte kutxan. Juan Antonio Barriocanalek, *Oihuska* abestiaren partitura eta abesbatzaren argazki bat. Arrasate Musikalen izenean, Marta Izagirrek euren ereserkiaren partitura bat sartu du; eta, azkenik, Arrasateko Udalaren izenean, udalbatzako bi akta sartu ditu Maria Ubarretxenak.

Ekitaldian, Arzamendiren familiako hiru belaunaldik hartu dute parte eta eskertuta eta hunkituta daudela adierazi dute, etorkizuneko Musika Eskolak aitonaren izena izango duelako.

OHARRAK

Euskaraldia umoretik jorrazten duen antzerkia

Bihar izango da antzezlan, Kulturaten, 19:00etan hasita.

Ttak! izenburupean, Beatriz Egizabal aktore eta clown-ak Euskaraldira gerturatuko ditu ikusleak, umorea ardatz duen bakarriketan.

Maria Pazosen hitzaldia

Urriaren 17an, hitzaldia egingo du Maria Pazosek, Kulturateko areto nagusian, eta *Propuestas feministas para un sistema de pensiones y una economía que incluya a las mujeres* gaiaz hitz egingo du.

Arrasate Musikaleko bazkideak

Arrasate Musikaleko bazkideek deskontua izango dute azaroaren 23an *Luisa Fernanda* zarzuelaren emanaldirako. Bazkideek 16 euro ordaindu beharko dute, 19 euro beharrean.

1956an jaiotako en urteroko irteera

1956an jaiotakoek irteera egingo dute azaroaren 10ean. Portugaleteko zubia bisitatuko dute, eta irteeran parte hartu nahi duenak 65 euro ordaindu beharko du. Irteera 09:30ean izango da, Garibaiko autobus geltokitik.

Maileguan hartzetik, norbere uzta batzera

Jauzi hori egin dute The Potes taldeko lagunek; gustuko taldeen bertsoak jotzetik, euren abesti propioak konposatzera. Lehen diskoa labetik ateratzeko gertu daukate, eta eurentzat berezia den leku batean aurkeztuko dute: Bergarako gaztetxean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Musika taldeak kasualitatez sortzen dira askotan, eta hori da The Potes taldeari gertatu zitzaiena. 2012ko Gabonetan DAT tabernan The Pogues omentzeko kontzertu bat egiteko batu ziren, eta ekitaldi solte hartatik gaur egunera arteko ibilbidea egin dute. Sei urteko ibilbide horretan, taldekide aldaketa asko izan dira, eta gaur egun hau da zazpikotea: Peru Altube –bateria–, Igor Sala –akordeoia–, Beñat Abasolo –banjoa–, Asier Sala –gitarra elektrikoa, Julen Zabaleta –gitarra akustikoa–, Ibai Lakunza –baxua– eta Josu Romeo –gitarra akustikoa eta ahotsa–.

Baina taldean joan-etorriak egon diren arren, jarraitzaileei dagokienez aldaketa gutxi izan dituzte, fidel askoak izan baitira beti. Oholtza azpikoek eta taula gainekoek "familia indartsua" osatzen dutela azaldu du Peru Altubek. "Beti esan dugu



The Potes taldea, gaur egun. POLIKARPO

familia bat garela, baina argi eta garbi ikusi genuen hori Jul Bolinagaren ezbarrean. Horren adibide da Julena; zale izate-tik taldekide izatera pasa da".

Bergarako gaztetxean aurkeztuko dute diskoa, eta zera dio

Romeok leku hori aukeratzeari buruz: "Egun oso latza izan arren, Bergarako jendea primeran portatu zen. Gaztetzearrekin eta gaztetzekoekin zor bat genuela uste genuen, eta taldekideoi arantza bat kentzeko balioko digu".



Hamabi berri, gehi bi zahar

Azken urte eta erdian aritu dira euren lehen laneko abestiei forma emateko prozesuan. "Antolakuntza aldetik nahiko kaotikoak izan gara beti; bi hilabete pasa ditzakegu lokaletik atera gabe, eta ostean hilabetez agertu gabe. Beraz, horregatik luzatu da hainbeste konposatzeko prozesua" azaldu du Romeok.

Hamabi abesti berri izango ditu, eta baita taldearen erreperitorioan aspalditik zeuden beste bi ere bai: *En la sombra* eta *Harro nago*. Hitzei dagokienez, askotariko gaiak izango ditu diskoak. "Denetarik dago; gure bizitzako pasarteak, gure kontraesanak, bromak eta umorea, berdintasuna, preso baten istorioa... gu inguratzen gaituzten gaiak dira denak", azaldu du Altube bateria-joleak. Abesti guztiak eurek idatzi dituzte talde lanean, baina badago Maria Osese idatzitako pieza bat ere.

Musikalki estilo berriak barneratzen joan direla nabarituriko da diskoan. "Lehen, The Potes mundu guztiak entzuteko modukoa zen, baina hori jada amaitu da. Bertso folklorikoekin hasi ginen, baina, pixkana, estiloa gogortzen joan ginen, Dropkick Murphys eta halako taldeen antzera. Baina benetako aldaketa konposatzen hasi ginenean etorri zen. Zazpi gara, eta estilo desberdinak gustatzen zaizkigu. Beraz, entsalada misto bat osatu dugu: folkloreakin, power poparekin eta rock-and-rollarekin".

Diskoa 10 eurotan jarriko dute salgai Taupa eta Irati tabernetan.

Biblioteca Eguna ospatzeko bost ekimen antolatu dituzte

Horietatik bi datorren astean egingo dituzte: Joxe Mari Carrereren eta Ana Galarragaren ipuin kontaketak

X.G. ARRASATE

Ekintza sorta ederra prestatu dute Arrasateko Bibliotekako lagunek urriaren 24ko Bibliotekaren Egunaren baitan.

Lehenengo biak datorren astean egingo dituzte. Hilaren 17an, ipuin kontalari, kazetari eta aktore Joxe Mari Carrerek *Nork dio beldurra?* izenburuko saioa egingo du. Izu istorioak kontatzeko kontuak izango ditu hizpide, eta 12 urtetik gorakoentzat dago zuzenduta. Hitzordua arratsaldeko bost eta erdietan da, Jokin Zaitegi gelan.

Hurrengo egunean, hilaren 18an, Ana Gallarraga zientzia komunikatzaileak hartuko dio lekukoa, *Ipuin kontaketak eta zientzia esperimenduak* izenburua duen saioarekin. Hitzordua 18:00etan izango da, Jokin Zaitegi gelan, eta urriaren 24an errepikatu egingo du, ordu berean, baina Santa Marinako auzo bibliotekan. Urriaren 24an, *Giza Biblioteka* egingo dute Kulturategi areto nagusian –18:00etan–, eta leku eta ordu berean *Enaren kontuak* ikuskizun musikala, hilaren 26an.

OHARRAK

Asisko Urmeneta

Arrasateko gaztetzeari gonbidatuta, komikilari ezaguna Arrasatera dator *Eusklabo alaiak* azken lana aurkezteko asmoz. Hitzordua hilaren 19an izango da, 18:30ean.

RIPen lagunak

Bi urtetik behin egiten duten kontzertua urriko azken asteburuan egingo dute, eta lau talde arituko dira bertan.

Bertso festa, bihar

Manex Agirre, Zigor Enbeita eta Miren Amuriza Irati tabernan izango dira bihar, bertso afari formatuan. Bertara joateko sarrerak 24 euroren truke daude salgai.

Hil edo biziko neurketa du Mondratek Gipuzkoako Kopan

Bihar, 12:00etan, Idiazabalen etxean jokatu du, eta galduz gero agur esango lioke lehiaketa horri

X.G. ARRASATE

Gipuzkoako Kopako bigarren fasea jokatu da asteburuan, eta une horretan hasiko da Mondrate txapelketan lehiatzen. Hil edo biziko norgehiagoka izango da, irabazten ez duena txapelketatik kanpo geratuko baita.

Baina Mondrateko lehen taldearentzat Euskal Liga izango da txapelketarik garrantzitsuenak. Aurpegi berri asko ditu taldeak, eta Jonatan Rasok dio adaptazio prozesua oraindik ez dutela gainditu. "Ligako lehen partidua etxetik kanpo irabazten


hasi genuen, baina aurreko asteburuan, etxeko lehen partiduan, aurkaria gainetik pasa zitzaigun. 3-5 galdu genuen, baina, markagailuan ez islatu arren, sentsazioak ez ziren onak izan. Denbora pixka bat falta zaigu".

Lau fitzaketa egin dituzte aurretik: Jon Del Palacio –Ermutik–, Igor Murgoitio –UDAtik– eta Yasmine eta Nourdine –Goieritik–. *"Delpa* eta Murgoitio hamaikako futboletik datoz, eta defentsan sendotasuna emango digute. Eta Yasmine eta Nourdine maila altuetan jokatzen dituzte".

hozi eta hozi

ESKOLA PUBLIKOAN

DEBAGOIENeko 1. JAIA
URRIAK 20
Eskoriatza



PLAZA	SANTA MARIÑE PLAZA	GOROSARRI PLAZA	LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA
11:00 HARRERA EKITALDIA	14:00 HERRI BAZKARIA	11:15-13:00	11:15-13:00 KIROL TXAPELKETAK
FLASHMOB Hazi eta Hazi	ZALDIBAR ANTZOKIA	KIROL ERAKUSTALDIAK	
12:30 POTX ETA LOTX Pailazoak	15:30 UMEENTZAKO ANTZERKIA	ARANA KALEA	
16:00 BOCABEATS KOMEDIA	21:00 ANTZERKIA	11:15-13:00 TAILERRAK	19:00 KONTZERTUA ZEA MAYS
17:15 DJ MOTO.	Las Chicas del Balneario AUSARTAK		



POTX ETA LOTX 12:30



BOCABEATS COMEDIA 16:00



ZEA MAYS 19:00

ZABALA ABIERTA INKLUSIBOA PÚBLICA DENONA HERRIKOA
 GURIA ETORKIZUNA ANITZA TODOS LAIKOA GUZTIONTZAT
 ESKOLA DENONTZAT ESKORIATZA BATUZ GATZAGA KULTURAK
 HERRIKOA OÑATI EUSKALDUNA قريب
 ESKOLA ALAIA **DEBAGOIENeko** ARETXABALETA HEZI
 BERGARA 例 **EUSKAL ESKOLA** IKASLE سب ك ل ف
 GURASO FUTURO ELGETA HEZKUNTZA
 ARRASATE HAZI **PUBLIKOA** IRAKASLE AMIZADE
 DEMOKRATIKOA WARTOŚCI SOLIDARIA
 HERRIKOIA FAMILIA ANTZUOLA ELKARLANA BALOREAK ORAINA
 DEBAGOIENA CAIRDIÜIL KALITATEZKOA ЛЮДИНИ PARTICIPATIVA
 BERDINTASUNA СОЛИДАРНОСТЬ CERCANA EREDUA ARAMAIO

URRIAREN 20AN ZATOZ
 ESKORIATZARA!!!

Erretiratuek egindako eskaerak, aurrera bidean

Herri eroso baten alde aletxoak jartzen dabilta azken hilabeteotan Aretxabaleta Lagunkoia taldeko kideak. Aldiro elkartzen dira udal ordezkariekin, eta egindako proposamenak, poliki-poliki eta fasetan banatuta, betetzen dabilta

Mirari Altube ARETXABALETAK

Aretxabaleta Lagunkoia lantaldeak gogotsu jarraitzen du lanean; hamabostean behin elkartzen dira diagnostikoko jasotakoak lantzeko eta berrikusteko, eta orain arte udal ordezkarien aldetik jaso duten erantzunarekin "pozik" daude.

Taldekide berriei zabalik

Aretxabaleta herri "erosoa eta atsegina" izateko ahaleginetan dabilta lanean Basotxoko hainbat kide azken hilabeteotan. Hainbat arlo zehaztu dituzte horretarako; besteak beste, aire libreko gunek, garraioa eta etxebizitza. "2013an egindako diagnostikoa izan da abiapuntua, eta, hiru arlo horien kasuan, hartu-eman interesgarria izan dugu udal ordezkariekin, alkaterekin zein Ongizate zinegotziarekin", adierazi dute lantaldeko kideek.

Aire libreko gunek, hain zuzen, gertutik landu dituzte, eta zehaztasunetara iritsi ere bai: "Bi aldean [Udala eta Basotxo] gustuko ekintza programa bat garatu dugu", eta epeak ere ezarri dituzte programa horretan zehaztutako lanei heltzeko.

Aretxabaleta Lagunkoia taldeko kideek adierazi gura izan dute herritarren parte-hartzea



Hamabostean behin elkartzen den lantaldea saio batean. ARETXABALETAK LAGUNKOIA

posible dela, eta beharrezkoa: "Argi dago herritarren ekarriak garrantzitsuak direla; guztion artean ekarpenak egin eta erakitzea posible da. Eta parte-hartze aktiboak poztasuna dakar, gainera". Taldea kide berriei zabalik dagoela gaineratu gura izan dute: "Lan honetan parte hartu gura duen edozein erretiratut izango du lekua Aretxabaleta Lagunkoian".

Alkatea pozik elkarlanarekin

Unai Elkoro alkatea ere pozik agertu da elkarlana ematen da-

bilan fruituekin: "Beste ikuspegi bat dute, sarritan guk ez duguna, eta interesgarriak izaten dabilta partaidetza saioak".

Erretiratuek egindako eskaera gehienak zentzuzkoak direla gaineratu du: "Fasetan banatu ditugu egin beharreko lanak. Hala, batzuk dagoeneko eginda daude eta beste batzuk bidean; batek edo bestek, ostera, ez du aurrera egin ez delako horren beharra ikusi. Badaude, gero, zentzuzkoak izan arren, Udalaren eskumenak ez direnak, eta horiei ezin diegu heldu".



Kontxi Romano eta Jose Gato, erretiratuen ordezkariekin. BASOTXO

Basotxokoak, aparteko sukaldariak

Gipuzkoako erretiratuen elkarteak (Agjupens) irailean, Altzan (Donostia), egindako gastronomia lehiaketan nagusi izan ziren Basotxoko zuzendaritzako kide Kontxi Romano eta Jose Gato. Txahal masail benetan gozoak gertatu zituzten.

Landutako gai batzuk

Aretxabaleta Lagunkoia Udalarekin adostutako kontuak.

Egindako lan batzuk:

- Porrukotxara garbitu.
- Belorrietako lurzoru irristakorra konpondu.
- Komun publikoan hobekuntzak: maratila eta papera.

Epea ezarrita duten lan batzuk:

- **Usoak kentzea** Abendua.
- **Deba ibai alboko pasealekua** Lanak abian.
- **Lausitan eta bidegorrian eserlekuak** 2019ko martxoa.
- **Sonometroa erostea** 2019ko martxoa.
- **Deba ibaia garbitzea** Udazkena (urtean bi egitea adostuta).
- **Zakarrontzi berriak** Plana eginda.
- **Txakurren ordenantza aplikatzen hastea** Azaroa.
- **Hondakinen gaineko kontzientziazio kanpaina** Urria.
- **Edukiontzia txartel barik probatzea** Azaroa.
- **Zebra-bidea Txarapean, zaharren egoitzarako** 2019ko martxoa.
- **Pilotalekuaren atzeko parte ixtea** Lanak abian.
- **Komun publikoak jartzea bidegorrian** 2019ko martxoa.
- **Mugikortasun ikerketa** 2019ko martxoa.

Prozesu parte-hartzailea deitu du EH Bilduk hauteskunderi begira

Zerrendaburua aukeratzeko lanetan dihardute eta horretarako herri batzarra urriaren 18an izango da

M.A. ARETXABALETAK

Datorren maiatzaren 26ari begira jarrita daude alderdiak, orduan egingo dira eta udal hauteskundeak. Hala, Aretxabaletako EH Bilduk iragarri du dagoeneko hasita dagoela lanean:

"Data horri begira jarri gara eta gure proiektua berri eta herrira egiten diogun eskaintza zehazteko lanetan gaude murgilduta", diote kideek, eta gaineratu dute: "Ez gara une honetara biluzik heltzen, ezta

arropa zaharrekin ere, baina mimo handiz eta denon artean hasi gara gure etorkizuneko jantziak josten. Hori izango da gure eskaintza: Aretxabaletako jendearentzako egokitutako eskaintza; gure etorkizuneko proiektua jantzen duena".

Lan horiek herritarrekin batera egin gura dituztela gaineratu dute, eta zerrendaburua prozesu parte-hartzaile bidez aukeratu: "Hurrengo urteetan Udalerako aurkeztuko dugun taldearen buru zein izan behar

den aukeratzeko ari gara; hau da, EH Bilduko alkategaia. Prozesu parte-hartzailea izatea nahiko genuke, EH Bilduko komunitatearen parte sentitzen den orok parte har eta erabaki dezan".

Prozesu horren gaineko argibideak emateko eta herritarren proposamenak entzuteko asmoarekin, herri batzarra egingo dute datorren egunean, hilaren 18an; Herriko Plazan dagoen EHBilgunean izango da, 18:30ean.

Odol ateratzeak egingo dituzte hiru astelehenetan

Arabako odol emileen elkartearen bidez autobusa etorriko da, beste behin, Durana kalera, odol ateratzeak egiteko. Hiru astelehenetan izango da bertan, 16:45etik 20:00etara; hona hemen egunak: 15, 22 eta 29. Herritarrek bertaratzera gonbidatu dituzte odol emileen elkartearen kideak: "Odola beharrezkoa da bizitzak salbatzeko".

Onarpenaren gaineko kontuak 'Lur'-en eskutik

Kepa Errasti aretxabaletarrak idatzi eta Getari Etxegaraik zuzendutako 'Lur' antzezlanaren dator domekan, hilaren 14an, Arkupera, Antzerki Hilabetearen barruan; transexualitatearen bueltan beste hainbat gai agertuko dira oholtza gainean

Mirari Altube ARETXABALETA

Kultura Sailak antolatutako Antzerki Hilabeteak Kepa Errasti aktore eta antzezlan idazlea dakar etxera. Maiatz hasieran Xake Produksioek estreinatutako *Lur* lanarekin dator, oraingoan, Arkupera. Domekan, hilaren 14an, eskainiko dute eta bi emanaldi izango dira: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak dagoneko salgai dituzte Arkupeko harreraren bertan, 3 eurotan.

Helduek umekin ikusteko lana

Julianek 6 urte beteko dituen Ane bilobari opari berezia egin gura dio; bidaia zirraragarri bat hasiko dute orduan. Abentura irudimentsua dirudien arren, bidaiak Aneren eta Jon aitaren arteko harremana bideratzen lagunduko du. Izan ere, umearen aita Jonek onarpen arazo bat du, Ane mutila delako. "Guk esan gura izaten dugu ume transexual bat protagonista duen istorioa dela; eta hori baino harantzago joanda esango nuke onarpenaren garrantziaren gaineko lana dela. Onarpen hori esparru askotara zabal daiteke; kontua da ingurukoek onartua izatea oso garrantzitsua dela, heldu, gazte edo ume izan", jakinarazi du Kepa Errastik.

Lanak bi plano dituela dio: "Irudimenarekin egindako bidaia da umearen unibertsoa, eta bidaia horretatik irteterakoan helduek paper garrantzitsuagoa hartzen dute; emozio asko azaleratuko dira orduan". Haurrendako antzezlanaren iruditu arren publiko zabalarendako dela argitu du: "Oso ondo uztartzen dira bi ikusle taldeak, umeak zein helduak", dio eta gaineratu du: "Gainera, gurasoak seme-alabekin gonbidatuko nituzke, umeek galderak izan ditzaketelako bukaeran. Eta, beharbada, gurasoek ere bai; baliteke askori zer pentsatua eragitea hainbat kontuk".



Erika Olaizola, Kepa Errasti eta Mikel Laskurain oholtza gainean. XAKE PRODUKZIOAK

Gaur, 'Hozkailua' lana

Artedrama konpainiarendako Unai Iturriagak idatzitako eta Manex Fuchek zuzendutako *Hozkailua* lana eskainiko dute gaur, urriak 11, Ander Lipus eta Patricia Urrutia aktore eza-

gunek. Hozkailu baten barruan Londrestik lagunaren hilotza dakarren bikotearen gorabeherak izango dira ikusgai -12 urtetik gorakoendako gomendatua- Arkupeko oholtza gainean, 22:00etan. Sarrera 4 euro da.

"Era naturalean landu dugu gai zaila dirudiena"

KEPA ERRASTI ANTZEZLAN IDAZLEA ETA AKTOREA

Transexualitatea ardatz duen lanarekin dator etxera.

Publiko zabalarendako antzezlan da, ezta?

Bai, bai. Gomendatuko nuke umeek eta helduek elkarrekin ikustea. Konplikatu dirudien gaia era naturalean eta samurrean landu da, eta guztiek gozatuko dute.

Zeu zara egilea; lan pertsonala da?

Ez zen sortu inpultso pertsonal batetik, txotxongiloekin lan



M.A.

egiteko gogotik baizik. Gero, egia da ez dutela halako presentzia handirik papiniek...

Oholtza gainean ere bai?

Bai, baina paper txiki bat da. Erika Olaizola -Ane- eta Mikel Laskurainek -aitona Julian- dute pisu handia.

Etxera ez zara sarri etortzen; gustura?

Bai, horixe! Errespetu handia sortzen dit gertuko jendearen aurrean jarduteak, baina poztasuna ere bai, berezia da.



Loramendi Ikastolako lehen bi promozioetako ikasle batzuk irakasleekin. I.S.

Emozioak bizi-bizi Loramendi Ikastolaren 50. urteurrenean

Herrian ikastola sustatu zuten haiek, gurasoak zein norbanakoak, eskertu zituzten orduko ikasleek

M.A. ARETXABALETA

Ikasleen aureskua, bizipenak jaso dituzten ikus-entzunezkoa, talde argazkiak, Dabid Errastiren bakarrizketa, Jon Sarasuak sortutako kantua eta opariak. Hori eta askoz gehiago izan ziren joan den zapatuan, orain dela 50 urte Loramendi Ikastolaren haziak erein zituzten haien omezez. Lehen bi promozioetako ikasleak eta gurasoak elkartu ziren sasoi hartako lau irakasleekin batera: Matilde Sainz, Kristina Gomez, Edurne Gallastegi eta Ixabel Iza, andereño Arantxa Iza zenaren izenean.

Ikastolaren lehen egoitza izan zen udaletxe zaharrean, une benetan hunkigarriak bizi izan zituzten. Eta ondoren, bazkaltzera joan ziren 75en bat lagun Uratz Alde elkartera, eguna erabat borobiltzeko.

Ikus-entzunezkoa Goienan

Herriko lehenengo ikastola haren sustatzaileen bizipenak *Ereindakoagatik esker onez* ikus-entzunezkoan jaso ditu Artemanek, eta hori Goiena telebistak eskainiko du urriaren 13an, zapatuan (18:30 eta 20:30), eta 14an, domekan (16:00 eta 21:30).

GORA ETA BEHERA



Edukiontzia zuria, sarri, goraino beteta

Edukiontzia zuri berriekin pozik azaldu da herritar bat: "Lehenengoak baino egokiagoak dira". Baina zera gaineratu du: "Lehen lez, sarri, bete-beteta egoten dira, eta, ondorioz, lurrean agertzen dira arropak, oinetakoak... Ezin dira sarriago pasatu husterat?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



M.A.

"Irabazi beharra dugu dinamika aldatzeko"

SERGIO SANTANO OHOREZKO ERREGIONALEKO UDA-KO ENTRENATZAILEA
Denboraldi hasiera zaila izaten dabil; izan ere, oraindik ez da garaipenik iritsi. Bihar, Mutrikura joango dira garaipen horren bila, bolada txarrari buelta emateko

Mirari Altube ARETXABAETA

Uztailean hartu zuen Ohorezko Erregionaleko taldearen gidaritza Sergio Santanok (Gasteiz, 1980) eta denboraldi hasiera gogorra tokatu zaio.

Emaitza onik ezin lortu zabilzate denboraldi hasiera honetan...

Horrela da, bai... Denboraldiaurre oso ona egin genuen, orain ondo dabilzan taldeen aurka jokatu, gainera, baina... Denboraldiko lehenengo partidua 0-3 galdu genuen; eta bigarrena ere galdu, irabazteko guztia izanik, azken minutuan sartu zigitelako. Horrela murgildu gara dinamika txar batean; eta dinamika onean sartzeko den lez jakin barik ondo zergatik den, oraingoan ez zaigu ezer ondo ateratzen. Bi berdinketa ere izan ditugu, eta sentsazio onekin bukatu genituen partidua horiek. Baina joan den domekan berriro gertatu zitzaigun lehenengo partiduko: geuk eman aurkariari aukerak eta eurek aprobetxatu, eta guk gureak sartu ez... Kontua da dinamika horretatik lehenbailehen aldentzea.

Eta dinamika aldatzeko gakoa non egon daiteke?

Azken bi-hiru asteotan hori lantzen gabiltza: ez uztea ezer, ez ematea ezer aurkariari, golik ez jasotzeko. Goian kalitatezko jokalariek ditugu eta golak sartzeko aukerak sortzen bagabiltza. Golik ez jasotzea da kontua, gutxienez, puntu bat izango dugulako. Eta asmatuz gero, eta gol bat eginez gero, geureak dira puntuak. Golen bat sartzeko badigute jokaldi on baten emaitza izan dadila, ez guk emandako aukera baten ondorioz.

Taldean aldaketak egon dira, eta kanpotik jokalarik asko etorri; behar bada, taldea oraindik egiteko dago?

Emaitzek zeresan handia izaten dute halako balorazioetan, eta maila honetan irabaztearen eta galtzearen artean marra oso fina dago. Irabaziz gero badirudi



Sergio Santano, martitzenean, Ibarra futbol zelaietan. MIRARI ALTUBE

"EMAITZEK ERAKUSTEN DUTENA BAINO OSATUAGOA DA TALDEA, ETA ERAKUTSIKO DU"

taldean ez dagoela inolako arazorik, baina galduz gero... Talde guztietan gertatzen da hori. Egia da buruan bageneukala kanpoko jendearen etorrera oztopo txiki bat izan zitekeela hasieran, baina hori ez da arazo nagusia, inondik inora. Azken batean, futbol jokalariek dira eta irabazi egin gura dute guztiek.

Jokalarien lanarekin gustura zaude?
Kontua da asteazkenean egiten dugun lan hori guztia gero partidura eramatea. Baina egindako akatsek baldintzatu egiten gaituzte, eta gero, garesti ordaintzen dugu. Domekan, bi gol sartu ondoren *groggi* geratu ginen, ezin erreakzionatu, eta partidua erabat baldintzatu zuen horrek. Psikologikoa ere bada kontua.

Arabako futboleki etorri zara; ezberdintasunik topatu duzu?
Ageri-ageriko ezberdintasuna dago Arabako Erregional Pre-

ferentearen eta Gipuzkoako Ohorezko Erregionalaren artean. Hemen, taldeen artean berdintasun handia dago; horregatik diot irabaztearen eta galtzearen artean marra oso fina dagoela. Eta futbol zelaietan ere askoz zale gehiago batzen da Gipuzkoan; hortaz, giroa *futbolagoa* dela esango nuke.

UDAk ere zale asko ditu; zein mezu bidaliko zenieke?

Esango nieke taldea emaitzek erakusten dutena baino osatuagoa dela. Egia da puntuak erabakitzen dutela sailkapeneko postua, baina gure taldea eta aurkariak ezagututa konbentzitu nago jokalariek askatu egingo direla dinamika aldatuz gero. Egun blokeatuta daude egoeratik, kontrako emaitzak jasotzerakoan batez ere. Irabaziz gero ikusiko dute sailkapenak erakusten duena baino askoz hobekak garelako; hortaz, emaitza positibo hori lortu behar dugu.

Asteburuan Mutrikura...
Bai, egubakoitzean. Sailkapenaren goialdean daude, baina berdin da goian edo behean egon, berdin da aurkaria zein den, gu gara garrantzitsuak eta guk geuk irabazi behar dugu.

EUSKARALDIA



Belar Metako Idoia Elexpuru, *ahobizi* dela adierazten duen irudiarekin. NEREA ZUBILLAGA

"Gure lehen berba beti da euskaraz; Euskaraldian, nola ez"

Ostalaritza zerbitzuetako kideak eta merkatariak, Idoia Elexpuru, esaterako, hasi dira Euskaraldira batzen

M.A. ARETXABAETA

Euskaraldiaren erreka hazten eta hazten doa, hemendik hila-bete barru uholde bihurtzeko ahalegin horretan, eta orain, merkatariengana eta ostalariengana hasi da iristen. Herriko lantaldeko kideak denda eta taberna guztietatik pasatuko dira egunotan Euskaraldiaren gaineko argibideak ematera. Eta konpromisotxo ere eskatuko diete: *ahobizi* edo *belarriprest* rola hautatzea.

Euskaraz bizi

Durana kaleko Belar Meta arropa dendako Idoia Elexpuru eta Uxue Erañak ez dute zalantzarik izan rola hautatzerakoan: *ahobizi*-ak izango dira. "Guk lehenengo berba beti egiten diegu euskaraz bezeroei, euskaraz bizi gara gu. Hortaz, zelan ez izan

ahobizi", dio Elexpuru. Onartu du berba asko egiten dutela dendara sartzeko diren guztiekin, eta horien artean daude euskaraz ez dakitenak ere: "Herriarrek ondo dakite guk euskaraz jarduten dugula; hortaz, gurekin hala egiten saiatzen dira ohiturarik ez duten asko ere. Baina ulertzen ez dutela esanez gero, ez dago arazorik aldatzeko".

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo den ariketa kolektibo horretan identifikatuta egongo dira herritarrek, eta horrek, asko lagunduko duela uste du: "Dendan pegatina izango dugu jarrita, eta paparrean txapa; hortaz, edonork jakingo du guk zein rol dugun". Eta *ahobizi* izatea hautatu edo *belarriprest* izatea hautatu, herritar guztiak Euskaraldiarekin bat egitera gonbidatu ditu.

1978an jaiotakoek elkarrekin bazkalduko dute azaroaren 24an

Kinto bazkaria egingo dute 1978. urtean jaiotakoek, 40 urteak ospatzeko -Aretxabaletan bizi den eta kintoa den edonori dagoela irekita gonbidapena jakinarazi dute-.

Azaroaren 24an izango da, eta izena emateko epea zabalik dago urriaren 30a bitartean. Arlutz tabernara jo behar da horretarako.



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAETA

"Nire ustez, musikaria ezin da geldirik egon"

JESUS URRUTIA BANDA KO ZUZENDARIA

Angel Bañares Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolako bandako zuzendariaren kargu-uztearen ostean, Jesus Urrutia da zuzendari berria

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ekainaren 28an, San Pedro bezperan, Angel Bañares Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolako bandako zuzendariak jakinarazi zuen ez zuela karguan jarraituko eta Jesus Urrutiak ordezkatzuko zuela. Hala, ikasturtea hasi berri, Jesus Urrutiak ibilbide berriari ekin dio, eta dagoeneko hasi da bandarekin lanean.

Nolako izan da Eskoriatzako bandako zuzendari berriaren ibilbidea gaur arte?

13 urte nituela hasi nintzen Eskoriatzako bandan musikari, Angel Bañaresen gidaritzapean. Bonbardinoa jotzen nuen. Gasteizen egin nituen ikasketak, eta beste hainbat ikastaro... Gero, urte askoan aritu ostean, 2017an, Errioxara joan nintzen bizi izatera, Harora. Hala, bertan, koruko eta San Asentzio bandako zuzendaria naiz gaur egun, eta orain, Eskoriatzako. Oso pozik hartu nuen Eskoriatzako banda zuzentzeko eskaintza, ohorea da; izan ere, denok ezagutzen dugu elkar, eta, niretzako, erronka berri bat da.

Nola ikusten duzu Eskoriatzako banda?

Taldea ongi estrukturatuta dago, banda osatzen duten 30 musikariek. Talde gaztea da, eta oinarrizko instrumentuz osatuta dago. Geroz eta instrumentu gehiago izatea beti da ongietorria, baina halako herri txiki batean oso zaila da hori lortzea, ez dago gehiagoren beharrik. Hala ere, musika eskolan gazte asko daude instrumentu ezberdinak ikasten, eta gero, bandarako saltoa egingo dute hainbatek, seguruenik. Gainera, gogotsu ikusten ditut, eta ni ere halaxe nago. Beti ikasteko prest egon behar du musikariak, eta hori da garrantzitsuena. Musikaria ezin da geldirik egon; konposatzen, aldaketak egiten, leku ezberdinetara mugitzen, musikariak



Jesus Urrutia, Eskoriatzako bandako zuzendari berria. **JESUS URRUTIA**

"ERREPERTORIO MODERNOAK GUSTATZEN ZAIZKIT, GAUR EGUNGOAK DIRENAK"

ezagutzen... egon behar duela uste dut nik.

Bandarako helburu berriekin zator? Ez, ez da aldaketa handirik izango. Zuzendari bakoitzak bere gustuak ditu, eta erreperitorio modernoak gustatzen zaizkit niri, gaur egungoak direnak. Uste dut musikarientzat interesgarriak direla, eta baita entzuleentzat ere. Hala ere, ez ditut klasikoak baztertzen, eta horiek ere atsegin ditut. Konposaketa berri batzuk egiten ari naiz Eskoriatzako bandarako, eta poliki-poliki ikusiko dugu norantz goazen. Hemen, gainera, lagunak ditut, eta egubakoitzetan izaten ditugu bandako entseguak. Bestalde, Harotik Eskoriatzarako distantzia ez da hain handia, eta pozarren etortzen naiz. Beti da atsegina aspaldiko lagunak zutaz gogoratzea.

Eskoriatzako banda zuzentzeaz gain, Errioxan ere beste hainbat proiektutan, ezta?

Bai, San Asentzio bandako zuzendaria naiz, eta baita koruko ere. Asko bidaiatzen dugu bate-tik bestera. Egun-pasak egiten ditugu; hiru edo lau eguneko irteerak egitea zailagoa da, baina uste dut oso aberasgarria dela. Ni, eskoriatzarra izanda, ilusioz etorri naiz hona, eta horretan ere egingo dugu ahalegina. Hau da, Eskoriatzatik inguruko herrietara irteera gehiago egin, beste banda batzuekin elkartu...

Batetik bestera aritzeaz gain, hainbat topaketa ere egin dituzue, ezta?

Hala da. Aurten, hirugarren urtez batuko gara Asentzioko, Eskoriatzako eta Urduñako bandok, Azaroaren 17an, Urduñan, eta, kasu honetan, Angel Bañares joango da Eskoriatzako zuzentzen eta ni, berriz, Asentziokoa. Horrez gain, azaroaren 23an, Santa Zezilia egunaren harira, bandaren urteroko emanaldia izango dugu Eskoriatzan, eta batuta aldaketa edo zuzendari aldaketa ofiziala egingo dugu, Angelek bere aitortza izan dezan herritarren aurrean.



Ezkurtxo, ikastolako haurrekin batera. **GOIENA**

Mazmela auzoan emango dio ongietorria udazkenari Ezkurtxok

Arizmendi Ikastolak antolatutako jai urriko hirugarren zapatuan ospatuko da: urriaren 20an, hain zuzen ere

I.B ESKORIATZA

Mazmela auzoan izango da Ezkurtxo urriaren 20an, betiko moduan, urriko hirugarren asteburuan. Aurtengoa, 21. edizioa izango da, eta Mazmelako elizaren inguruan egingo dituzte ekintzak.

Udazkenari ongietorria egiteko, Ezkurtxo eguna ospatuko dute, eta, bide batez, Mazmela auzoa ezagutzeko aukera izango dute herriko neska-mutikoei. Hala, hainbat ekintza eta jolas izango dituzte, eta, urtero moduan, Ezkurtxo ere izango dute lagun.

Urteroko egitarauari jarraituz

Jose Aranako haurtxotekan hasi eta ipuin kontaketa beste txoko batzuetara zabaldu nahi dituen jaiaren helburua honako hau da: Eskoriatzako elizateak eza-gutzea eta irakurzaletasuna sustatzea; betiere, euskal giroan, jolasean, familian...

Jolasak, pinak egin, ibilaldi txiki bat, ipuin kontaketa... Denetik izango da, eta, bukatzeko, txokolata jango dute. Hori horrela, hiru eta erdietan, Goiko kaleko Aingeru Guardako geltokian elkartzeko dira, autobusez Mazmelara joateko.

Sormena, pazientzia eta lan ederrak, kreaziozko bitxigintzan

Eguaztenetan 17:30etik 19:30era bitartean izaten dira saioak, kultura etxeko bigarren solairuan

I.B ESKORIATZA

Kreaziozko bitxigintza ikastaroa hasi berri dute Eskoriatzan, bigarren urtez. Patricia Ruiz irakaslearen gidaritzapean, askotariko materialak erabiliz pieza ederrak egiten dituzte.

"Irudimena eta pazientzia dira bitxigintzaren gakoak. Material oso txikiekin egiten dugu lan, eta, gainera, garesti samarrak dira. Hori horrela, norberarentzat gorde edo opari bat egiteko erabiltzen ditugu, normalean, ez dute hutsik egiten", adierazi du Patricia Ruiz irakasleak.

Miyuki kristal japoniarrak, Swarovski kristalak, buztin polimeroak... askotariko materialak erabiliz bitxi ezberdinak egiten dituzte.

Eguaztenetan 17:30etik 19:30era bitartean izaten dira saioak, eta herritar ororentzat atea zabalik dituztela adierazi dute: "Taldea daudenek esperientzia dute; hala ere, ez dago zertan oinarririk izan, eta hutsetik hasi nahi duena etor daiteke zer egiten dugun ikustera eta, bide batez, bitxigintza ikastaroa probatzera".



Auzoko egitasmoa partaideak, pasa den astean, Fernando Eskoriatza plazan ateratako argazkian. IRATXE ARRESE

Hasi dira Auzoko eta Berbalagunak ekimenak

Euskaraldia ekimena aprobetxatuz, Eskoriatzako Berbalagunak taldeak 'ahobizi' eta 'belarriprest' figurak izango dituen talde misto bat sortu nahi du. Horrez gain, koordinatzaile berria izango du: Iratxe Arrese eskoriatzarra, hain zuzen ere

Imanol Beloki ESKORIATZA

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzeko programaren barruan, Auzoko eta Berbalagunak egitasmoak daude. Euskara hobetzeko, gehiago erabiltzeko, euskaraz bizi izateko eta ingurune euskalduna sortzeko tresnak direnak, hain zuzen ere.

Jende guztiarentzat da Auzoko, eta euskaraz dakitenek –auzotarrak– eta ez dakitenek –auzokideak– hartu dezakete parte. "Herrira datorren jende berriari harrera egiten diogu, euskara ardatz hartuta. Baina horretarako auzotarrak ere behar ditugu, eskoriatzarrak eta euskaraz

mintzo direnak. Denon artean euskaraz harrera ona egiteko. Dagoeneko talde bat dugu, eta giro informalean batzen gara, martitzenetan, 10:45ean, kultura etxean", adierazi du Iratxe Arrese koordinatzaileak; parte hartzeko eta informazio gehiago jasotzeko, 661 74 63 76 zenbakira *whatsapp* bat bidalita.

Berbalagunak egitasmoa, bestalde, egunenak pintxo-potean jarri dute martxan aurten. Hala ere, beste ordu eta egun batzuetan ere egoten dira berbalagun taldeak. Euskara praktikatu nahi dutenentzat eta euskaraz normaltasunez bizi direnen artean norberaren gustuko ekintzak egiteko ekimena da.

Aurtengo berrikuntzak

Eskoriatzako Berbalagunak taldeak, aurten, Euskaraldiaren olatua aprobetxatu nahi du eta *ahobizi* eta *belarriprest* figurak izango dituen talde misto bat sortu nahi du. Euskara ulertzen bai baina hitz egiten ausartzen ez diren *belarriprest*-ek aukera izango dute astean behin *ahobizi* diren beste batzuekin elkartu eta eurei euskaraz hitz egiten entzuteko.

Izena emateko aukera asko daude: kultura etxera joanda, *berbalagunak@gmail.com* helbidera idatzita, 636 78 59 71 telefono zenbakira deituta eta 661 74 63 76 zenbakira *whatsapp* bat bidalita.

Zientzian murgilduko dira haurrak, esperimentuak eginez

Urriaren 21ean, domekan, arratsaldeko bostetan izango da zientzia esperimentu tailerra, kultura etxean

I.B ESKORIATZA

Zientzia gustuko duenak aukera paregabea izango du datorren asteburuan, kultura etxean, Eskoriatzako Udalak antolatuta duen hitzorduan. Izan ere, urriaren 21ean, haurrentzako zientzia

esperimentu tailerra izango da, eta, hain zuzen, esperimentu ezberdinak egiteko aukera izango dute bertara doazenek.

Tailerra euskaraz izango da, eta 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako ikastaroan,

lau esperimentu egingo dituzte: izotz lehorra, *slime*-a, elur artifiziala eta harea mugikorak. Egiteko errazak izango dira, eta, bide batez, printzipio zientifiko batzuk ezagutu ahal izango dituzte haurrek.

Hori horrela, zientziaz gozatu nahi duenak 943 71 46 88 telefonora –kultura etxea– deitu behar du izena emateko; prezioa bost euro da. Horren harira, ikastaroan parte hartzeko lekua dagoen arren, plaza mugatuak izango dira.



Gatzaren Egunean, gatzaren eta produktu ekologikoen azoka. GOIENA

Gatzaren Eguna ospatzeko egitarau zabala antolatu dute

Gatzagako gatzaren ezagutarazteko eta egun ederra pasatzeko jaia urriaren 21ean, domekan, izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gatzagako mineral preziatua oinarri izanda, egitarau zabala prestatu du Udalak urriaren 21ean izango den Gatzaren Egunerako.

Egitaraua honako hau da: 11:00etan hasita, gatzaren eta produktu ekologikoen azoka izango da plazan, eta, horrekin batera, *Baskegur-ek* antolatuta, basogintza-egurgintza sektorearen erakusketa izango da. 09:30ean, Dominagatik irtenda, mendi ibilaldia izango da basoen humanizazio prozesua ezagutzeko, GFA-ko basozainak gidatuta. 11:30etik 14:00etara, zurezko plaza jokoak

egingo dituzte eta 12:00etan, Jakoba Errekondoren hitzaldia izango da, kultura etxean. Jaia giroz aldera, 12:30ean eta 16:00etan, dantza herrikoiak izango dira Lagun Artean eta Jeiki Hadi taldeekin eta 14:00etan, Saliessa (Biarno) herriarekin senidetze ekitaldia egingo dute. 14:00etan, berriz, bapo bazkaldu, eta 18:00etan, La Jodedera taldeak kontzertua eskainiko du.

Horrez gain, bisita gidatuak izango dira museoa, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan; eta 11:00etan, gatz-xaboiak egiteko tailerra izango da.

Autodefentsa feminista tailerra: izen-ematea zabalik dago

Urriaren 27an eta abenduaren 1ean egingo da, kultura etxean, Gatzagako Emakume Taldeak antolatuta

I.B LEINTZ GATZAGA

Gatzagako kultura etxean bi egunetan egingo dute autodefentsa feminista tailerra: urriaren 27an eta abenduaren 1ean, hain zuzen ere. Biak ala biak kultura etxean izango dira, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Gatzagako Emakume Taldeak antolatutako tailerrean izena eman nahi duenak urriaren 19a baino lehen egin behar du (egubakoitza), udaletxera joanda edo bertara deituta, 943 71 47 46 telefono zenbakira. Doakoa izango da, eta, gehienez, hoge

laguneko kopurua ezarri dute antolatzaileek.

Gogoeta eta jabetze pertsonal eta kolektiboko ariketa bat egiteko tailerra izango dute bertara doazenek. Indarkeria sexistaren formatu guztiak identifikatu eta emakumeak generikoki kontrolatzeko balio duten indarkeria elementu kulturalak, politikoak, ekonomikoak, eta abar aztertuko dituzte.

Kasu errealetan oinarritutako egoerak ere erabiliko dituzte, tratu txarrak saihesteko erabili ditzaketen teknikak ikasita.



Bategite aurreko argazkia, ikastolako; ikasleak, Santa Ageda ospatzen. SAN MARTIN ESKOLA



Saioa Uriarte, Paulino Ibabe, Ana Arriolabengoa eta Jesus Zabala. J.I.

Julen Iriondo ARAMAIO

1978ko udazkena zen. Aurreko urteetan ez bezala, eskola bakararekin zihuan hasiera ikasturtea Aramaion. Herritar talde batek bultzatuta hamarkada hasieran sortutako ikastolaren eta eskola nazional zeritzonaren arteko bategitea gauzatu zen. "Ez zen zentzuzkoa Aramaio bezalako herri batean bi eskola lerro izatea", diote Jesus Zabalak –ikastolaren bultzatzaile izandakoa–, Ana Arriolabengoak –ikastolan irakasle ibilitakoa– eta Paulino Ibabek –bategitearen osteko irakaslea–. Zorionez, euskarazko hezkuntzarekin jarraitzeko izan zen bategitea. Horrela sortu zen gaur egungo San Martin eskola, duela 40 urte.

Aramaioeko eskola gaur egun denaren jatorria herriko pertsona, guraso, euskaltzale haiek 1971n martxan jarraitako ikastetxean aurki daiteke. Aurrekoa zen eskola nazionala, baina eskolak bere izan duen eta duen ezaugarri inportanteetako bati, euskarari, erreparatuta aitordakioke aitzindaritza ikastolari.

Ikastolaren sorrera

Ikastola martxan jarri aurreko urteetan "mugimendu handia" zegoen Aramaion, Ana Arriolabengoak dioenez. Oraindik Franco bizi zela, Aramaioeko gazteek hainbat talde eta ekimen sortu zituzten urte haietan, askotarikoz esparruetakoak, berdin kirol edo kultura, baina denek zuten ezaugarri komun bat: euskara;

40 urtez, bakarra eta euskalduna

1971tik bi ikastetxe izan zituen Aramaiok, Ibarrek, zazpi bat urtez, eskola nazional zeritzona eta hamarkada hasiera hartan herri ekimenez sortutako ikastola. 1978an egin zuten bat, eta euskarazkoaren bidetik jarraitu zuten bat egindako eskolak

modu batera edo bestera, bakoitzak bere esparrutik, euskarari bultzada ematea zuten gogoan.

Eta euskararekiko grina hori hezkuntza alorrera ere eraman zuten gazteok. 70eko hamarkada hasierako, Leintz bailaran abian ziren ikastolak. Baziren bi aramaioar Arrasaten irakasle zebiltzanak, Adela Ibabe eta Ana Mari Arana; eta herriko *saltsetan* sartuta, era berean, Arrasateko esperientziak zeramatza ten Aramaioeko lagun artera.

Horrekin batera, aita-amek ere bazuten euskararekiko ardura, eta hori nabari zen gura-

**KATEKESI LEGEZ
AURKEZTEN ZUTEN
IKASTOLA, ELIZAREN
'BEDEINKAZIOAREKIN'
BAIMENA LORTZEKO**

so elkartean ere. Hor ziharduen Jesus Zabalak, eta hark eta beste batzuek argi ikusten zuten herrian ikastola sortu beharra.

Guraso eta gazte hasi ziren elkartzen euskara ardatz izango zuten ikastetxea jomugan, eta laster hasi ziren haren finantzaziorako lanean: errifak, kontzertuak, enpresa eta erakundeetara diru laguntza eskeak, bazkietzak...

Baina, horrez gain, garaiko arduradun politikoen begietara ekimena zilegi izan zedin ere egin behar zuten; eta hor garrantzitsua izan zen Jose Mariki abadea. Bere *bedeinkazioa* izan zuten ikastolaren bultzatzaileek, eta sinadura eman zuten eskola haiek elizaren babespekoak, katekesi antzerakoak, zirela baieztatuz. "Elizaren kontuak ez zituzten ezbaian jartzen", dio Arriolabengoak.

Hasteko adina diru eta baimeak eskuan, andereñoa baino ez zen falta; eta Ana Arriolabengoa bera izango zen. Ikastola sortzeko mugimendu hartan zebilen, eta, irakaskuntzarako titulurik ez zuten arren, andereñotarako gonbita onartu eta hasi zen ekimen ilusionagarri hartan lan egitearekin batera titulua lortzeko lanean.


1971ko otsailean jarri zuten martxan eskola berria, 3 eta 4 urteko hamabost bat umerekin. Aurreko urteetan hainbatek amestutakoa martxan zen Aramaion. Ilusioa eta herri ekime-

**HAMABOST BAT UME
HASI ZIREN 1971N
IKASTOLAN, BAINA
BAKARRA GERATU
ZEN 6 URTE EGITEAN**

na bai, baina oinarri sendoagorik ez zuten, ordea, proiektuak, eta laster hasi ziren Arabako Foru Aldundiarekin harremanetan, Julian Untzueta alkate eta Jesus Zabala bera ere Udalean zela, Diputazioa egin zedin ikastolaren kargu. Beste arrazoi bat ere bazen horretarako: 6 urtera arteko eskolaratzea ez zen –derrigorrezkoa, baina bai hortik aurrerakoa, eta ikastolaren hasierarekin eskolaratutako ume haiek euskaraz ikasten jarrai ahal zezaten legeko izaera behar zuten ikastetxeak. Aldundian ere pertsona aproposa egokitu, eta Manuel Lejarreta hango buru zela 1973an Diputazioaren esku geratu zen ikastola.

Ikastola, Aldundiarena

1973 eta 1978 artean Arabako Foru Aldundiaren esku egon zen Aramaioeko ikastola. Eskola nazionalaren parte bat bezala funtzionatzen zuten, eta derrigorrezko eskolaratze adinetan zeuden umeentzat baldintzak ez ziren, ofizialki behintzat, desberdinak, hizkuntzari zegokionez. Hori ofizialki, ze Aldundiaren menpeko ikastetxearen hizkuntzak euskara izaten jarraitu zuten, ezkutuan izanda ere: horren erakusle, notak, adibidez, espainolez ematen ziren. Edo ikuskatzaileekin gertatzen zena: euskara astean ordu erdiz baino ezin zen eman ofizialki, eta adi egon behar zuten, ikuskatzailea zetorrenean zegokion hizkuntzan aritzea ziurtatzeko.



Ikastolako notak, erdaraz. S.M. ESKOLA



Aldaketak, kanpotik zein barrutik

Eskola irisgarritasun baldintzetara egokitzeko udan egindako arrapalan gora eraikinean sartuta, beste aldaketa batzuk ere badira aurten: 2 urteko gelan bost ikasle besterik ez –denera 115 dira eskolan– eta 3 urtekoarekin elkartu dute, horma botata. Ez da espazio kontua bakarrik, adin askotariko ikasleak batera ikasten jarriko dituen eredu pedagogikoa ezartzeko lanean ari dira, eskolako zuzendari Saioa Uriarteren arabera.

Hala ere, Ana Arriolabengoa-ri batu zitzaion andereño talde berriak euskal izaeran sakontzen jarraitu zuen –Arriolabengoa urtebetez jarraitu zuen Aramaion irakasle; titulua atera eta herri-rik kanpo jarraitu zuen gero irakaskuntzan–, eta euskal ohitura zaharrak ekarri zituzten: santa-eskean hasi ziren, esate baterako, eta Olentzerorekin ere bai. Baina eskolak emateko ez zuten euskarazko irakasbaliabide askorik.

Aramaioko bi eskolen arteko bizikidetzaren azken urteak ziren, bategitearen aurrekoak. Aldundiaren menpeko lerrokoen eta eskola nazionalen arteko harremanak onak ziren: jangelan, adibidez, elkarrekin bazkaltzen zuten denek, eta irakasleek ere tratu ona zuten elkarren artean.

Bazetorren bategitea. Ez ziren urte errazak izan aurrekoak. Deigarria, adibidez, ikastolako hasierako hamabost ume haie-tatik bakarra geratu zela 6 urte betetzean. Aurreko urteetan herriko ikastolaren aldeko hautua egin ostean, guraso gehienek Almenera eraman zituzten umeak derrigorrezko eskolaratze adinera iristean –ikastetxe haren prestigioagatik eta Aramaiokoaren baliabide eskasia eta ziurgabetasunagatik–; atzerakada izan zen ikastolarentzat, baina 1975etik aurrera ikasleria mantentzen eta gehitzen joan zen berriro. Aramaiorrek euskarazko irakaskuntzaren alde

egiten zuten; lerro nazionalak ez zuten arrakastarik: "Orduan ikusi zuten politikariek ere bi eskolen arteko bategitearen beharra", dio Jesus Zabalak.

1978a zen. Urte pare bat lehenagotik eskola nazionalen zen Eugenio Arrate irakaslea. Irakasle, eta zuzendari 1977-78 ikasturteari, eskola bakar bezala ekin zioten. Izan ziren trantsizio urte batzuk, zeintzuetan gela beretan batera ziren ordu-ra arte euskal lerroan ibilitako ikasleak eta erdal lerroan ibilitakoak: batzuei euskaraz eta besteei gazteleraz irakasten zieten; ikasgai batzuk, gainera, denek jasotzen zituzten, hasieran, erdaraz. "Jesusen [Zabala] seme Josuri matematikak gazteleraz eman nizkion nik 7. eta 8. maietan", gogoratzen du 1980tik eskolan irakasle ibilitako Paulino Ibabek. Kontuan izan behar da, gainera, bategite hurra hitzezkoa baino ez zela izan, paperetan eskola nazionalari atxikita jarraitzen zuela euskarazkoak; irakasleek ere, batzuek Aldundiaren menpeko izaten jarraitzen zuten, eta besteak Hezkuntza Sailarenak ziren –Jaurilaritzakoak, behin eskuduntza transferitzean–: gogoan du Ibabek eurek, Aldundikoak zirenek, baldintza hobeak zituztela, tartean soldata, eta hala jarraitu zutela hamar bat urtez.

Bategitearen osteko lehen urteak igarota, baina, ur berriek ibaiak bezala hartu zituen euskarak Aramaioko eskolako ikasgelak. Eta gaur arte.

BAT EGITEKO BALDINTZA IZAN ZEN FAMILIA BAKARRA ERE EZ EGOTEA HORREN KONTRA

dako batzarretan inor ez zen kontra agertu, baina izan zen batzarretan egon ez zen familiarik, eta banan-banan joan ziren haien onespren bila.

Bategitea eta ondorengo urteak Duela 40 urte, beraz, 1978-79 ikasturteari, eskola bakar bezala ekin zioten. Izan ziren trantsizio urte batzuk, zeintzuetan gela beretan batera ziren ordu-ra arte euskal lerroan ibilitako ikasleak eta erdal lerroan ibilitakoak: batzuei euskaraz eta besteei gazteleraz irakasten zieten; ikasgai batzuk, gainera, denek jasotzen zituzten, hasieran, erdaraz. "Jesusen [Zabala] seme Josuri matematikak gazteleraz eman nizkion nik 7. eta 8. maietan", gogoratzen du 1980tik eskolan irakasle ibilitako Paulino Ibabek. Kontuan izan behar da, gainera, bategite hurra hitzezkoa baino ez zela izan, paperetan eskola nazionalari atxikita jarraitzen zuela euskarazkoak; irakasleek ere, batzuek Aldundiaren menpeko izaten jarraitzen zuten, eta besteak Hezkuntza Sailarenak ziren –Jaurilaritzakoak, behin eskuduntza transferitzean–: gogoan du Ibabek eurek, Aldundikoak zirenek, baldintza hobeak zituztela, tartean soldata, eta hala jarraitu zutela hamar bat urtez.

Bategitearen osteko lehen urteak igarota, baina, ur berriek ibaiak bezala hartu zituen euskarak Aramaioko eskolako ikasgelak. Eta gaur arte.

Gorbeialdeko Irakurle Klub Feministaren lehen saioa, Aramaion

Astelehenean izango da euskarazko Gorbeialdeko Irakurle Klub Feministaren aurkezpen saioa, Aramaioko kultura etxean. Urte hasieran jarri zuten martxan gaztelerazkoa –jarraitzen du oraindik–, eta asteleheneko aurkezpenaren ostean hileko hirugarren eguenetan egingo dute euskarazkoa. Hain zuzen, *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidean edo 945-43 01 67 zenbakian eman daiteke izena, eta parte hartzera animatzen diren pertsonen bizilekuaren arabera herriz herri txandaka egingo dituzte hileroko hurrengo saioak.

Azaroko saiorako Arantxa Urretabizkaiaren *Bidean ikasia (1993-2016)* lana irakurri behar dute parte-hartzaileek, Hondarribiko alardeari buruzko liburua. Izan ere, Irakurle Klub Feministan irakurriko dituzten lanen egileak emakumeak izango dira beti, eta, oro har, ikuspegi feminista izango duten lanak izango dira. 18:00etatik 20:00etara izango da lehen saioa.

Etxeko konposterako materiala eskatzeko azken eguna, 22a

Urriaren 22ra arte eska daiteke etxeko konposta egiteko materiala: konpostagailua, aireztatzailea eta etxe barrurako ontzi txikia. Eskatera egiteko, Udalaren webgunean edo udaletxean bertan eskuratu daitekeen izenemate orria bete behar da, eta udal bulegoetan aurkeztu. Konpostari buruzko argibideak jasotzeko modua ere badago.

'Zubi bat Afrikarantz' ekimeneko ekintzak, hilaren 18tik 20ra

Manuel Iradier elkarteak antolatuta, kolonialismoaren gaineko hitzaldia egingo dute egue-nean, 18:30ean, Aba Kane irakasle senegaldarraren eskutik. Barikuan, 17:00etan, artisautza tailerra eta ipuin kontaketa egingo dituzte. Azkenik, zapatuan, 19:30ean, ezkon-bizimoduari buruzko filma emango dute. Dena, kultura etxean.



NIRE USTEZ

ANDERE
ARRIOLABENGOA

Hezkuntza segregazioa

Hezkuntza segregazioa terminoa lehen aldiz Gasteizen entzun nuen. Aramaioko hezkuntza komunitate txikiko partaide izanda, kostatu egin zitzaidan puntu horretara nola heldu zitekeen ulertzea. Gure eskolan, etorkin eta euskal hiztun ez direnak, konplizitatez eta elkarkidetzaz, berandu baino lehen bertakotzen dira.

Alabak 8 urte ditu jada eta, herriko haur guztiak bezala, bigarren hezkuntzara iristean Arrasatera joan beharko du, halabeharrez. Beti egin dut hezkuntza publikoaren alde apustu, euskal eskola publikoaren alde, eta alaba bertara joango zela konbentzitu nengoan. Arrasateko lagun gurasoekin eztabaida luzeak izan ditut azkenaldian gai honen inguruan, eta beraien hitzek eta esanek gero eta gehiago gogorarazten didate Gasteizen gertatzen ari den egoera.

Politikariek kentzen dioten garrantzia eman behar genioke guk. Ez da errealitate isolatu bat, ezta hezkuntza komunitatearen arazo propioa. Biharko jendarte ereduaren oinarriak dira jokoan daudenak. Zer ikusi, hura ikasi!

'Musika eta zinea' zikloa martxan da, urriko domeketan

Hirugarren aldia izango du aurten *Musika eta zinea* izeneko zikloak. Urriko domeketan musikarekin lotura estua duten filmak emango dituzte kultura etxean. Lehenengo aurreko domekan izan zen, *Güeros*; hurrengoak dira *Anvil* –hilaren 14an–, *Marley* –21– eta *Honeydripper* –28–. 19:00etan dira emandak guztiak.

Iraganeko haritik tiraka, zientzia eta dibulgazioa

Urriaren 15etik azaroaren 11ra izango diren Zientzia eta Berrikuntza jardunaldien barruan antolatu diren hitzaldi, erakusketa, ikastaro, topaketa eta bestelakoek herriko txoko ezberdinak hartuko dituzte; aurtan, datak aurreratu egin dira, ikasleengatik

Jokin Bereziartua BERGARA

Jakinek da Bergarak zientziarekin eta dibulgazioarekin aspalditik duen lotura. Ilustrazio garaian, XVIII. mendean, Errege seminarioa Espainian zeuden lau unibertsitateetatik bat zen eta gaur egun antolatzen diren Zientzia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiak dira orduko haria eten ez denaren adierazle garbia. "Harro diot berrikuntzan eta dibulgazioan lanean irmo jarraitzen dugula", adierazi du Elena Lete alkateak.

Duela zortzi urte sortutako Informazio eta Komunikazio Teknologiarren (IKT) astearen -2015ean hartu zuen ZTB izen-



Jardunaldien ordezkarietako batzuek Laboratoriumen egin zuten aurkezpena. B.U.

dapena-hasierako helburua zen Debagoieneko enpresen artean berrikuntza teknologikoaren gaineko ezagutza zabaltzea. Hortik abiatu zen, baina ez zen hor geratu; izan ere, ordutik programak handitzen joan dira, eta parte-hartzaileak zein espezializazioak biderkatzen.

Urte urte handitzen doa

Aurtengo programa "oso aberatsa" izango dela aurreratu du alkateak: "Gai oso zabalak eta askotariko diziplinak landuko dira. Urte urte herritarren erantzuna handiagoa da, bai antolakuntzan eta baita parte-hartzeari dagokionez ere; eta gero eta erakunde eta eragile gehiago igo dira itsasontzi honetara".

Hitzaldiak, erakusketak, azoka, formazio ikastaroak, topaketak... askotariko jarduerak izango dira urriaren 15ean hasi eta azaroaren 11n amaituko diren jardunaldietan. "Apaltasunez baina harrotasunez diot emaitzak ikusgarriak direla, eta horren ahaleginean zinez eskertzekoa da bidelagun ditugun hainbat eragile eta erakunde publiko, hezkuntza, ikerkuntza eta bestelako alorreta-

koak", gaineratu du Letek. Herriko eraikin ezberdinetan egingo dira ekitaldiak: Seminarixoa, Laboratorium museoan, Irizar jauregian, Aroztegi aretoan eta Miguel Altuna Lanbide Heziketan, besteak beste.

Ikastetxeen agendei begira

Laboratorium museoko Rosa Errazkinek dio aurtengo jardunaldiak aurreratu egin dituztela ikastetxeetako agendei erreparatuta: "Ikasleen parte-hartzea erraztu gura izan dugu eta espero dugu erantzuna ezin hobea izatea". Beheko taulan ikus daitezkeen egitarauaren barruan bereziki bi ekitaldi nabarmendu ditu Errazkinek: Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendutako emakume zientzialariei buruzko lehiaketa eta Miguel Altuna Lanbide Heziketan egingo den azoka.

Horrez gain, ekimenak sona handiko erakundeak, elkarteak eta taldeak saretzeko duen gaitasuna eta www.ztbergara.eus webgunean jardunaldiek emango dutena "zabal eta argi" kontsultatuzko aukera dagoela ere nabarmendu zuen Errazkinek.

Zientzia eta Berrikuntza jardunaldietako egitaraua

'DESGAITASUNA, BERRIKUNTZA ETA INKLUSIOA: OZTOPORIK GABEKO TRINOMIOA' HITZALDIA
Urriak 15. 19:00. Irizar jauregian. Gaztelaniaz. Publikoa: orokorra. Hizlaria: Edurne Alvarez.

HEZKUNTZA ESKAINTZA
Lehen Hezkuntzako 6. maila:
Emakume zientzialariak ezagutzen? lehiaketa, urriaren 15etik azaroaren 5era. Sari banaketa azaroaren 8an egingo da.

DBHko 2. maila: Tramankulu mekanikoen erakusketa. Urriaren 29an, 30ean, 31n eta azaroaren 5etik 7ra arte, Laboratoriumen.

Batxilergoko 1. maila:
Nanoteknologia: Laborategitik supermerkatu tailerra, urriaren 23tik 26ra. Laboratorium museoan.

'CAN I BECOME A VIDEOGAME CREATOR? VIDEOGAME AS MY BUSINESS' HITZALDIA
Urriak 16. 11:00. Seminarixoa. Ingelesean. Publikoa: Batxilergoko lehen eta bigarren mailetakoko ikasleak. Hizlaria: Steven Longden.

'BIDEO-JOKOEN TEKNOLOGIA, INDUSTRIAN APLIKATUTA' HITZALDIA
Urriak 19. 10:00etatik 14:00etara. Miguel Altuna Lanbide Heziketan. Euskaraz eta gaztelera. Publikoa: Enpresak eta ikastetxeak. Nork: Basque Game Lab.

'GARATU ITZAZU ZURE KOMUNIKAZIO-TREBETASUNAK' IKASTAROA
Urriaren 22an eta 24an. 14:00etatik 16:00etara. Laboratorium museoan. Gaztelera. Publikoa: merkataritza-arloan diharduten profesionalak. Hizlaria: Vicky Valdivielso.

'ARTE GARAIKIDEA BEGIRATZEKO ZIENTZIA' HITZALDIA
Urriak 22. 19:00. Irizar jauregian. Euskaraz. Publikoa: orokorra eta Beart elkarteak. Hizlaria: Deborah Garcia Bello.

'ESPIOI BAT SUPERMERKATUAN' HITZALDIA
Urriak 24. 19:00. Irizar jauregian. Gaztelera. Publikoa: orokorra, eta

kirolaz eta elikaduraz interesatuei bereziki. Hizlaria: Jose Manuel Lopez Nicolas.

'ETAPA BERRI BAT MARTEREN ESPLORAZIOAN. EXOMARS 2020 MISIOA' HITZALDIA
Urriak 26. 19:00. Irizar jauregian. Gaztelera. Publikoa: orokorra.

'HUERTIK HIRI-NEKAZARITZA, HEZKUNTZA-EREMUAN' HITZALDIA
Urriak 29. 10:00. Gaztelaniaz. Publikoa: ikastetxeak. Hizlaria: Ainara Ajuria eta Oscar Rey.

'BERRIKUNTZA JASANGARRIA' HITZALDIA
Urriak 30. 19:00. Aroztegi aretoan. Gaztelera. Publikoa: orokorra. Hizlaria: Edu Uribealago, Astore eta Ternua marken sortzaileetako bat.

'NANOMIK' ERAKUSKETA
Urriaren 30etik azaroaren 5era. Aroztegi aretoan. Euskaraz eta gaztelera. Publikoa: orokorra. Nork: CIC nanogune eta Donostia International Physics Center (DIPC).

'DRAG-E URAREN BILA' FAMILIA ANTZERKIA
Azaroak 4. 18:00. Seminarixoa. Euskaraz. Publikoa: familia giroan gozatzeko. Nork: Logela multimedia.

'ENPRESA INDUSTRIAL BATEK DATUEI BALIO ATERATZEN LAGUNTZEKO' HITZALDIA
Azaroak 5. 11:00. Zabala jatetxean. Gaztelera. Publikoa: negozio-datuen gainean erabaki eraginkorak hartu behar dituzten profesionalak. Hizlaria: Ines Pascual Iglesias, MUKo Ingeniaritza fakultateko irakaslea.

'ESPIOITZA ETA ZORIA WOLFRAMIOAREN ISOLATZEAN' HITZALDIA
Azaroak 6. 11:00. Seminarixoa. Gaztelera. Publikoa: orokorra, Goienagusi eta HHI (EPA). Hizlaria: Pascual Roman Polo.

'KORRIKA EGITEKO KARBONUZUNTZEKO PROTESI BATEN GARAPENA' HITZALDIA
Azaroak 8. 19:00. Aroztegi aretoan. Euskaraz. Publikoa: kirolariak eta osasun arloan

dihardutenak. Hizlaria: Miren Canellada eta Jon Artola.

'WOLFRAM DEUNA: UMOREZKO BAKARRIZKETA ZIENTIFIKOAK'
Azaroak 7. 19:30. Seminarixoa. Euskaraz. Publikoa: orokorra. Nork: Elhuyar fundazioa.

WOLFRAM ENCOUNTERRA
Azaroaren 10etik 11ra. Egun osoan zehar. Aranzadi ikastolako aretoan.

'ENERGIAREN DEMOKRATIZAZIOA ERALDAKETA ENERGETIKOAREN BIDEZ' HITZALDIA
Azaroak 9. 19:00. Aroztegi aretoan. Euskaraz. Publikoa: orokorra eta energiaren arloan diharduten erakundeak zein enpresak. Hizlaria: Oier Bolibar.

'BERGARAN ARTEA ETA ZIENTZIA UZTARTUZ' FORMAZIO IKASTAROA
Azaroaren 10etik eta 11ra. 09:30etik 13:00etara. Laboratorium museoan. Euskaraz eta gaztelera. Publikoa: orokorra eta Beart elkarteak artistak. 30 lagunendako lekua egongo da.



Lau ume heldu bati errekatik zikinkeriaz betetako poltsa bat ateratzeko laguntzen, joan den zapatuan, Labegaraietan. LARRAIZ ZEBERIO

Erreka familia giroan eta auzolanean garbitu dute

laz baino herritar gutxiago elkartu ziren zapatuan Elorregitik Amillagarainoko erreka zatia auzolanean garbitzeko, eta, batu zen zikinkeria artean, plastikoa izan zen nagusi: "Landaretza handi zegoen eta zailagoa izan da hondakinak aurkitzea, baina bazegoen"

Jokin Bereziartua BERGARA

Deba ibaiaren egoerak nabarmen hobera egin badu ere, oraindik ere zikinkeria askotxo aurkitu daiteke, Bergaratik pasatzen den tartean, behintzat. Hori frogatuta geratu zen, beste behin, joan den zapatuko Erreka Egunean. Lauzprobost laguneko bederatzi talde aritu ziren garbiketa lanetan,

08:00etan hasita. "Antolatzaileekin ere berba eginda ez dakigu esaten zergatik agertu zen beste urte batzuetan baino jende gutxiago. Bezperan Maritxu Kajoi izan zen Arrasaten, eta, akaso, horrek eragingo zuen? Ez dakigu. Nire iritzia da, baina esango nuke familia asko ikusi nituela, eta kuadrilla gutxi. Gazteen kuadri-

llak igarri nituen faltan. Hori bai, betikoek ez zuten hutsik egin", dio Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik.

Zail ikusteko, baina kaka badago

Aurten, Elorregitik Amillagarainoko tartea aritu dira garbitzen. Horrez gain, zikinkeria aurkitzea zailagoa izan da: "Landaretza

handi dago aurten eta zaila izan zen zenbait eremutara iristea, baina hondakina beti ateratzen da. Ikusten ez bada ere, zikinkeria askotxo dago estalita. Hori bai, urtez urte, geroago eta gutxiago da jasotzen dena; batzuek, oraindik, ez dute ingurumena errespetatzen, baina, oro har, gero eta garbiago dago".

Txikitatik sentsibilizatzen hasi

Labegaraieta inguruan, auzoko bertako bizilagun talde bat aritu zen lanean. Bizpahiru familia, gurasoak eta seme-alabak tarteko. "Kotoi asko atera dugu. Lurra apur bat harrotu eta berehala ateratzen da. Seme-alabekin etorri gara. Uste dugu garrantzitsua dela ingurua zaindu behar dela ikastea", zioen gurasoetako batek. Kotoia aspaldiko zikinkeria da, eta erreka ekosistemaren inte-

gratuta dagoela esan daiteke: "Sustrai eta harri artean dago eta ez da batere erraza ateratzea; denborak egingo du bere lana eta pixkanaka desegiten joango da", deritzo Arregik. Hain justu, Labegaraieta inguru horretan, zubi azpiko eremu txiki baten, sei bat poltsa bete zituzten familiek. Zikinkeria poltsetan jaso eta horiek Udalak ipinitako kamioira eraman zituzten.

Arregik bereziki eskertu gura izan ditu erreka garbitzera irten ziren herritarrek: "Sekulako lana egin zuten".

AURTEN, GAZTETXO GUTXIAGOK ETA FAMILIA GEHIAGOK HARTU DUTE PARTE ERREKA EGUNEAN

GORA ETA BEHERA



Ozaeta auzoko markesina berriarekin, pozik

Ozaeta auzoan jarri duten markesina berria txalotu gura izan du herritar batek: "Beharrezkoa ikusten genuen markesina berria, erabiltzaileok pozik gaude. Autobusari eserita itxaroteko aukera dugu orain eta eserleku bat zutikakoa da, gainera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



GOIENA

Egun osorako plana bihar, Elosuko mendi ganadu ferian

Ametz Arzallus eta Julio Soto bertsolarien saioaz gain, Agerre baserriko txahala dastatzeko aukera egongo da

J.B. BERGARA

Elosuko 40. mendi ganadu feriaz gozatu ahalko da bihar egun osoan. "Ametz Arzallus eta Julio Soto bertsolariak izango ditugu aurten, eta, horrez gain, auzoko Agerre baserriko txahala erreko dugu Elosuko ikatzarekin. Iaz hasi ginen txahala bertakoa izateko kontuarekin; iazkoa Bentaoste baserrikoa izan zen. Horrez gain, txikienek zaldian muntatzeko aukera izango dute, Bentako zalditegiaren eskutik", adierazi du Iñigo Zubeldia auzo alkateak.

Autobusa Burdinatetik

09:00etan hasiko da feria, eta, hortik aurrera, egun osorako plana izango dute: 11:00etatik 14:00etara umeendako puzgarriak; frontoian, bertsolarien saioa (12:30) eta ondoren Laja II eta Lutxurdio trikitilariak; bazkalostean, bertsolariak (16:00); eta, ondoren, 900 kiloko harriarekin zaldi proba (17:30) eta erromeria. Autobus zerbitzua egongo da egun osoan Burdinatetik. Bestalde, antolatzaileek ez dituzte euren gain hartuko egunean zehar gerta daitezkeen ezbeharrak.

"Batu ezin izan garenok batzeko unea da orain"

Orain Presoak dinamika urriaren 20rako Donostian antolatu duen manifestazioan parte hartzeko dei egin dute "sentsibilitate anitzeko" pertsonak: "Urteetan sortutako arrakalak elkarrekin sendatzeko unea da; orain presoan auzia konpontzeko garaia da"

Jokin Bereziartua BERGARA

Herriko Gure Artera eta Sare ekimenek dei egiten duten Orain Presoak dinamika urriaren 20rako Donostian antolatu duen manifestazioan parte hartzeko. Urriaren 20koa "herri honetan inoiz egin den mobilizaziorik handiena" bilakatzea gura dute antolatzaileek. Martitzenean egindako agerraldian "eremu askotako eta sentsibilitate anitzeko" pertsonak biltzea lortu zutela diote. "Guztion artean espetxeak husteko ibilbide-orri bat egin behar dugu. Guztion agenda politiko zein sozialetan sartu behar dugun aldarrikapen bat da. Herritar guztion bihotzetan sartuko den aldarria izatea nahi du".

Etorbizunari begira jarri gura dute: "Eta horretarako, iraganetik datozen oinaze eta min guztiak sendatzea ezinbestekoa da. Bide honetan izan diren eta diren biktima guztiak merezi dute egia, memoria eta erreparazioa. Norabide horretan sakondu behar dugu. Herritar gisa, guztioi dagokigu ardura hau gure egitea, guztiok merezi baitugu elkarbizitzan eta bakean oinarritutako jendarte batean bizitzea. Zuekin kontatu nahi dugu puntualki zenbait ekimen egiteko. Bidean elkartuko gara".

Espetxe politika aldatzea

Maiatzaren 4an Kanbon bizi izan zen ETaren desagerpenerako "egun historikoaren" ostean, "oraindik ere" 269 euskal preso euren senideengandik ehunka kilometrotara daudela salatu zuten agerraldian: "Espetxean dauden pertsona hauek euren eskubideen jabe izan arren, oraindik ere salbuespen-neurriak ezartzen zaizkie, Espainiako zein Europako legedien aurka doazena, eta, presoak ez ezik, senideak, bereziki haurrek eta adin nagusiko pertsonak ere zigortzen dituztenak". "Bakean eta adiski-



Pili Garciak eta Aitor Arantzabalek egin zuten berba, hainbat herritarrekin atzean. T.M.

Lau lehentasun zehaztu dituzte

Martitzen iluntzeko agerraldian nabarmendu zuten, lau dira bereziki "lehenbailehen" konpondu beharreko lehentasunak. Lehena, diotenez, urruntzea da: "Asteburu guztietan ehunka senide ehunka kilometro egitera behartzen ditu". Bigarrenik, larriki gaixo dauden presoak askatzea eskatzen dute: "Egun gutxiko bizia geratu aurretik, gaixorik dauden presoek behar bezala artatzeko eskubidea dute, hemen eta orain". Hirugarrenik, "Europako legediak dioen moduan", bi estatuetako zigorren batuketaren aplikazioa eskatzen dute eta, azkenik, lehen graduen aldaketa ezinbestekotzat jotzen dute: "Euskal presoek lehen graduan betetzen dute zigorraren %100, eta hori legearen kontra doa".

detuta" bizi den jendarte aldarrikatu zuten Gure Arterak eta Sarek eta adiskidetzeko prozesu "konplexu bezain beharrezko" moduan ulertzen dute.

Hori guztia lortzeko, diotenez, "ezinbestekoa" izango da espetxe politika aldatzea: "Espetxe-politika hau iraganean kateatuta dago eta ez-ohiko lege batean oinarritzen da. Etorbizunera begira jartzeko garaia da. Gure ondorengoentzat guri aurrekoek utzi zigutena baino etorkizun hobeak eraikitzeak aukera dugu. ETA desagertu den honetan, ez

dugu sufrimendu gehiago sortzen duen politikarik nahi". Batasunerako deia ere egin dute: "Urteetan sortutako jendarte-arrakalak elkarrekin sendatzeko unea da. Orain. Batu ezin izan garenok batzeko garaia da. Orain, presoan auzia konpontzeko unea da".

Autobuserako txartelak

Lau tokitan erosi ahal izango dira autobuserako txartelak: Osintxun, Pol-Pol eta Arrano tabernetan eta Konde Panaderokuan. Autobusa Ibargaraiko geltokitik irtengo da, 15:30ean.



BERGARAKO UDALA

Gazte alemaniarren bisita asteon

15 eta 18 urte arteko Wiesbaden (Alemania) hiriko hamabi gazte eta begirale Bergaran izan dira, Erasmus + programari esker. Elkartrukea izanik, irailaren 3tik 9ra bergararrak egon ziren Alemanian. Euskal Herriko txoko ezberdinak bisitatu dituzte eta Bergaran, Candem Town dantza taldekoekin eta Beart elkartekoekin egon dira, besteak beste.

Ekitaldiz josita dator San Joxepe elkartean Kultura Astea

Gaur hasita, hitzaldiak, antzerkia, abesbatzen emanaldiak eta egun osoko irteera bat izango dituzte, besteak beste

J.B. BERGARA

San Joxepe erretiratu elkarteak urtero antolatzen duen Kultura Astea gaur hasi eta hilaren 20an bukatuko da. Ekitaldi interesgarriak izango dira: gaur, Jon Molina parrokoak hitzaldia eskainiko du elkartean goizetan (17:30); hilaren 15ean, Aranzadi elkarteko Jose Antonio Aperribaik landareen gaineko hitzaldia emango du San Joxeperen egoitzako erabilera askotariko aretoan (19:00); hilaren 16an, Gipuzkoako ONCeren Oroimenak antzerki

taldeak *La Fiesta de la Madonna* obra taularatuko du Seminarixoan (17:00); hilaren 17an, Aretxabaleko koruarekin batera abestuko dute San Joxepekoek Seminarixoan (19:30); hilaren 18an, Pasaiara irteera egingo dute, besteak beste, Albaola bisitatu eta San Juanen bazkalduta; hilaren 19an, Joxe Mari Larrañagak herriko historiaren gaineko saioa eskainiko du udaletxeko osoko bilkuren aretoan (19:00); eta, bukatzeko, hilaren 20an, bazkaria eta opari banaketa egingo dute egoitzan bertan (14:00).

EUSKARALDIA

Ainhoa Lasa hilaren 17an eta enprekin bilera hilaren 18an

Atzoko Kike Amonarrizzen hitzaldiaren ostean, urriaren 17an Emuneko teknikari Ainhoa Lasak hartuko du lekukoa; Irizar jauregiko Euskaldun Berriaren aretoan izango da, 19:00etan. Lasaren saioaren izenburua izango da *Non jarri behar dugu arreta euskaraz gehiago egin ahal izateko?* Bestalde, Euskaraldia batzordeak bi bilera informatibo egin ditu dagoeneko enpresei begira eta orain hirugarren bat antolatu dute. Saio horretan ekimenaren sustatzaile izatea proposatuko zaie. Bileraren 18an izango da, Irizar jauregian (12:00). Antolatzaileek eskatu dute aurrez izena ematea, urriaren 17rako: bergaraeuskaraldia@gmail.com edo 605 71 24 69.



Julen Aranburu eta Reyes Azkoitia frontoian; egungo eta betiko zuzendaritzaren arteko eskualdatzearen isla dira. JOKIN BEREZIARTUA

Eskualdatzea pilotan, elkarrekiko miresmenetik

Iraila ezkerreko erreleboa hartuta dio Julen Aranburu arduradun duen taldeak Reyes Azkoitiarenari; Azkoitiak argi dauka pilota saila "oso esku onetan" lagatzen dutela; Aranburuk dio Bergarako pilota osasuntsu egoteko Azkoitiaren figura "ezinbestekoa" izan dela

Jokin Bereziartua BERGARA

"Oso aberatsa izan da. Kirol mailan ez dugu nahi besteko lorpenik izan, baina hemen [udal pilotalekuan] bizi izandakoak ez ditut ahaztuko. Oso pozik noa". Umiltasunez jositako hitz horiek ditu Reyes Azkoitiak Bergarako pilota saileko zuzendaritzan egin dituen azken 30 urteak laburtzeko. Oso pozik doa Azkoitia, eta pilota saila "esku oso onetan" lagatzen duela sinistuta: "Oso harro goaz, guztiak dira gurekin pilotan aritutakoak. Ziur gu baino hobeto egingo dutela".

Pilotari lotuta betiko

Lorpenen artean, 2009ko Herriarteko Txapelketa irabazi izana nabarmendu du Azkoitiak: "Taldea moduan poz handien eragin zigan txapela izan zen. Zaila da orduan sentitu genuena azaltzea, hura bizi egin behar zen. Mutil guztiak pozez zorutzen, zaleak ere bai... Askotan akordatzen naiz autobusetik plaza-rainoko bidea ez zaidala sekula



Bergara txapelkun, 2009an; tartean, Beñat Rezusta eta Reyes Azkoitia. GOIENA

Herriartekoa, "lorpenik handiena"

Azkoitiaren arabera, 2009an irabazitako Herriarteko Txapelketa izan da talde moduan pilota sailak azken 30 urteetan egin duen "lorpenik handiena". Horrez gain, gaur egun Beñat Rezusta profesionalean erreferente izatea "oso garrantzitsua" dela uste du.

Pilotari ohiak talde berrian

Zuzendaritza berria pilotari ohiekin dago osatuta. Julen Aranbururekin batera, Iker Muruamendiaraz, Aitor Muruamendiaraz, Ander Muruamendiaraz, Eloy Crespo, Jon Larrañaga, Beñat Iñarra, Aritz Rezusta, Gorka Irizar, Aitor Oregi eta Mikel Gallastegi dira gaur egungo kideak. Urtarrilean hasi ziren kudeaketa kontuez arduratzen, eta, iraila ezkerreko, gazteena da ardura osoa. "Bergaran pilotak badu etorkizuna", uste du Reyes Azkoitiak.

horren luzea egin, ezta plazatik Elosurainoko bidea ere! Jendearen txalo artean pasatzeak izugarri lotsarazi ninduen, eta gero udaletxeko balkoira irtetea... Itzela izan zen". Bere bizitzan beste fase bat irekiko da orain, baina ez dio frontoira joateari lagako: "Lagunak kafea hartzetik etxera doazenean frontoitik pasatzeko ohitura daukat. Hori bai, orain, ordutegi barik".

Beñat Rezustaren "konpromisoa"

Talde berriko Julen Aranburuk hitz politak besterik ez du arrekoekiko: "Oso gustura ibili gara haiekin. Talde giroa eta beste balio garrantzitsu batzuk mantentzeko egin dute lan, eta helburua lortu dute. Pilota osasuntsu badago, Reyesen figura klabea izan delako da, eta baita gaur egun Beñat [Rezusta] profesionalean dagoelako ere. Entrenamendu batzuetara etortzen da edo sariak banatzen ere aritzen da; bere konpromisoa txalotzekoa da". Federatu aurreko mailetan 100 bat neska-mutiko dabilta eta federatu mailetan 30 bat dira. "Federatu mailetan tarteka arazoak izaten ditugu, gaztetxoek beste kirol batzuk aukeratzen dituztelako, baina oso pozik gaude dugun pilotari kopuruarekin".

Zubia dela-eta asteburu honean partidua bakarrik jokatu du Bergarak, Oreretako Eple taldearen aurka. Ander Murua eta Eneko Muguruza arituko dira lehian Oreretako bikotearen aurka; gaur, 21:00etan hasita.

Angiozarko, Osintxuko eta herriko ludotekak, ekintzaz lepo urrian

Angiozarren, eskumuturrekoak -urriak 18- eta ipuinak -urriak 26- izango dira protagonista. Osintxun, urriaren 19an mada-lenak egingo dituzte; 23an, kamisetak margotuko dituzte; eta 31 Arimen Eguna izango da. Erdigunean, urriaren 15ean opiltxo amerikarrak egingo dituzte; hilaren 24an, ipuinak; eta 30ean, kaniken zirkuitua egingo da.

Umeendako 'Kaput' antzezlan domekan, Seminarixoa (12:00)

Familian gozatzeko plana eskainiko du Udaleko Kultura Zerbitzuak domeka eguerdian. Izan ere, Ganso & Cia taldeak 5 urte-tik aurrerako umeendako *Kaput* antzezlan taularatuko du Seminarixoa; Gorka Ganso eta Txefo Rodriguez aktoreak ditu protagonista eta auto baten bueltako gorabeherak kontatzen dira. Sarrera lau euro da.

OHARRAK

1939an jaiotakoak

Azaroaren 3an Zumelagan bazkalduko dute. Izena eman behar da urriaren 27a baino lehen. Izena emateko: Eulalia Elgarresta (943 76 24 79) edo Rosarito Garitano (943 76 13 30).

Juanjo Alvarezen saioa

Goienagusiren eskutik, Juanjo Alvarezek hitzaldia emango du urriaren 15ean Seminarixoa (10:00): *Entre Luxemburgo y Estrasburgo. Dos tribunales internacionales en la Europa de los derechos.*

Beart: sormena landu

Beart taldea sortu guran dabil sormen artistikoa lantzeko ikastaro baterako, Amaia Santamaria irakaslearekin. Izena emateko: 690 25 14 50 edo beart.elkartea@gmail.com.

Ereindajan

Bihar, urriak 12, Joan XIII.a plazan dagoen Ereindajan denda-topagunearen atean "zabal-zabalik" egongo dira: "Ez dugu zer ospatu", diote.

Hirugarren adin aktiboa aldarrikatzeko ibilbideak

Herri Lagunkoia ekimenaren baitan, antzularrek aurrera eramandako 'Ibilbide osasungarriak' programak aitortza jaso du; izan ere, Eusko Jaurlaritzak hirugarren adin aktiboaren eta osasuntsuaren alde egindako lana saritu du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herriko mugikortasuna, oztoko arkitektonikoen identifikazioa, herritarrendako erosoagoa eta atseginagoa den herria sustatzea... dagoeneko lau urte daratza herritar talde batek Antzuola hobe baten alde lanean. Eta orain, Eusko Jaurlaritzak aitortza eman dio iaz abian jarri zuten *Ibilbide osasungarriak* ekimenari.

Hirugarren adin aktiboa defendatzen eta aldarrikatzen dute Landatxope elkarte kideek, Udalak eta Herri Lagunkoia ekimeneko bultzatzaileak. "Oso pozik gaude aitortzarekin. Baina sari horrek ibilbide luzea dauka. 2014a ezker gabilta Herri Lagunkoia ekimenarekin lanean", azaldu du Landatxopeko kide Kontxi Elortzak.

"Orain dela hiru urte *Herri aktiboak* ekimenaren bitartez ezagutu genuen Ermua Mugi. Eredu hori egokitu, eta Antzuolara ekartzea erabaki genuen". Eta halaxe jaio zen *Ibilbide osasungarriak* ekimena Antzuolan. "Osasun publikoko langileen, Udalaren eta herriko erretiratuen laguntzarekin aurrera atera dugu proiektua. Guztion artean adostu ditugu ibilbideen xehetasunak: luzera, iraupena... Udalak hainbat gune txukuntzen asko lagundu digu", azaldu du Elortzak.

Harremanak estutuz

Eguenero 10:15ean elkartzen dira Torresoroa aurrean. "Komisioko taldeak du ardura jendea animatu eta ibilbideen berri emateko. Osasuna zaintzea bai, baina, harremanak egitea ere bada ibilbide hauen helburua".

Etxean geldi dagoena ere kalera atera gura dutela aitortu dute: "Nekeza da etxean dagoena erakartzea. Baina eguenero gure aktibotasuna azaleratzen saiatzen gara", argitu du Juan Joxe Errotak, komisioko kideak.



Ibilbide osasungarria ekimena bultzatu duten batzuk. AITOR AGIRIANO

HERRIAN BARRENA IGAROTZEN DIREN HIRU IBILBIDE EZBERDIN EGITEKO AUKERA DAGO

Hiru ibilbide

Lehen ibilbidea edozeinek lasai-lasai egiteko modukoa dela diote komisioko kideek: "770 pauso eta 600 metrokoa da; zazpi minutuan egiteko modukoa, eta ibilbide luza da, gainera, erraza".

Bigarrena herrian barrena egiteko ibilbidea da: "4.550 pausoko ibilbidea da eta 3,5 kilometro ditu. 45 minutuan egiteko da".

Hirugarrena, berriz, luzeagoa da eta aldaparen bat edo beste ditu: "Torresoroatik abiatu eta ur-parkeko buelta egin ostean Matz-Errekaraino doana. Han buelta hartu eta San Joxepetik Aranburuko bidegurutzeraino. Gero, plazara, Ondarrera eta Ibarrodora. Bukaera Torresoroan. 4,5 kilometro ditu eta 5.900 pauso. 65 minutuan egiteko modukoa da".



JUAN JOXE ERROTA
KOMISIOKO KIDEA

"Adin tarte eta pentsaera askotarikoak batzen gara. Kallean normalean elkartzen ez garenak. Elkarrizketa interesgarriak izaten ditugu".



KONTXI ELORTZA
LANDATXOPEKO KIDEA

"*Ibilbide osasungarriak* ekimena hirugarren geratu da 38 proiekturen artean. Euskadi Lagunkoia erabilera egokia txalotu gura izan du".



Joan den egunean egin zuten aurkezpenaren unea. 'ANTZUOLA EITTEN'

Lehenetsi dituzte 2018-2021 artean egin beharrekoak

'Antzuola eitten' prozesuak herritarrekin adostutako ekintza plana oso-osorik aurkeztu dute Olanaren

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzularrek erabaki dute nolako Antzuola gura duten eta noiz. Lehenetsiak jarri dituzte 2018 eta 2021 urteen artean egiteko. Aurrerantzean, Udalak lan egiteko herritarren hitza helduleku izango du gainera.

Ekonomia eta ingurumena

Arlo honetan herrian dauden baliabide naturalen ustiaketa aukeren inguruan diagnosis egitea lehenetsi dute herritarrek. Eraikinetan eguzki energiaren berotzeko sistema ezartzea eskatu dute. Hondakin gutxiago sortzeko neurriak hartzearen eta *zero zabor* filosofian sakontzeko nahia ere erakutsi dute.

Pertsonen garapena

Eskolako eredu pedagogikoa mantendu eta hobetzeko, hezkuntza eragileekin proiektu zehatza lantzea gura du herriak.

Bizikidetzak

Etorri berrien seme-alabak dinamika ezberdinetik kanpo gera ez daitezkeen neurriak hartzearen beharra jaso dute arlo honetan, besteak beste.

Zerbitzu soziala

Herrian dauden etxe zahar eta hutsen inguruko diagnostikoa egiteko beharra jaso dute. Osasun zerbitzuaren azterketa egitea ere lehenetsi dute herritarrek. Hala, Antzuolak dituen beharretara egokitu dadin osasun zerbitzua.

Herri kudeaketa

Emakumeen ahalduntzea lantzeko espazio bat sortzea, eskalatzeko gunea izatea, gimnasio irekitzea eta Ibarrodora atzeko erreka bainatzeko egokitzeko aztertu dute, beste beste.

Ekintza plana *Antzuola.eus* webgunean dago osorik.

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

LED sistemarekin argi hobe eta merkeagoa

Argiteria publikoa LED sistemara egokitzeko lanek hainbat aukera berri zabaldu dituzte. Kontsumo energetikoa %70 gutxituko dela aurreikusten du Udalak eta Bolatokiko kantxa gauzez argiztatzeko sistema martxan da

Larraitz Zeberio ELGETA

Bi fasetan egin ditu lanak Udalak. Orain dela bi urte, 160 argi puntu ordezkatu zituen eta aurtentzen, 172. Sodio lurrinezko argiak LED sistemara egokitu dituzte. "Udalarena den argiteria publiko ia guztia egokitu dugu. Agintaldi hasieran, lauzpabost farol ziren eta orain, 330 bat argi puntu daude LED sistematan", azaldu du Iraitz Lazkanok.

Bigarren faseko lanak abuztuan hasi ziren eta Leycolan enpresak egin ditu. 55.000 euroko inbertsioa izan da, BEZa kanpo. Proiektuaren %20 finantzatu du EVE erakundeak. Udalak aurreikusten du 98.842 kWh aurrezte eta urtean 36.260 kilo CO2 gutxiago isurtzea. Kontsumo energetikoaren %70 inguru gutxituko dela kalkulatu dute. Kontsumo ekonomikoari dagokionez, zailagoa da zenbakiak egitea; izan ere, energiaren prezio aldaketek eragin handia izango dute.

Argiztapen hobe

Aurrezpen faktorearekin batera, alkateak nabarmentzen du sistema aldaketak eragina izango duela argiztapenaren kalitatean. "Aurrerantzean, farol guztiak egongo dira piztuta. Hau da, ez da lehen egiten zen moduan farol bat piztuta eta hurrengo itzalita egongo. Ilunpeko 50 metroko tartek ere ez dira egongo", esan du. "Farolek argia emango dute gauzez, nahiz eta intentsitate txikiagoan izan. Hala, aurrezpen energetikoa eta ekonomikoa izango ditugu, eta argi kalitate hobe".

Industrialdeko gune batzuetan gertatzen zen egoerari egiten dio erreferentzia Iraitz Lazkanok. "Tarte batzuetan jarraian zeuden lau farol egoten ziren itzalita. Garbi ikusten genuen hori arazo iturri izan zitekeela; izan ere, argi faltagatik bateren batekin min har zezakeen".



Kantxa argiztatzeko farol berriak eta pizteko botoia, Bolatokian. L.Z.

ORAIN DELA BI URTE, 160 ARGI PUNTU ORDEZKATU ZITUZTEN ETA AURTEN, 172

Alkateak azaldu du lanak esleitzeko baldintza orriak idazterakoan lehenetsuneko irizpidea izan dela legeak ezarritako *lum* kopurua betetzea. "Taula batzuk egin ditugu, non zein argi kopuru bete behar den jasotzen zen. Bigarren mailakoak izan dira prezioa eta bestelako lizitazio puntuak".

Kantxa, gauzez erabilgarri

Sistema aldatzearekin batera hainbat hobekuntza egin dira herriko argiteria publikoan. Horietako bat da aurrerantzean gauzez kantxa argiztatzeko aukera izango dela. "Lehen, kiroldegien eta kantxaren arteko parketxoan lau farol zeuden. Orain, poste handiagoak ipini ditugu eta lau proiektore ipini ditugu kantxa gauzez argitzeko. Bolatoki aldera, berriz, hiru proiektore txiki ipini ditugu".

Alkateak jakinarazi du Bolatoki tabernaren ate ondoko farolean dagoela argia pizteko pulsadore. "Gaua denean piztuko dira argiak, eta ordubete tartean egongo dira martxan".

Bolatokian dagoen umeen parkea argitzeko proiektorea orain dela bi urte ipini zuten.

Hilerrri ondoko bidea, zabalik

Hamar bat hilabetez itxita egon ostean, zabalik da atzera ere hilerrri ondoko oinezkoendako bidea. Kanposantuko horma bat jausten zegoelako itxi zuten, eta lanak amaitu ostean ireki dute berriz. "Horma erortzen zihon poliki-poliki eta jausteko arriskua ikusten genuen. Azaroa ezkeron egon da habetuta. Neguan zehar ezin izan dugu lanik egin. Gerora, hormigoizko horma bat egin dugu eta lehenagoko harriekin estali dugu kanpotik", azaldu du Iraitz Lazkanok.

Astelehenean kaleratuko dute literatura ginkanako lehen proba

Liburutegiak hainbat ekintza antolatu ditu urrirako; tartean, hilaren 19an egitekoa den 'Yoga ipuinak' saioa

L.Z. ELGETA

Literatura ginkanarekin emango diote hasiera urriaren 24an ospatzen den Liburutegiaren Egunaren bueltan antolatutako ekintza sortari. Astelehenean, hilak 15, kaleratuko du liburutegiak ginkanako lehen proba. Hainbat izango dira hilaren 24ra bitartean, eta puntu gehien lortzen dituen parte-hartzaileak liburu dendan erabiltzeko 60 euroko erosketa-bonua irabaziko du. Ginkana liburutegiko erabiltzaile diren eta 2010. urtetik aurrera jaiotako elgetar

guztiei dago zabalik. Lau proba izango dira eta liburutegian, liburutegiko blogean zein liburutegiko sare sozialetan egongo dira eskuragarri.

Yoga ipuinak

Berria izango da aurtentzen 5 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako *Yoga ipuinak* izeneko saioa. Geaxi Ezpeletak eta Alazne Azkaratek egingo dute. Batak ipuinak kontatuko ditu eta besteak yoga ariketak gidatuko ditu. Urriaren 19an egingo dute, 17:00etan.

Familian egiteko mendi irteera domekan, Amezketara

Kantsatzeke mendi taldeak adingabekoekin egiteko moduko mendi irteera antolatu du domekarako, hilak 14. Taldea 08:30ean elkartuko da herriko plazan. Autoetan egingo dute Amezketarainoko bidea. Bertatik, Buruntzuzin meategietara doan bideetako bat hartuko dute. Eguraldi txarragatik maiztean bertan behera geldituko

irteera bera da. Parte hartzera animatu dituzte herritarrak. Adingabeek guraso edo nagusi baten ardurapean egin beharko dute irteera, eta antolatzaileek eskatzen dute, beranduenez, gaur, eguena, emateko izena udaletxean, kantsatzeke@gmail.com helbide elektronikoan edo Facebook —*Kantsatzeke*— bitartez. Prezioa 6 euro da eta adingabeen kasuan, 4 euro. Parte-hartzaileek kontuan hartu behar dute buelta 16:00 edo 17:00 aldera izango dela.

Hurrengo asteburuan hasiko da 4 t'erdiko pilota txapelketa

Gizonezkoetan, hamahiru bikotek eman dute izena, eta antolatzaileek prest dute zazpi jardunaldiko egutegia. Lehenengo hurrengo barikuan izango da, hilaren 19an. Pilotalekua, beraz, hartuta egongo da.

30 parte-hartzaile izango ditu, aurtentzen, gizonezkoen 4 t'erdiko pilota txapelketak. Sei bikote ariko dira 40 urtetik gorakoetan eta beste sei, 40 urtetik azpikoetan. Urtero moduan, finalak Urtezahar egunean jokatuko dira.

Emakumezkoen txapelketa antolatzeko saiakera ere egin dute, baina, oraingoz, ez dago nahikoa pilotaririk. Lehiakide gehiago behar dira txapelketa jokatzeko.

OHARRAK

Ate irekiak ludotekan

Zerbitzua ezagutzera emateko ate irekiak egingo dituzte hilaren 11n, 16an eta 19an, 16:00etatik 19:00etara.

Auzolana Egoarbitzan

Urtero moduan, udal lur saila garbitzeko auzolan deialdia egin du Udalak urriaren 12rako. Taldea 08:30ean elkartuko da herriko plazan.

Zozketa: Euskaraldia

Euskaraldia batzordearen zozketan saritutako zenbakiak dira: 34, 110, 174, 193, 377, 537, 633, 759, 807, 835 eta 914. Epea aurkezteko hilaren 28an amaitzen da. Ordezko sarituak dira: 30, 40, 106, 145, 269, 327, 487, 814, 820, 908 eta 920.



Maider Zaldibar, Onintza Andres, Lourdes Idoiaga eta Nerea Zubia, eskuorriak postontzian sartzten. AMAIA ZABALA

Herritarrek bozkatzeko fasean daude ekarpenak

Partaidetzako aurrekontuen barruan, herritarrek egindako 38 proposamen pasa dira bozketa fasera eta epea zabalik dago botoa emateko. Eserlekuak jartzea, bidegorriak babestea eta hutsik dauden pabiloien erabilera aztertzea dira aukeretako batzuk

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko 2019-2020 udal aurrekontuetan zertan inbertitu erabakitze bozketa fasea zabalik da dagoeneko. Herritarren parte hartze prozesua maiatzean jarri zen martxan eta Udalak 376 inbertsio proposamen jaso zituen. Behin hauen hausnarketa prozesua egin eta bidera-garritasunak landu ondoren, Oñatiko Udalak horietatik 38 aukeratu ditu.

Adibideak

Aukera horien artean, hiruzpalau multzotan sartzen dira ekarpen gehienak. "38 proposamen horietako asko dira bide segurtasunarekin, oinezkoekin eta bidegorriekin lotuta daudenak, adibidez. Beste asko dira ekipamenduarekin lotura dutenak, izan daitezke eserlekuak eskatzeko edo rokodromo txiki baten nahia, esaterako. Eta beste hainbat daude aisialdiari eta kirolari lotutakoak", adierazi du Partaidetzako udal tek-

nikariak, Onintza Andresek, eguzten goizean egindako prentsaurrekoan.

Aukeren artean daude, adibidez: San Martingo eta Ugarkaldeko jolas parkeak estaltzea, errepide ertzetik doazen bidegorriak hesi batekin babestea, Lezesarri auzoan oinezkoendako bidea egokitzea, Olakuako kirol kantxa hobetzea, komun publikoak jartzea eta industria-pabiloi hutsen erabilera aztertzea.

Hamar

Orain, herritarrei dagokie 38 proposamen horien artean euren gustukoena aukeratzea eta horren aldeko botoa ematea. Guztira, hamar proiektuen aldeko botoa eman dezake herritar bakoitzak.

UDAL ZERBITZUETAN DAUDE ESKUORRIAK SARTZEKO ONTZIAK; INTERNET BIDEZ ERE BOZKATU DAITEKE

"2019ko eta 2020ko aurrekontuetan txertatuko dira herritarrek aukeratzen dituzten proposamen horiek. Bozka emateko bete behar diren baldintzak bi dira: Oñatin erroldatuta egotea eta 16 urte baino gehiago edukitzea", esan du Aztiker enpresako Maider Zaldibarrek.

Bideak

Bozketa fasea urriaren 31ra bitarte egongo da zabalik eta oñatitarrek bozkatzeko bi modu izango dituzte aukeran: Udalak herrian banatu dituen eskuorrien bitartez edo udal webgunean sartuta. "Eskuorrien bitartez eginez gero, bertan markatu behar dira proposamenak, eta eskuorri hori postontzietan sartu behar da. Postontzi horiek daude udaletxean, kiroldegian, Eltzian, kultura etxean, gizarte zerbitzuetan, Pake Lekun eta gaztelekuan", argitu du Zaldibarrek.

Azaroaren 9an, emaitzen aurkezpen publikoa egingo dute.

Herriko iturrien mapa egin dute, eta 'selfie' lehiaketa bat antolatu

Plastikozko botila ur gutxiago kontsumitzeko mezua izango da ardatzetako bat Uraren Astea barruan

O.E. OÑATI

Uraren Astea egingo dute datorren astean Oñatin, eta plastikozko botiletako ura beharrezko iturrietako ura edateko mezua zabaldu gura du Oñatiko Udalak. Helburu horrekin, *Edan iturriko ura* izeneko *selfie* lehiaketa antolatu du. "Herriko iturrien batean *selfie*-a atera eta argazkia posta elektronikoz bidaltzea da eskatzen dena. Parte hartzen duten guztien artean kantineplorak banatuko ditugu", azaldu du Irati Etxeberria zinegotziak. Kantineplorak zuriak dira eta

herriko plano baten irudia dute. Plano horretan, Kasablankatik Ugarkalderaino dauden iturriak agertzen dira, urdinez; 36 iturri, guztira.

Oñatiko eta Gipuzkoako anfibioen eta narrastien gaineko lana ere Uraren Astearen barruan aurkeztuko du ingurumen beka lortu zuen Jon Garinek, eguztenez. Zapatuan, anfibioendako putzua egingo dute, auzolanean, Olapoton, eta domekan, erreka garbiketa. Arantzazu errekaaren paisaia planaren bigarren saioa martitzenean izango da.

Euskaraldiaren gaineko zalantzak argitzeko bilerak

Bi bilera egingo dituzte Oñatin datozen asteetan Euskaraldiaren gaineko zalantzak herritarrei argitzeko. Azalduko dute, adibidez: Euskaraldia noiz den, nola har daitekeen parte, zer den *ahobizi* edo *belarriprest* izatea, non jarriko den martxan edo zer egin behar den izena emateko. Bilera biak Euskaldun Berria gelan izango dira,

19:00etan; lehenengoa datorren astean da, urriak 15, eta bigarrena urriaren 25ean. Ordu erdiko iraupena izango dute informazio bilera biek.

Bestalde, Euskaraldiarekin bat egin eta parte hartzeko bideak eta epea zabalik daude. Udaletxean har daitezke eskuorriak, eta, irakurri eta bete ondoren, hantxe utz daitezke berriz. Izena emateko beste bide bat sare bidez egitea da. Horrela egiteko helbidea hau da: www.euskaraldia.eus.

NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

Bizitzaren aztarnak

"Utzizkidazu zimur guztiak, ez idazu bat bera ere kendu, bizitza osoa behar izan dut denak lortzeko eta". Hau esaten omen zion Anna Magnani aktore italiarrak bere makillatzaileari errodeaje bakoitzaren hasieran.

Askotan entzun dut Hollywoodeko emakumeek ez dutela lanik egiten adin batetik aurrera, 40 urterekin zaharrak dira zine-industriarentzat. Beti gazte izateko behar honek ez-gazte ez-zahar den emakume tipologia berri bat sortu du. Kirurgia plastikoaren eta botoxaren eraginez, ezaugarri berdintsuak dituzten emakumeen aurpegiak ugaztzen doaz zineman eta baita bizitzan ere –gizonezkoengan gazte izateko presioa ez da hain nabaria, noski–.

Aurrekoan, talentu handiko aktore ospetsu baten pelikula ikustera joan nintzen. 45 urte inguru izango ditu eta zimurak ez zituen estaltzen. Atentzioa eman zidan. Ez dezagun arraro bilakatu normala beharko lukeena.

Agian, ez gara aktoreak izango, baina guk ere Anna Magnaniren esaldia gogoratu beharko genuke ispiluaren aurrean jartzen garen bakoitzean.



Martitzenean egon zen Lourdes Idoiaga jeltzalea Goienako *Harira* telebista saioan. JAGOBA DOMINGO

"Proposamenak egiten ditugu"

Oñatiko Udalak esku artean dituen proiektuez, agintaldiaren balorazioaz, EH Bildurekin duten harremanaz eta etorkizuneko Oñatiz berba egin zuen EAJko udal bozeramaile Lourdes Idoiakak Goiena telebistako 'Harira' saioan

Oihana Elortza OÑATI

Herriko jaiak "lasai eta ondo" pasa dituela aipatu zuen Idoiak programaren hasieran. Bere alderdiaren aurka jaietan herrian ikusi diren pegatinak ez zaizkiola gustatu ere aitortu zuen: "Elkarbizitzarako esfortzu gogorra egin behar da Oñatin. Jaietan ikusi ditugu Legebiltzarretik gertu dauden edo ezker abertzaleko pertsona esanguratsuak *Fuck PNV* pegatinekin. Guk uste dugu hori ez dela bidea, ez dela politika egiteko modua. Nire aurpegia zuten pegatinak ere kendu ditut jaietan. Guk ez dugu horrela jokatzeko".

Gatiburen eta Gozategiren kontzertuekin Foruen plaza beteta ikusteaz poztu egin zen: "Urte batzuk badaramatzagu eskatzen plaza ingurura ekitaldiak ekartzeko eta aurten oso pozgarria izan da hango ekital-

dietan jendea ikustea". Danborrada ikusi zuela esan zuen, baina San Migelen irudia ez zitzaioela asko gustatu ere, nahiz eta irudi erreibindikatioak defenditu eta danborrada horretarako leku ona izan daitekeela gaineratu: "LGTBI erreibindikatatu behar da, baina ez horrela, beste toki batzuetan, akaso. Corpuseko irudia da San Migel eta adierazpen askatasunetik kanpo zegoen. Jende asko haserretu egin zen. Irudi hori kondoiak banatzen ibili zen gero, umeei zein edadetuei. Uste dut gustu txarrekoa izan zela. Irudi

**"DANBORRADAN
BADAGO
ALDARRIKAPEN
IRUDIRAKO TOKIRIK,
BAINA ERRESPECTUZ"**

erreibindikatio bat egotea danborradan ondo dago, eta egon izan da, baina errespetu baten barruan. Hori da oreka".

Tabernak eta ordutegia

Jaietako ekitaldien eta gaueko ordutegi eta zaraten gainean, berriz, adierazi zuen "malgutasuna" egon behar dela jaietan, baina baita "oreka" ere. "Aisialdirako aukera eta herritarren deskantsurako eskubidea orekatu egin behar dira. Eskatzen dugu, gutxienez, bospasei orduko atsedena ematea plazatik beharako gune horri, atsedena

**"ATLETISMO PISTAREN
BEHARRA ETA
KANPOKO IGERILEKUA
EGITEA ARGI IKUSTEN
DITUGU"**

hartzeko. Urte osoan zehar ere sufrizten dute zarata". Horri lotuta, herriko gune horretan tabernetako eta zarataren arteko arazoa aspaldikoa dela gogorazi zuen. "Ni alkate nengoela herritarrekin eta tabernarekin adostu genuen sistema bat zarata mugatzeko. Horrekin, asko baretu zen gaia. Prebentiboa izan zen sistema hori, guztiz. 2011n, EH Bildu Udal Gobernura heldu zenean, sistema automatiko eta erregistroari jarraipena egiteari utzi egin zion, eta horrek nahigabea ekarri du bizilagunen artean. Ez bada jarraipenik egiten, herritarra behartzen duzu salaketa jartzea Ertzaintzaren aurrean. Salaketa jarri eta herritarrek konprobatu dute, adibidez, 2016an lau zigor espediente ez zirela tramitatu eta gobernuaren mahai gainean gelditu zirela. Baina orduko sistemak egun ere funtzionatzen du, Gobernuak ezetz esan arren. Maiztzean, esaterako, hiru tabernakotako datuak heldu ziren udaltxera. Oraingo ordenantza berriak ez du transmisio automatikorik jasotzen eta Udalak ez du bere gain hartzen kontrolaren ardura, berriz herritarren esku gelditzen da", zehaztu zuen Idoiakak.

Ordenantza fiskalen gainean ere jardun zuten eta abstentzioaren botoa zergatik eman zuten azaldu zuen Idoiakak: "Obren zergan hobariak egiteko lau proposamen egin ditugu. 15 urte baino gehiago dituzten pinudi kaltetuetako jabeek zergarik ez ordaintzea ere proposatu dugu. Ez digute onartu. Orokorrean, plano ikusi ditugu 2019rako zerga ordenantzak eta egunerokotasunean garrantzia duten gaientan ezekoa izan da erantzuna".

Kanpoko igerilekua

Datorren urteari begira, 2019ko aurrekontuak dagoeneko lantzen ari direla adierazi zuen zinegotzi jeltzaleak, eta proposamenak jasotzen eragile ezberdinen aldetik. Partaidetzazko aurrekontuen gainean, bide onetik doazela adierazi zuen eta "oso proiektu interesgarriak" egin dituztela herritarrek.

**"UDALEKO
BATZORDEETAN EH
BILDUREKIN BATERA
ARITZEN GARA
ELKARLANEAN"**

Etorkizuneko Oñatiri dago-kionez, adin guztietarako moduko Oñati gurako luketela esan zuen, "lauzpabost belaunaldiri zerbitzu emango diona, berdintasuna bermatzen duena, euskararen sustapena lantzen duena, sozioekonomia indartzen duena eta irisgarria izango dena; herri atsegina".

Kanpoko igerilekuen inguruko galderak ere erantzun zituen Idoiakak *Harira* saioan. Barrukoa hiru kale gehitzea ondo ikusten dute, baina baita kanpokoak egitearen beharra ere: "Usakok erabilera bat du, baina ekainetik irailera, hainbat eta hainbat aitajaun-amandrek ez dutela nora joan ikusten dugu. Tokiak ere aztertu ditugu eta bideragarria ikusten dugu. Gure asmoa herriko beste auzo batean egitea izango litzateke, espazio hura ere berpiztuz. Ur parkea ondo dago eta gehiago ere egon behar lirateke, baina ez du kanpoko igerilekuaren zerbitzua ematen". Kirol arloan ikusten dituzten beste behar batzuen artean, atletismo pista bat egitearena ikusten du EAJk: "Urrutxuko gunea prest dago horretarako eta geldi dago. Aloña Mendik ere ikusten du behar hori eta herritarrek ere eskatzen dute. San Martingo pagadiak disfrutatzeko, korrika egiteko senda bat egitea ere defendatzen dugu, jolas txiki batzuekin beste bizitza bat emateko".

Herri barruan oinezkoen, patineteen eta bizikleta gainean doazen arteko elkarbizitza arautu beharra dagoela ere berretsi du Idoiakak Goiena telebistan. "Ez arau zigortzailea, baizik eta errespetatu eragitekoa", zehaztu du.

Agintaldiaren balorazioa

EH Bilduren bigarren agintaldia aurrekoa baino gestio eskasagokoa izan dela dio Idoiakak, "ekonomia arloan zein planifikazioan", adibidez. "Desadostasunak egoten dira hor eta medioetan hori agertzen da. Baina elkarlanean aritzen gara bestalde. Diru laguntzetarako, aurrekontuetarako edo ordenantzarako, esaterako, proposamenak egiten ditugu. Lan egiten dugu. Oposizioa egitea eta Udal Gobernuak egiten duena kontrolatzea eta herritarren proposamenak entzuk eta gure egitea dira gure zeregin nagusiak, hain zuzen ere".



Atxaga, Ibarzabal, Egaña, Artetxe, Iturriaga, Colina eta Mendiluze, bertso saioan. I.S.



Zezenaren aurrean ausart. A.A.



Franco eta haren senideak ikusi zituzten kalean astelehenean. AITOR AGIRIANO



Gaztetxoan arteko herri kirol probak zapatu arratsaldean egin ziren. A.A.



Gipuzkoako sagardoa plazan. A.A.



Txosnagunean egin zuten Euskaraldiaren aldeko herri bazkaria. A.A.

Musika eta antzerkia udazken kulturalean

Herriko jai nagusiak pasa dira, baina abendura bitarteko udal kultura agenda dagoeneko ia beteta dago. Aurten ere musika klasikoko emanaldiak egongo dira azaroko domeketan eta hilabete bakoitzeko antzezlan bana ere egongo da

Oihana Elortza OÑATI

Bukatu dira San Migel eta Errosario jaiak eta egunerokotasunera bueltatu da herria. Horrek, baina, ez du esan gura ez dela ekitaldirik egingo denbora batez. Kulturari dagokionez, esaterako, agenda ia beteta dago. "Jaiak

pasa dira; ondo, gainera. Jendetsuak izan dira, egitarauan jasotako guztia egin ahal izan da eta udaltzainen aldetik ere ez da inolako gertaera edo gorabeherarik egon. Jaiak bukatuta, udazkeneko ekitaldiak antolatzen jarraitzen dugu. Ur-

tero azaroan egiten diren musika kontzertuak aurten ere egingo dira, adibidez, eta antzerkia ere ikusi ahal izango da. Joxan Artze gogoan egingo den ekitaldia ere iragarrita dago hilaren 19rako", adierazi du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.



Oñatiarrek 36 plaza egin zituzten eta Lezokoek, bat gutxiago. IMANOL BELOKI

Jaialdia egingo dute Potx eta Lotxek zapatuan, DVDra

DVD bat grabatu gura dute Potx eta Lotx pailazoek eta jaialdi bat egingo dute domekan, dirua biltzeko. *Crowdfunding* kanpaina bidez egin gura dute DVDa.

Grabatu duten proiektu horretan, herriz herri egindako ikuskizunetako irudiak sartuko dituzte, baita domekan Santa Anan egingo dituzten ekitaldietakoak. Izan ere, bi emanaldi

egitekoak dira domekan Potx eta Lotx Santa Ana antzokian, 16:30ean eta 18:30ean. *Crowdfunding*-a Kataluniako enpresa baten laguntzarekin jarri dute martxan eta herritarrek egindako diru ekarpenekin DVDa ekoizteko beharrezkoak diren lanak ordainduko dituzte: grabaketa, material teknikoaren alokairua, aretoaren tasa, teknikoak, kopiak... Asmoa da Gabonetarako bukatuta egotea.

Santa Anarako sarrerak Txokolateixian daude salgai.

Izena eman daiteke Udalaren eskulan ikastaroetan


Aurten ere egingo dira Udalak antolatzen dituen eskulan ikastaroak. Orratz lanak, sendabellarren tailerra, eskulan dekoratiboak eta pintura ikastaroa. Hori da aurtengo eskaintza. Izena eman gura duenak kultura etxeko harreran egin behar du; urriaren 19a da azken eguna izena emateko. Ikastaroak azaroaren 5ean hasiko dira.

X. Trikiti Jaialdia egingo dute hilaren 27an Santa Anan

Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, X. Trikiti Jaialdia egingo da hilaren 27an, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:30ean. Zazpi trikiti taldek joko dute bata bestearen segidan entzuleen aurrean. Jaialdiko sarrerak dagoeneko salgai daude, 12 eurotan, Arrano tabernan. Jaialdiaren ondoren afora egingo dute gaztelekuan.

Izarok kontzertua egingo du zapatuan gaztelekuan

Izarok joko du zapatuan gaztelekuan, 20:00etan. Aurretik ere egon da Izaro Oñatin; Atzeko kaleko oholtza gainean abestu zuen aldi hartan. Asteburu honetan, gaztelekuan egingo du emanaldia. Doinu goxoz betetako kantuekin etorriko da musikari mallabitarra. Sarrerak 10 euro balio du eta aurrez ere eros daiteke gaztelekuan.




14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA egin klik!

Banatu ditugu **Udako Argazkien 14. Goiena Lehiaketako** sariak. Hiru saridun izan ditugu. **Iosune Kortabarriak**, *Antelope Canyon (Arizona)* argazkiarekin, **lehen saria** irabazi du –Redmi 5 Plus smartphonea, Eroski Arrasateren eskutik–. **Itziar Arrizabalagak**, *Ur azpian jendetza* argazkiarekin, **bigarren saria** eskuratu du– Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako otordua–. **Maria Aginagaldek**, *Turkia* argazkiarekin, **Publikoaren Saria** irabazi du –Zumaiako Zelai talasoterapian bi pertsonarendako spa zirkuitua eta asteburuko menua, Arrasate Bidaiei esker–. Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!

2. SARIA



1. SARIA



PUBLIKOAREN SARIA



ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

Linazisoro, Jokoetako finaletatik kanpo

ESKALADA Buenos Airesen jokatzeko dabilzan Jokoetako finaletatik kanpo geratu da Mikel Linazisoro. Hain zuzen, zorrotzen prestatu behar izan duen abiadura modalitatean ibili da Bergarakoa ondoen; zortzigarren sailkatuta da hor

Xabier Urzelai BERGARA

Egin duen urte ona borobildu ezinik geratu da Mikel Linazisoro (Bergara, 2000) Argentinan, Buenos Airesen jokatzeko dabilzan Gazteen Olinpiar Jokoetako finaletatik kanpo geratu da eta. Sei eskalatzaile onenak sailkatzen ziren finalerako; benetan zen zaila sei onenen multzoan egotea, baina aurten nazioarteko txapelketetan erakutsi duen maila erakutsita, eskura zuen erronka hori.

Astelehenean jokatu zuten kirol eskaladako kanporaketa saioa. Goizean, abiadura modalitatearekin hasi zuten txapelketa, eta hor, bergararra zortzigarrenaren izan zen. Esperientzia gutxien duen modalitatea da, eta ez zen emaitza txarra; izan ere, *bouldering* eta zailtasun eskaladan, berez, esperientzia handiagoa du Bergarakoak.

Baina Linazisorok ez zuen *bouldering* (16.a sailkapenean) eta zailtasun (15.a) modalitateetan ohiko mailarik eman, eta hor egindako lan-saioek finaletatik kanpo utzi zuten bergararra. Hiru modalitateak batuta, Bergarakoa 17. sailkatu da.

Pozik egoteko moduko urtea

Linazisorok ezin izan du Buenos Airesen urtea borobildu, nahiz eta 2018a oso emankorra izan den harendako. Besteak beste, Europako zailtasun txapelketan urrea jantzi du, 20 urtez azpiko Europako Txapelketan txapel-dunorde izan da, Innsbrucken jokatuako kategorian absolutuko Europako Txapelketan lehiatu da eta Gazteen Olinpiar Jokoen debuta egin du.

Hori guztia gutxi balitz, *psicobloc* modalitatean, Coruña, Chris Sharma eskalatzaile handia atzean uzteko kapaz izan zen; hain zuzen, *psicobloc*-a lehenengoz egiten zuen txapelketan. Ez du izango nazioarteko txapelketa baten domina baten



Mikel Linazisoro. CANALFEDME.COM

'BOULDERING' ETA ZAILTASUN MODALITATEETAN EZ DU BERE MAILA EMATERIK IZAN

balioa, baina gozamen ederra hartuko zuen, seguru.

Nesketan, Austria indartsu

GOIENAKo erredakzioa itxi aurretik, gizonen finalak jokatzeko zeuden; emakumezkoen kategorian, Austriak nagusitasuna erakutsi du, lurralde horretako bi eskalatzaile igo dira eta podiumera. Hala, Sandra Lettner izan da urrea jantzi duen eskalatzailea, Esloveniako Vita Lukuanendako izan da zilarra eta brontzea Austriako Laura Lammerrek irabazi du.

Gizonen modalitatean, *bouldering* eta zailtasun modalitateetan egindako lana batu eta gero, Keita Dohi (Japonia), Sam Avezou (Frantzia), Shuta Tanaka (Japon), Petar Ivanov (Bulgaria), Filip Schenk (Italia) eta Yufei Pan (Txina) eskalatzaileak sailkatu dira finalerako.

Abiadurako espezialistak, kanpoan

Bi urte barru, 2020an, Japonian egingo dituzte Olinpiar Jokoak. Hain zuzen, gertaera horrek bultzada handia eman dio kirol jarduerari, eta, esaterako, Japonian bertan zaletasun handia dago. Jokoei begira, baina, kirol eskalada txapelketa zelakoa izango den "asmatu" egin behar izan dute, eta eskalatzaileak horretara moldatzen ari dira. Hala, Buenos Airesen garbi geratu da abiadura modalitateko espezialistek ez dutela ezer egiterik beste modalitateetan trebatzen ez badira; ez dira finaletarako sailkatu. Kontrara, Linazisoro abiadura lantzen dabil, nahiz eta oraingoan ezin izan duen erakutsi eskalatzaile osoa dela.



Muko ordezkariak, joan den domekan, Euskal Kopa irabazi berritan. OINTXE!

Euskal Kopa irabazita hasiko du MUK EBA mailan liga, bihar

SASKIBALOA Ointxe!-ko ordezkariak Burgosko Unibertsitatearen bisita izango dute Iturripen

X.U. ARRASATE

Amaitu da denboraldi-aurrea, Mondragon Unibertsitateak bihar, zapatua (18:30, Iturripen) jokatu du EBA mailako lehenengo jardunaldia, Burgosko Unibertsitatearen kontra. Eta joan den domekan Santurtzin irabazitako Euskal Kopak erakusten du, aurrez, behintzat, talde zuri-morea ondo indartu dutela. Egiteko garrantzitsua zen hori, azken denboraldian kantuan maila galdu eta gero ez zeukan-eta zentzurik aurrera egiteak, baldin eta taldeak postu guztiak indartzeko aukerarik

izan ez balu, eta horretan ahalgindu dira.

"Ilusioa ematen du"

Iñaki Ogara entrenatzaileak domekan bertan aitortu zuen Euskal Kopa irabazi izana garrantzitsua izan dela: "Taldea ondo ikusi dut finalean, Santurtzi zen faboritua, gainera euren kantxan jokatu dugu, baina gure jokoa gailentzea lortu dugu, eta, oraindik eritimo faltan bagaude ere, maila txukuna eman dugu. Honek ilusioa ematen digu, baina garbi dugu gure benetako erronka orain hasiko dela".

Jardunaldi negargarria atzean uzteko konbentzimenduarekin

FUTBOLA Mondraren, Bergararen eta UDAREN artean bederatzi gol jaso zituzten joan den astean

X.U. ARRASATE

Emaitzen taulari begiratuta badirudi Maritxu Kajorekin ajeak Debagoieneko Ohorezko Erregionaleko talde guztiak harapatu zituela joan den astean. Lider dagoen Anaitasunak bost gol sartu zituen Mondrari, Aretxabaletak hiru gol jaso zituen etxeko zaleen aurrean eta Bergarak ere galdu egin zuen etxean, 0-1 Oiarzunen kontra.

Hala, laugarren jardunaldiak emandakoa lehenbailehen azaltu eta urriko zubiko oporraldi barik, hiru taldeetako ordezkariak lanean izango dira asteburuan. Eta behin lan egin behar izanda, izan bedi puntuak batzeko.

Egubakoitzean jokatu dute

Bailarako hiru taldeek bihar, egubakoitzean, jokatu dute aurreratutako partidua. Mondrak jokatu du etxean, atzealdeko postuetan dagoen Allerru hartuko du Mojategin (16:30). Aretxabaleta, berriz, Mutrikura joango da (18:00, San Migel) eta Bergarak Deusto Donostia izango du aurrean (19:00, Zubieta).



Korrikalariak izako Antxintxika Kroseko azken metroak egiten, Bergarako San Martin plazan. IMANOL SORIANO

Korrika egiteko, lau aste bukaera jarraian aukeran

LASTERKETAK Hurrenez hurren, Kooperatiben arteko Mundukide lasterketa (urriak 21), Oñati-Arrasate (urriak 27), Antxintxika Krosa (azaroak 3) eta Behobia-Donostia (azaroak 11) egingo dituzte; lehenengo hirurak Debagoienako errepideetan izango dira

Mireia Bikuña ARRASATE

Kirolari popularrak direnek bi zatitan banatzen dute euren denboraldia. Lehenengoan, asko, bizikletan ibiltzen dira. Berezi-ki, udako oporren aurretik dauden klasikoak prestatzen. Bada, abuztutik bueltan, korrikalariak, atletak dira nagusi errepideetan, bidegorrietan. Gehienek dute begiz jota azaroaren 11ko Behobia-Donostia. Eta askok baliatzen dituzte urriaren eta azaroaren dauden lasterketak Behobiari begira ipintzeko.

Debagoienean hiru lasterketa herrikoi daude, hiru aste bukaeratan jarraian. Behobiarekin batuta, lau asteburu segidan korrika egiteko aukera ematen dutenak: kooperatiben arteko Mundukide lasterketa urriaren 21ean, Oñati-Arrasate proba urriaren 27an eta Soraluze-Bergara Antxintxika Krosa azaroaren 4an.

Horietan guztietan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, interesatuendako.

Urkuluri buelta

Urriaren 21ean, Urkulu urtegia partaidetzaren, elkartasunaren eta konpromisoaren topaleku bilakatuko da. Kooperatiben arteko Mundukide IV. elkartasun lasterketa egingo da, korrika, ibilkera nordikoz edo oinez. Hiru modalitateetan zazpi kilometroko ibilaldia egin beharko dute; baina lehiakorra korrika egiten dena bakarrik izango da. Hain justu ere, modalitate horretan, kooperatiba bereko hiru kidez osatutako taldeek parte hartuko dute.

Interesatuak urriaren 18a baino lehen eman behar dute izena: nork bere lantegian edo Mundukideren webgunean. Lasterketaren egunean ere eman ahal

**KORRIKALARI
GEHIENEK BEGIZ JOTA
DUTE AZAROAREN 11:
BEHOBIA-DONOSTIA
LASTERKETA**

izango da izena, 09:00etatik 10:00etara, Urkulun bertan.

Oñatitiek Arrasatera, lehen aldiz

Urriko azken zapatuan, Oñati-Arrasate lasterketa egingo dute. Norazko horretan egiten den lehen aldia izango da. Orain arte Antxintxiketan taldeak izan du proba antolatzeko ardura, baina, Aurrerantzean, AED arduratuko da horretaz. Ibilbideak apenas izango du aldaketarik. Hala, berrikuntza bakarrik izango da ez dutela patinatzaileendako lasterketa egingo. Izena emateko: Herrikrosa.eus ataria.

Mikel Crespo memorial

Egutegian hurrengo, XIV. Antxintxika Krosa Mikel Crespo memorialeko izango da, azaroaren 3an. Soraluze eta Bergara artean egiten den lasterketak hamar kilometro ditu, eta hiru modalitateetan egingo da: korrika, patinetan eta gurgil-aulkietan. Izena emateko Kirolprobak.com atarian sartu behar da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Mondra-Allerru

Egubak. 16:30. Mojategi.

Mutriku-Aretxabaleta

Egubak. 18:00. San Migel.

Deusto-Bergara

Egubak. 19:00. Zubieta.

ERREGIONAL PREFERE.

Aretxabaleta-Ilintxa

Domeka. 16:30. Ibarra.

Idiazabal-Mondra

Egubak. 12:00. Arizkorre.

Antzuola-Getariako

Egubak. 12:15. Estala.

Ikasberri-Aloña Mendi

Domeka. 16:30. Garmendipe.

EMAKUMEZKOEN ERRE.

Bergara-Lagun Onak

Domeka. 17:30. Ipintza.

Leintz Arizmendi-Urola

Egubak. 12:00. Mojategi.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Ikasberri

Domeka. 12:00. Azkoaga.

Bergara-Ordizia

Zapatua. 16:00. Ipintza.

Zarautz-Arizmendi

Zapatua. 18:00. Asti.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Elgoibar

Domeka. 16:30. Azkoaga.

Aretxabaleta-Ostadar

Zapatua. 12:00. Ibarra.

Mondra-Billabona

Egubak. 18:30. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrate

Atsedena

Eskoriatza

Atsedena.

Aretxab. UDA

Atsedena

OHOREZKO GAZTEAK

Lardero-Eskoriatza

Zapatua. 19:00. Lardero.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Deusto-Ford Mugarri

Ordua zehaztu barik.

Fagor Industr.-Basauri

Zapatua. 18:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce B.-Egia

Domeka. 12:15. Labega.

GIPUZKOAKO B. MAILA

Bergara

Atsedena.

GAZTE GIZONEZKOAK

Aloña Mendi-Urnieta

Atsedena.

Arrasate-Donibane

Atsedena.

GAZTEAK, EMAKUMEZK.

Bergara-Urnieta

Egubak. 11:00. Labegara.

Athlon Aloña-Leizaran

Zapatua. 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Universidad

Burgos

Zapatua. 18:30. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Aloña Mendi

Atsedena

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara Soraluze

Atsedena.

GIP. HIRUG. MAILA

Aloña Mendi

Atsedena.

MU C

Atsedena

EMAKUMEZKOAK

Atlético-Eskoriatza

Gaur. 21:00. Donostia.

EMAK. BIGARREN MAILA

Bergara Soral.-Zast

Gaur. 12:30. Labegaraiaeta.

GAZTE, ERRENDIMENUA

Ama Guadalupe-MU

Gaur. 12:30. Labegaraiaeta.

EMAK. BIGARREN MAILA

Bergara Soral.-Zast

Gaur. 12:30. Labegaraie.

EMAK. GAZTE. ERREND.

Eskoriatza

Atsedena.

EMAK. GAZTE. PARTAID.

MU-Andraitz

Zapatua. 10:00. Musakola.

Bergara

Atsedena.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

ART

Atsedena

18 URTEZ AZPIKOAK

ART

Atsedena

SQUASH Debagoienako squash txapelketa, hilaren 28tik martxan

Egin dute Debagoienako squash txapelketako parte hartzeko deialdia. Hilaren 28an hasiko da eta domeketan jokatuko dituzte partiduak, 09:30ean hasita. 18 urtetik gorako edonork parte har dezake, squashean federatuta egon barik ere. Dagoeneko zabalik dago izen-emate epea: hilaren 22ra arte egin daiteke, 656 73 60 17 telefonoan. Whatsapp bidez izen-abizenak eta telefonoa eman beharko dira. Inskripzio normalak, hamar euro; eta langabeak eta ikasleak, bost euro.

Arrasateko Musakola kiroldegian jokatuko dira txapelketako partidu guztiak, baina bailara osoko jokalariek har dezakete parte.

PILOTA Elgetan egingo dute geldialdia emakume pilotariek

Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketa urriaren 21ean hasiko da, 92 pilotarirekin. 80 promozio txapelketan lehiatuko dira eta hamabi, Lehen Mailan. Bestalde, 24 pilotarik lehen aldiz parte hartuko dute Master Cup txapelketan. Lau terdiko txapelketak hiru aurre-kanporaketa eta zazpi egoitza izango ditu. Horietako bat Elgeta izango da. Abadiño, Gordexola, Lemoa, Zalla, Amezketeta eta Azkoitia dira besteak.

Pilotarien jatorriari dagokionez, bizkaitarrak dira gehienago. 28, hain justu ere. Gipuzkoarrak, aldiz, 24. Antolatzaileek bereziki baloratzen dute hamabi pilotariren parte hartzea.



Iazko sarituak, epaimahaiko kideak, udal ordezkariak eta idazle eskolako kideak. GOIENA

Poesia landuko dute Karmele Igartua bekan

VIII. Karmele Igartua sorkuntza beka izango da aurtengoa. Parte hartzaileek urriaren 30era arte izango dute lanak aurkezteko. Euskarazkoak eta originalak izan beharko dute lanek. Bekaren irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Poesia izango da aurtengo Karmele Igartua sorkuntza bekaren generoa. "Karmele ipuinekin, antzerkiarekin... hasi zen, baina, ondoren, poesiara jo zuen eta izugarritzko eboluzioa izan zuen", azaldu du Idazle Eskolako zuzendari den eta Igartuaren lagun min zen Tere Irastorzak.

Zortzigarren Karmele Igartua beka izango da aurtengoa, aurrez Bergarako idazle eskolaren beka zena -15. edizioa-. Azkeneko hiru urteetan, Aretxabaletako Udalak lagundu du sariketan diruarekin. Nabarmendu behar da lehen edizio hartako irabazle Karmele Igartua bera izan zela, *Gaur arte* narrazioarekin.

Urriaren 30era arte

Iazko generoa gidoia izan zen eta aurrez haurrendako ipuinak landu zituzten. "Iaz, esaterako, 20 bat lagun aurkeztu ziren sorkuntza bekara. Uste dugu aurten ere jendea animatuko dela", dio Irastorzak.

Interesatuak hilabete amaierara arte izango dute lanak aurkezteko: urriaren 30a izango da azkeneko eguna. Sorkuntza bekan parte har dezake 16 urteko gorako edozein pertsonak. Aurkeztuko diren poesiak euskaraz idatzitakoak izango dira. Horrez gain, lanek originalak izan beharko dute, eta argitaratu gabeak. Ez dute itzulpenik onartuko.

Lanak ez du 500 lerro baino gutxiagoko luzera izango eta aurpegi bakarrean idatzita egongo da, *New Courier 12* hizkian.

Poesiaren gaia librea izango da.

Nola aurkeztu lanak

Lanak posta elektronikoz edo posta arruntez bidali daitezke. Posta arrunta aukeratzen duenak Aretxabaletako Otolara kaleko lehenengo zenbakira bidali beharko du gutuna; eta posta elektronikoz bidali gura duenak *kultura@aretxabaleta.eus* helbidera idatzi beharko du. Aretxabaletako udaletxean bertan ere aurkez daitezke lanak, jendaurreko ordutegian.

Hiru poema liburu ditu

Poesian eboluzio izugarria izan zuen Igartuak. Urte gutxian hiru poema liburu argitaratu zituen. "Puntako poeta zen, argia, sakona..." azaldu du Irastorzak. *Hitzak orbainetan* izan zen lehen liburua -Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia saria irabazi zuen-; *Denbora enaren hegaletan* argitaratu zuen ondoren -Pamiela- eta *Itsaso Kontra bat* azkenik -Pamiela-. Azken lan hori Espainiako Sari Nazionalerako euskarazko hautagaia izan zen.

Abenduaren 13an, sarituak

Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du epaimahaia. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, abenduaren 13a baino lehen izendatuko dituzte irabazleak.

Irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du. Iaz, Uxue Arzelus donostiarrak irabazi zuen beka, *Paris* lanarekin. Film labur bateko gidoia sortu zuen Arzelusek: "Istoria txikiak sortzen ditut, pertsonaiekin zentratuak", zioen Arzelusek saria jasotzean.

Igartuaren lanak, sarean

Irastorzak azaldu du Karmele Igartuaren lanak *Idazten.com* atarian daudela ikusgai. "Lan asko irakur daitezke atarian: poemak, antzerkiak, idatzi artikulak... Nabarmendu behar da 28.000 irakurketa dituztela Karmeleren lan batzuek", azaldu du Irastorzak.

Kameratoia lehiaketak baditu irabazleak

Lekeition jokatu dute 24 orduko lehiaketa; 'Amuarrainak begi bi, sei ezkailluk 12' izan da gaia

A.E. ARRASATE

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Kameratoia rallya Lekeition egin zuten aste bukaeran, euskal zinema bilera aprobeztatuta. Aurtengo berrikuntza izan da ikus-entzunezkoen rallya 24 ordukoa izan dela.

Gaia izan zen: *Amuarrainak begi bi, ezkailluk 12*. Gai horren bueltan egindako ikus-entzunezkoen artean lehenengo saria jaso zuen Lapatx taldearen *Ilunpean* lanak; bigarren saria Txistana taldeak eroan zuen, *Anamorfia* lanarekin; eta hirugarren saria eta baita publikoarena ere Askopena produkzioaren *Bisitaria* lanak jaso zuen. Mikel Zumeta eta Yogurinha izan ziren epaimahaiko kideak.

Irudienea: izen-ematea zabalik

Durangoko Azokako Irudienea gunean parte hartu gura duenak urriaren 15era arte izango du proposamenak aurkezteko epea. Topaguneak antolatuta, euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntzaren azken berrikuntzak eskaintzeko gunea izaten da. Azken urtean lanen bat sortu duten guztiendako da deia. Izena emateko, *irudienea.durango-koazoka.eus* atarian dagoen galdetegia bete behar da.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

GORKA URBIZU, MUSIKARIA

JUAN KRUIZ LAKASTAK ELKARRIZKETATUTA

URRIAREN 17AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.



Bertsolariak, nazioarteko inprobisatzaileekin biran

Kubako Tomasita Quiala repentista, Araceli Argüello Argentinako payadorea eta Amets Arzallus, Julio Soto, Jone Uria, Maialen Lujanbio eta Xabi Igoa bertsolariak ari dira parte hartzen; helburua da teknikak ezagutaraztea eta elkarrekin partekatzea

Aitziber Aranburuzabala ARAMAIO Mintzola Ahozko Lantegiak eta Lanku Kultur Zerbitzuak elkarlanean sortutako ekimena da Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira. Izenak adierazten duen moduan, bertsolaritzarekin batera, munduko beste kultur adierazpide batzuk taularatzen ari dira ekimenarekin: Kubakoa eta Argentinakoa.

Martitzenean abiatu zuten eta domeka bitartean sei saio egingo dituzte. Iruñean, eta Erandion eskaini ondoren, gaur, eguena, Hernanin izango dira, bihar Gasteizen, zapatuan Baionan eta domekan egingo dute azkena, Donostiako Antzoki Zaharrean. Sarrerak aurrez erosteko aukera dago, *Mintzola.eus* eta *Lanku.eus* atarietan.

Antzerakoak, baina ezberdinak "Ezagutarazteko, ederra da gauzak partekatzea", dio Mintzola-kide Jon Agirresarobek, eta zera gaineratu du: "Kantu inprobisatuak antzerakoak direla iruditzen zaigun arren, badituzte elkarren artean ezberdintasun handiak. Oinarrian, inprobisatzailearen publikoarekin komunikatzeko nahi bat dago; era berean, metrika eta errima aldetik zailtasuna dute guztiek, baina hortik aurrerako guztia



Iruñean martitzenean egin zuten saioa. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

ezberdina da: adibidez, payadoreek eta repentistek musika darabilte eta bertsolariek, ez, errimatze moduak ere ezberdinak dira, metrikak eta melodiak ere bai; horregatik, elkarrekin jardutea ez da erraza, baina oso interesgarria iruditzen zaigu, bata bestea elikatze oso baliagarria delako. Quialak 57 urte ditu eta erreferente bat da Kuban, 35 urtetik gorako ibilbidea du plazaz plaza; eta kontrapuntua da Argentinako Argüello payadorea: 23 urte ditu eta ibilbide artistiko hasi berria".

Bihar, Gasteizen, Xabi Igoa Ariketa ezberdinak dauden arren, formatuz ohiko saio bat dela dio te antolatzaileek: "Ordu eta erdiko iraupena du, eta banaka eta elkarrekin inprobisatzen ikusiko ditugu. Bakoitzak bere hizkuntzan abestuko du, eta, elkar ulertzeko, taularen gainean bi itzultzaile daude: Maialen Arzallus eta Irati Majuelo".

Bihar, egubakoitza, Gasteizko Beñat Etxepare antzokian, 19:00etan, Maialen Lujanbio eta Xabi Igoa aramaioarra izango dira euskal ordezkariak.

solte dira, ez dute elkarren artean zerikusirik. Garazi Etxaburuk eta Jaiotz Osak egiten duten duetoa da lehenengoa, emakume hirukote batek feminismoa lantzen du bigarrenean, eta, hirugarrenean, beste pieza batzuen inguruan bidaiaria bat taularatzen du boskote batek", dio Argomániz koreografoak.

Publikoak ulertzeko moduko saioak egitea dutela helburu, gaineratu du dantzariak: "Kontzeptualgia izan barik, dantza-rekin guztiok gozatzea da asmoa".

Hiru piezaz osatuta, dantza garaikidea ikur duen ikuskizuna

Donostiako Lasala konpainiak 'IU, Female eta Trip' saioa eskainiko du bihar, zapatua, 19:30ean, Amaia antzokian


A. A. ARRASATE

2013an abiatu zuten Judith Argomanizek eta Jaiotz Osak Lasala dantza konpainia; harrezkero, etenik barik ari dira askotariko emanaldiak arrakastaz eskaintzen.

Udazabal programaren baitan Arrasateko kaleetan dantzatu zuten orain dela hiru urte, eta bihar, zapatua, Amaia antzokian eskainiko dute *IU*, *Female* eta *Trip* piezekin osatutako dantza garaikide saioa. "Hiru pieza

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urriko sariak!



SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Berri Txarrak

Berri Txarrak taldearen eskutik, Infrasoinuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Berri Txarrak



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.


Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarra

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa.

Indarrez gero LURTI 15/1000 legearen arabera, informazio digitala eta datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bidez automatikoki berritu eta partatu dira. Datu biletza honen helburu bakarra da indarrez gero datu pertsonalen erabilera. Eskubidea erretiratu dezakezu, baina ez du eraginik zuzeneko erabilera. Helbide: berri@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduaren atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2018 (urritik aurrera): 31€.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Hiru logelako etxea erostiko nuke Oñatin. Telefonoa: 647 24 40 54

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Hiru logelako etxebizitza behar duغو errentan. Beharrezkoa dugu igogailua. Presazkoa da. 637 52 89 83

Oñati. Mutil arduratsu eta euskaldunak etxebizitza hartu nahi du errentan, ahalik eta azkarren, Oñatin. 697 83 56 89

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko adin ertaineko emakume bati behar dugu. Euskaraz moldatzea ezinbestekoa da. Astean 17 ordu, kontratuarekin. Interesatuok deitu edo jarri harremanetan Whatsapp bidez telefono zenbaki honetan: 630 71 92 67

Bergara. Asteburuetan pertsona nagusi bat zainzteko, etxean bertan bizi den norbait behar dugu. Soziosanitariotitulu eta legezko agiriak izatea derrigorrezkoa. Telefonoa: 665 73 77 29

402. ESKAERA

Arrasate eta Aretxabaleta. Gauz edo goizean zehar orduka, nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu nago. Legezko agiriak, geriatriatikasketak eta erreferentzia onak dauzkat. Telefonoa: 632 89 09 42

Arrasate eta Aretxabaleta. Neska arduratsua gertu etxeko lanak egin, gaixoak ospitalean zaindu edota nagusiak zainzteko. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 687 36 02 86

Arrasate. Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. 602 36 61 02

Arrasate. Neska lanerako gertu. Esperientzia dut sukaldian laguntzen, nagusiak eta umeak zainzten eta denetarioko gar-

biketa lanetan. Telefonoa: 643 43 63 96

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. 632 25 27 26

Debagoiena. Bertako neska arduratsua gertu umeak zaindu, ospitalean gaixoekin egon, nagusiak lagundu edota paseoan ateratzeko eta orduka denetarioko garbiketarako egiteko. 695 73 87 95

Debagoiena. Egunean zehar garbiketarako egin, etxean lagundu eta nagusiak zainzteko gertu nago. 631 09 50 90

Debagoiena. Emakume arduratsua nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. 612 21 26 54 edo 699 73 01 24

Debagoiena. Emakume lanerako prest. Nagusiak zaindu edota garbiketarako lanerako. Orduka lan egiteko. 656 75 92 12

Debagoiena. Esperientzia duen neska egunean zehar zainza lanak egiteko gertu. Geriatria eta soziosanitario ziurtagiriak dauzkat. 630 99 11 85

Debagoiena. Esperientzia duen neska, orduka edo egunean zehar, zainza lanerako gertu. Telefonoa: 689 35 90 41

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 642 79 62 62

Debagoiena. Garbiketarako eta nagusiak zainzten lan egiteko gertu nago. Orduka edo eguneko jardunez. 615 06 28 04 (Magali)

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxean garbiketarako, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiak lagundu eta erostetekin lagundu, edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Gizonetako nagusiak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko gertu. 602 01 08 69

Debagoiena. Mutila gertu zainza lanetan, garbiketarako eta tabernan lan egiteko. Orduka edo

etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Esperientzia dut nagusiak zainzten, margotzen edota sukaldian. 602 10 59 24

Debagoiena. Mutila zainza lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota gauean. 695 40 56 65

Debagoiena. Nagusi eta umeak zainzten edota garbiketarako lan egingo nuke. Etxean bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 612 25 46 20 (Beatriz)

